

**Ikaskuntza-Zerbitzua eta JARDUERA  
MOTORRA KULTURARTEKOTASUNEAN  
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Makinai Milan, Ianire

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa

**2019**

## **LABURPENA:**

Lan hau Gradu Amaierako Lan bat da, non, Ikasketa zerbitzua (I-Z) metodoa jarduera motorraren bidez martxan jarri den, ikastetxe bateko Haur Hezkuntzako azken urteetako ikasle talde batzuek duten beharrei erantzun bat emateko. Horretarako, ikastetxearekin kontaktuan jarri izan gara, hain zuzen, zuzendaritza taldearekin eta kooperazio eta elkarbizitzaren inguruko beharrak zituztela ondorioztaturik, zerbitzuaren diseinu edota planifikazioa egin izan dugu. Zerbitzu honen bitartez, ikasleak kooperazioan lan egiten ikasteaz gain, ikasleen arteko harremanak gogortzen eta elkarbizitza sustatzen saiatu izan gara kulturartekotasunari leku bat eskaintzen eta hori bultzatzen saiatu garen heinean. Zerbitzua, eskolaz kanpo ekintzetan parte hartu ezin duten umeei, jolas kooperatiboen inguruan egindako ordu erdiko 12 saioak eskaintzea izan da, bertan, 44 ume parte hartu dute. Zerbitzua emateaz gain, Ikaskuntza Zerbitzuan (I-Z) parte hartu dugun ikasleok, irakasle paperan murgiltzea izan dugu helburutzat, hezitzaile gisa jokatzeko eta ikasitakoa martxan jartzeko aukera eskaini delarik. Kulturartekotasuna bultzatzeko, munduko zonalde ezberdinetako jolas tradizionalak hartu izan dira eta, kooperazioa lantzeko, jolas horiek moldatu izan ditugu elkarren artean lan egitera animatzeko. Aldi berean, saioetan zehar, informazio bilketa bat egin izan dugu eguneroko baten bidez, eta bertan jasotako hausnarketek hurrengoko saioak hobetzera bideratu gaituzte. Egunerokoa pautatuta zegoen eta zerbitzuaren eta saioen analisi bat egiteko ere baliagarria izan da, markatu izan ditugun helburuak lortu diren eta zerbitzua baliagarria suertatu den ikusteko. Ondorio gisa, lan honen bidez, ikastetxeari zerbitzu bat emateaz gain, ikaskuntza eta interbentziorako bestelako estrategia bat ezagutu izan da I-Z-rekin (ikasle zerbitzuarekin), gainera, etorkizuneko irakasle gisa, hainbat gaitasun eta trebetasun lortzea ahalbidetu izan da, besteak beste, hausnarketa pedagogiko bat egin behar dela ikastea: saioen prestakuntza, horien aurrera eramatea, beharren detekzioa, beharrak asetzeko estrategiak aurkitzea eta saioen hobekuntzak bilatzea. Bukatzeko, esan dezakegu ikasleen eta ikastetxearen asebetetze maila ona izan dela.

**Hitz gakoak:** Ikasketa zerbitzua (I-Z), jolas kooperatiboa, kulturartekotasuna, jarduera motorra, elkarbizitza.

## **RESUMEN:**

Este trabajo es un Trabajo de Fin de Grado en el que se ha puesto en marcha el método de Aprendizaje Servicio (ApS) a través de la actividad motriz para dar respuesta a las necesidades de los grupos de alumnos y alumnas de los últimos cursos de Educación Infantil de un centro educativo. Para ello, nos hemos puesto en contacto con el centro, con el equipo directivo y con la conclusión de que tenían necesidades de cooperación y convivencia, hemos

realizado un diseño y/o planificación del servicio. A través de este servicio, además de que el alumnado aprenda a trabajar en cooperación, se ha tratado de reforzar las relaciones entre el alumnado y de fomentar la convivencia a medida que se ha intentado ofrecer y potenciar un espacio a la interculturalidad. El servicio ha consistido en ofrecer 12 sesiones de media hora de juegos cooperativos a niños que no pueden participar en actividades extraescolares, en las que han participado 44 niños. Además del servicio, los alumnos y alumnas que hemos participado en el Aprendizaje Servicio (ApS) hemos tenido como objetivo adentrarnos en el papel de profesores y profesoras, ofreciendo la posibilidad de actuar como educadores y educadoras y poner en marcha lo aprendido. Para fomentar la interculturalidad, se han tomado juegos tradicionales de diferentes zonas del mundo y, para trabajar la cooperación, hemos adaptado estos juegos para animarnos a trabajar entre nosotros. Al mismo tiempo, a lo largo de las sesiones, hemos realizado una recogida de información a través de un diario, y las reflexiones recogidas en el mismo nos han orientado a mejorar las sesiones siguientes. El diario estaba pautado y también ha servido para hacer un análisis del servicio y de las sesiones para ver si se han conseguido los objetivos que nos hemos marcado y si el servicio ha resultado útil. Como conclusión, a través de este trabajo, además de dar un servicio al centro, se ha conocido una estrategia de aprendizaje e intervención con ApS (con el Aprendizaje Servicio), además, como futuros profesores y profesoras, se ha permitido la adquisición de competencias y destrezas, entre las que se encuentra el aprendizaje de la necesidad de realizar una reflexión pedagógica: formación de las sesiones, llevarlas a cabo, detección de necesidades, búsqueda de estrategias para satisfacer las necesidades y búsqueda de mejoras de las sesiones. Para terminar, podemos decir que el nivel de satisfacción del alumnado y del centro ha sido bueno.

**Palabras claves:** Aprendizaje Servicio (ApS), juegos cooperativos, interculturalidad, actividad motora, convivencia.

### **SUMMARY:**

This work is a End of Grade Project in which the Service Learning (SL) method has been implemented through the motor activity to respond to the needs of the groups of students in the last years of Pre-school Education in an educational centre. To do this, we contacted the centre, the management team and concluded that they had needs for cooperation and coexistence, so we designed and/or planned the service. Through this service, in addition to students learning to work in cooperation, we have tried to strengthen relations between students and promote coexistence as we have tried to offer and promote a place for interculturality. The service has consisted of offering 12 half-hour sessions of cooperative

games to children who cannot participate in extracurricular activities, in which 44 children have participated. In addition to the service, the students who have participated in the Service Learning (SL) have had the objective of entering into the role of teachers, offering the possibility of acting as educators and putting into practice what they have learned. To promote interculturality, we have taken traditional games from different areas of the world and, to work on cooperation, we have adapted these games to encourage us to work with each other. At the same time, throughout the sessions, we have collected information through a diary, and the reflections collected in it have guided us to improve the following sessions. The diary was marked and also served to make an analysis of the service and the sessions to see if the objectives we have set have been achieved and if the service has been useful. As a conclusion, through this work, apart from providing a service to the centre, a strategy of learning and intervention with SL (Service Learning) has been known. Furthermore, as future teachers, it has allowed the acquisition of competences and skills, among which is the learning of the need to carry out a pedagogical reflection: training of the sessions, carrying them out, detection of needs, search for strategies to satisfy the needs and search for improvements in the sessions. In conclusion, we can say that the level of satisfaction of the students and the school has been good.

**Keywords:** Service Learning (SL), cooperative games, interculturality, motor activity, coexistence.

## Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b> .....	2
<b>2. Marko teorikoa</b> .....	3
<b>2.1. Gaur egungo errealitatea</b> .....	3
<b>2.2. Ikaskuntza-zerbitzua</b> .....	4
<b>2.3. I-Z, kulturartekotasuna eta jarduera fisikoa</b> .....	6
<b>3. HELBURUAK</b> .....	8
<b>4. METODOA</b> .....	9
<b>4.1. AGERTOKIAREN DESKRIBAPENA</b> .....	9
4.1.1. Testuinguruaren deskribapena .....	9
4.1.2. Partaideak: esku-hartzea egindako taldearen ezaugarriak .....	10
4.1.3. Esku-hartzearen diseinua eta proposamen didaktikoa .....	11
<b>4.2. INFORMAZIOA JASOTZEKO PROZEDURA:</b> .....	13
<b>4.3. INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA</b> .....	15
4.3.1. Edukiaren analisisa .....	15
4.3.2. Kategoria sistema .....	15
4.3.3. Prozesu guztiaren kronograma, I-Zren faseak kontuan izanda .....	17
<b>5. EMAITZAK</b> .....	18
<b>5.1. ESPERIENTZIAK ETA HARREMANAK</b> .....	18
5.1.1. Esperientzia eta anekdotei begira, zer kontatu dezakegu? .....	18
5.1.2. Zer nolako harremanak eman dira saioetan? .....	19
5.1.3. Umeen artean lidergotzarik eman da edo rolik hartu dute? .....	20
5.1.4. Intzidentzia “kritikorik” egon da? .....	21
<b>5.2. PLANIFIKAZIOA</b> .....	22
5.2.1. Planifikazio eta aspektu metodologikoei begira, araurik jarri izan da? .....	22
5.2.2. Planifikazio eta metodologiari begira, diseinua nolako izan da? .....	22
5.2.3. Zer material edo zelako espazioa erabili izan da saioetan? .....	23
5.2.4. Saioak erraztu edo oztopatu izan dituzten faktorerik aurkitu izan da? .....	25
5.2.5. Proposamen didaktikoei begira, zerbait planteatu izan da eta ikasleen erantzunik jaso da? 26	26
<b>5.3. ESPERIENTZIAK SORTUTAKO SENTIPENAK</b> .....	28
<b>6. ONDORIOAK</b> .....	29
<b>7. LIMITAZIOAK ETA HOBEKUNTZAK</b> .....	35
<b>8. ERREFERENTZIAK</b> .....	36
<b>9. ERANSKINAK</b> .....	39

## 1. Sarrera

Lan honetan zerbitzu bat martxan jarri da non Haur Hezkuntzako umeekin kooperazioan murgiltzea xede gisa duen. Kooperazioaren munduan murgiltzea ez da kasualitate hutsa, ikastetxe batekin kontaktuan jarri ostean atera den behar baten ondorioa da. Gure helburua, behar hau asetzea izan da, Ikasketa-zerbitzuaz baliatuta. Metodologia hau aurrera eramateko eta kooperazioa ikasleen artean lortu ahal izateko baliagarria da, eta gu jarduera motorrean oinarritu gara, jolas-kooperatiboetan hain zuzen. Ikastetxearen ezaugarriak eta beharrak aztertu eta ikastegiaren zuzendariaren nahia entzun ondoren, proposamen hau Haur Hezkuntzako azken urteko umeekin aurrera eramatea erabaki genuen, lau, bost eta sei urtetako hurrekin, hain zuzen.

Aipatutako ikastetxea, Aranbizkarra ikastetxe publikoa da, duen kulturazintasunari begira, nahiko aberatsa iruditu zitzaigun, eta ikastetxearekin kontaktuan egon ondoren, ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzeko leku aproposa ere. Aipatzekoa da, aniztasuna ez dela soilik kulturaren alorrera murrizten, izan ere, arlo ekonomikoan ere aniztasuna aurkitu dezakegu. Aniztasun hori dela eta, ikasle askok ez dute eskolaz kanpoko ekintzetan parte-hartzeko aukerarik eta, aipatzekoa da, askotan, eskolaz at dauden ekintza hauetan ikasleen kooperazioa bilatzen dela, multi-kirola eta dena delako jarduera edo ekintzetan, adibidez. Gainera, aipatzekoa da, bertan, ikasle asko elkartzen dela, askotan ikasgela berdinekoak direnak, eta, aldi berean, harremanak gogortzen edo sendotzen direla. Hori dela eta, sortzen da gure proposamena.

Honekin, lortu nahi duguna, beraz, aipatutako behar hau asetzea da eta ikaskuntza-zerbitzuarekin batera hezkidetzaren baloreak transmititu, baita parte-hartzea bultzatu eta ikasleen arteko tolerantzia eta harremanak sendotu ere, besteak beste, ikasleen arteko ahozko komunikazioa eta hizkuntza garatzen lagunduz. Beti ere kulturartekotasunari tokia eginez eta errespetua bilatuz, bilatzen dugun helburuetako bat etorkizuneko gizartearen partaideak izango diren pertsonak elkarbizitzan murgiltzea baita.

Hori honela izanik, lan honetan zehar gure esku-hartze proposamena ahalik eta erarik ulergarri eta errazenean aurkeztzen saiatuko gara, baita esku-hartzean lortu eta ikusi dena azaltzen saiatu ere, esku-hartzearen nondik norakoak aurkeztuz.

## 2. Marko teorikoa

Marko teorikoan honetan zehar honako gai hauek tratatuko dira: gaur egungo errealitatea, Ikaskuntza-Zerbitzua (I-Z) eta I-Z, kulturartekotasuna eta jarduera fisikoa.

### 2.1. Gaur egungo errealitatea.

Testuinguruari begira, aipatzekoa da, askotan mugimendu migratzaileak eraginda, kontuan izan behar dela gaur egungo, bai gizarte, baita eskolen ingurune errealitatea ere, aldatzen joan dela urteetan zehar. Gainera, prozesu-migratzaile horiek, gorakada jaso duen arren, handiagotzen ari den prozesu bat da, jadanik, Francesc Carbonell-ek azaldu zuen bezala, "Gainera, ezerk ez digu pentsarazten gure herrialderako migrazio-mugimendu hauen gehiengora heldu garenik, ezta gutxiagorik ere. Alderantziz: badirudi migrazio horiek areagotu egingo direla, eta nabarmen gainera, datozen urteetan" (1999:5).

Kontuan izan behar da, Carbonell-en hitzak aipatu bezala, urte batzuk atzerago esandakoak direla, hala ere, gaur egun oraindik bizirik dagoen prozesu bat kontsideratzen dira mugimendu-migratzaileak, zein, munduko leku guztietan ematen diren, eta, zein, kontu ekonomiko, profesional edo dena delakoarengatik eraginda dauden. Ondorioz, jatorri ezberdinetako pertsonak elkarren ondoan bizitzea lortzen da, integrazioa eta bizikidetzatza fenomenoak sortzen.

Honekin jarraituz, aipatzekoa da gaur egungo ikastetxeetan kulturantzitasun handia dagoela eta hau areagotzen ari dela. Beraz, kontuan izan beharreko puntu bat litzateke hainbat familia daudela eta, bestelako egoera sozioekonomikoak dituzten heinean, familiek dituzten beharrak bestelakoak izan daitezkeela.

Askotan, familia guztiek ezin dute beraien haurrak eskolaz kanpoko ekintzetan sartu aipatutako egoera sozioekonomikoa dela eta, edo bestelako arazo pertsonalengatik. Beraz, ikastetxeetan galdetu ondoren eta egoera aztertuta, eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu ezin izatea behar bat bezala ikusi da, eta hori da lan honen helburua. Horretarako, hainbat metodologia eta prozedura daudela esan daiteke baina gure aburuz, metodologia egokietako bat ikaskuntza-zerbitzua dela esango genuke. Guk lortu nahi duguna kulturantzitasunari begira, ikasle guztiek (edo, behintzat, ahalik eta gehienek) aukera berdina izatea, berdintasun batean sartzea, ikasten eta harremanetan jartzen jarraitzen duten heinean. Honela lortuko dugu eskola kulturartekotasunaren bidean jartzea, izan ere, Jordan-en (1996: 74,75) hitzetan, "benetako eskola pluralista eta kulturartekoa ez da elkarrekiko errespetua eta aberastasun kulturala sustatzen duena soilik; helburu desiragarri hori lortzeko aukera minimoa galdu gabe, ikasleak eskolan eta gizartean benetan "integratzeko" bitarteko guztiak aldi berean jartzen dituen ere bada, hau da, aukera-berdintasun errealista bat lor dezaten". Hori gutxi balitz,

kulturarteko hezkuntzak ikasleen inklusio prozesuan laguntzen du, ezagutzak jasotzea eta ikasteaz gain, elkarren arteko tolerantzia eta errespetua bultzatzen laguntzen du, guztion ezaugarri eta ezberdintasunak errespetatzen ikasiz (Arroyo, 2013).

## 2.2. Ikaskuntza-zerbitzua

Metodologiari begira, aipatzekoa da, Ikaskuntza-Zerbitzua (I-Z) izango dela erabiliko dugun metodologia mota, non, hezkuntza eta zerbitzua ematen diren eta hala unibertsitateko ikasleak irakasle moduan kompetentziaren bat eskuratzen duen eta komunitateari zerbitzu bat ematen zaion aldi berean. Gure kasuan, egoera ahulean dauden umeei eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukera bat emateko modu bat bezala ere aurkezten da ikasten duten heinean, beti ere, ikastetxeari galdetuz, umeei duten beharrak zein diren jakiteko eta horrekin lan egiteko. Irakasle edo hezitzaileei begira, baloreak eta enpatia martxan jartzea ahalbidetzen da, esan bezala, hezkuntza-zerbitzu bat ematen den heinean, izan ere, Battle-ek (2013: 5) azaltzen duen bezala, Ikaskuntza zerbitzua (I-Z) gizarte hezkuntzari bideratutako metodologia bat da, pedagogia aktiboetan oinarritutakoa eta beste hezkuntza estrategiekin bateragarria dena. Hezkuntza arrakasta eta gizarte-konpromisoa elkartzeko metodo bat da: trebeak izaten ikastea (kompetentziei begira) besteentzat baliagarria izanez.

Hezkuntzaren arlotik at, Ikaskuntza-zerbitzua garapen-komunitariorako erreminta gisa kontsidera eta erabili daiteke, komunitate kohesiorako. Edota, Puig-ek (2009: 9) esaten duen bezala, APS-a edo I-Za formakuntza ahalmen handiko metodologia pedagogikoa da, non, jarduera berdinean, edukien ikaskuntza, kompetentziak eta balore ezberdinak batzen dituen, komunitateari zerbitzu bat ematen den heinean. Beraz, komunitatea hobetzeko helburuarekin erabiltzen den metodologia deritzo eta, ematen den zerbitzua, irakaskuntza-erperientzia bihurtzea lortzen da.

Esan dezakegu, beraz, bi alde aktiboen arteko jarduera-zerbitzu onuragarria dela, partaideen esperientzia handiagotzen delako, eta aldi berean, inguru horri (komunitate horri) hobekuntza/laguntza bat ematen zaiolako.

Aldi berean, I-Zk errealitateara hurbiltzen laguntzen du, baita esperientzia gehiago lortzen ere. Metodo hau aurrera eramateko, inguruak duen beharren bat identifikatu behar da eta ondoren, behar hori asetzen saiatuko da. Hori lortzeko, hezkuntza zerbitzua aurrera eramateko plangintza bat sortzen da, proiektu baten antzekoa izanik. Ekintzak edota hezkuntza-zerbitzu hori modu askotarikoak izan daitezke, matematikatik hasita, garapen psikomotorrera arte (gure kasuan, jarduera motorraren bidez emango dugu gure zerbitzua), instituzio edo poblazio baten beharrak identifikatzen dira eta zein motatako ekintzak egin daitezkeen aztertzen da. Eta prozesu hori azaldu nahian, Uruñuelak (2016: 3) zera dio: "Metodologia gisa, Ikaskuntza-Zerbitzuak (I-Z) komunitateari ematen zaion zerbitzua eta



ikasleok egiten ditugun ikaskuntzak konbinatzen ditu. Hala, ingurunean premia bat hautematek abiatzen da, horri erantzuteko zerbitzu bat diseinatzen da, eta zerbitzu-ekintza horri lotzen zaizkio hura gauzatzeko behar diren ikaskuntzak, bai premia hori sakon ulertzeko, bai behar hori modu eraginkorrean praktikara eraman ahal izateko.”

Hala ere, Ikaskuntza-Zerbitzua zer den definitzeko, profesional edo adituek gure eskuetan uzten dituzten hainbat erreferente edota aipu aurkitu ditzakegu. Besteak beste, honako hauek izanik:

Badugu webgune ofizial bat, PREMIOS Aprendizaje Servicio<sup>1</sup>, zeinek, I-Z-a zer den definitzen laguntzen digun, Ikaskuntza zerbitzua intentzio pedagogikoa eta intentzio solidarioaren arteko baturari deritzola azalduz. Bertan, I-Z hezkuntza arrakasta eta konpromiso soziala batzeko modu bat dela azaltzen da, komunitate kontzeptua indartzen duena, hau da, elkarlana sustatzen du, kohesio soziala emateko beharrezkoak diren balore eta arauak sendotzen ditu eta gizartearenganako segurtasuna eta konfiantza sortzen laguntzen du.

Honekin argi uzten dugu, beraz, jadanik aipatutakoa, bi aldeak garaile ateratzen dira (gure kasuan, hezitzailea izateko ikaskuntza egiten ari den ikaslea eta komunitatea-ingurua), bientzat probetxuzko metodologia bat delako, hori da, nik hezitzaile gisa, ikasitakoa martxan jarri eta, esperientziaren bitartez irakas-kompetentzia hobetu, eta komunitate-inguruari begira, komunitateko partaideen artean behar bat asetzen lortzen da, kohesioa, konfiantza eta abar sustatzen delako.

Gainera, Ikaskuntza zerbitzuaren metodologiarekin, errealitate sozialarekin izaten den kontaktua sendotzea bilatzen da, ikasleekin lan egiten duten erakundeekin lan egiten den heinean. Horrela, beharrezkoak diren harreman sozialak sortzen eta gogortzen saiatzen da, zein, gizarte indartsu bat lortzeko baliagarria den (Uruñuela, 2013).

Aipatzekoa da, baita gogoratu beharrekoa ere, Ikaskuntza-zerbitzua (I-Z) formakuntza-proposamen bat den heinean, ez duela curriculum-ak esaten duena alde batera uzten, izan ere, proposatutakoarekin prozesu kurrikularrak eta komunitatearen hobekuntza (harreman sozial eta afektiboak, besteak beste) lantzea eta bultzatzea bilatzen da. Hori honela izanik, aipatzekoa da, I-Z, formakuntza-jardueraren adibidea dela, zeinek, hezkuntza-jarduera printzipioa osatzen duten hiru ikuspegiak hartzen dituen: esku-hartze aktiboa, funtzionalitate psikologikoa eta zentzu-soziala.” (Puig eta Martinez, 2011: 13).

Beraz, laburbilduz, esan dezakegu komunitatearen beharrak asetzeko proiektu bat jartzen dela martxan ikaskuntza prozesuari uko egin gabe, are eta gehiago, honetan murgiltzen jarraituz. Hau guztia lortzeko, beraz, curriculum jarraituko da, beharrezkoak diren kompetentziak lortzeko saiakeran jarraituz eta, aldi berean, errealitate soziala kontuan hartuko da.

---

<sup>1</sup> <https://aprendizajeservicio.com/que-es-el-aps/>

Honela, hezkuntza-ezagutzak eta gizarte-erlazioa indartuz joango gara, lehen aipatutako gizarte-koheretza eta hezkuntza-kompetentziak (baita kompetentzia sozialak ere) lortzeko, izan ere, bai etorkizunean, baita orainean ere, elkarbizitzarekin erlazio zuzena duten bi arlo dira.

Hori guztiaz gain, aipatzekoa da ere Opazok (2015:17) ikaskuntza-zerbitzua berrikuntza gisa definitzen duela, non, aldaketa bat suposatuko duen irakaskuntza tradizionalarekin alderatuta, curriculumaren limiteak gainditzen baitira eta, horretaz gain, auto-antolakuntza berriak sustatzea ahalbidetzen du. Gainera, ikaskuntza-zerbitzua giltzatzat hartzen da hezkuntza-inguru eta inguru-sozial berriak eratzeko.

### **2.3. I-Z, kulturartekotasuna eta jarduera fisikoa**

Kulturartekotasuna dagoeneko honek duen garrantzia azalduta, argi uzten da hori lantzearen garrantzia, gaur egun eskola edo ikastetxe guztietan presente dagoen ideia bat izanik, Barquinek (2006: 12) dagoeneko "kulturartekotasuna eskolan" artikuluan azaltzen duen bezala.

Eskolan bi esanahi dituela erabiltzen da "kulturarteko hezkuntza": alde batetik, mundu kulturantz batean egoki bizitzeko prestakuntzari esaten zaio, ikasle guztiek behar duten prestakuntza, alegia. Bestalde, termino horrekin izendatu ohi da etorkinen seme-alaben trataera ikastetxean. Lehenengo adierari dagokionez, gaitasun multzo bat eskuratzeko aukeraz hitz egiten da; prestakuntza hori "balioen hezkuntzan" kokatzen da eta "Herritartasunerako Hezkuntza" (hau da, herritar arduratsu eta solidarioa izateko hezkuntza) planteamendu orokorraren barruan dago. Gatazkaren kudeaketa, gizartean parte hartze aktibo eta kritikoa, aniztasunarekiko errespetua eta estimua... (...) Etorkinen seme-alaben trataera, berriz, aniztasunaren trataera orokorraren barruan kokatu behar da. Beste "aniztasun" mota bat da; beste "aniztasunek" bezala (generoarenak, ikas estiloarenak, adimen mailarenak, gaitasunenak...), horrek ere baditu zenbait ezaugarri, eta horiek kontuan hartu behar dira pertinentea denean: familiaren elementu kulturalak, eskolan kursoa hasita eskolatzeak dauzkan ondorioak, beste hezkuntza sistema batetik etortzearen ondorioak... Horri guztiari erantzuna eman behar dio eskolak (Barquín, 2006: 12)

Kontuan hartzekoa da, jarduera motorrak edota Hezkuntza Fisikoak, bai umearen garapen fisiko edota mentalean eta garapen sozialean laguntzen duela. Hori dela eta, hartzen dugu jarduera motorra medio. Gil, Gómez eta Contrerarekin (2008: 79) batera azaltzen duen bezala, hainbat faktorek eragiten dute jarduera-motorrean eta umeengan: faktore pertzeptibo motorrak, fisiko motorrak eta afektibo harremanetakoak. Azkenengo honek, kreatibitatea, konfiantza, tentsioak, afektua, haserreak, pozak, ahalmen sozializatzaileak eta abar hartzen ditu barnean. Honekin batera azaltzen duena zera da, umearen adierazpen globala ahalbidetzen edota baimentzen denean, umeari bere emozioak adierazteko lekua uzten zaio,

baita bere tentsio edota gatazkak ere. Beraz, jarduera-motorreko inguruaren giroak eragina izango du, bai ikasleen artekoa, baita ikasle-helduaren arteko harremanean, eta honen inguruan behaketa egiteko oso puntu interesgarria litzateke.

Honetaz gain, Lleixàk (2017:2) "*Didáctica de la educación física: nuevos temas, nuevos contextos*" artikuluan azaltzen duen bezala, Jarduera fisikoak garrantzia handia du bitzita osoan zehar, bai osasunari begira, baita elkarbizitza-hiritarrari begira ere. Izan ere, gaur egun, hezitzaileek ez dute jarduera fisikoa soilik lantzeko aktibitateak proposatu behar, izan ere, interakzio sozialak ahalbidetuko dituzten ezagutzak proposatu beharko ditu baita ere. Dagoeneko, jarduera motorra eta hezkuntza fisikoa ez dira aipatutako trebakuntza fisikora mugatzen, gaur egun, erabakiak hartzeko, ikaskuntza kooperatiboak eta berdinen arteko ikaskuntza bultzatzeko beharrezkoak diren inplikazio kognitiboak bilatzen dira.

Esan bezala, kulturartekotasuna eta sozializazioa landu nahi dugu jarduera motorraren bidez, eta hori lantzeko, ahalik eta modurik dibertigarri eta motibagarrienean saiatuko gara egiten, non, umeei ahalik eta partaidetza handiena eskatuko diegun, munduko kontinente ezberdinen eta hainbat herrialdetako jolasak landuko dugun. Horregatik, proposatzen dugu munduko hainbat leku eta horietako hainbat kultura bisibilizatzea, balore eta lekua emateko patioetan erabiltzeko eguneroko jolasetan. Zehazki, ikasleen artean kohesioa eta elkarbizitza lortu nahi dugu aukeratu ditugun jolasekin, partaidetza kooperatiboa eskatzen dituztelako. Kontuan hartzekoa da, ohikoak diren jolasak (kooperazio-jolasak ez direnetaz ari gara), askotan lehiakortasuna bilatzen dutela, irabazle bakar bat izanik eta galtzen duen pertsona bat edo ugari, indibidualtasuna bultzatuz, askotan elkar lan ez eginez, bakoitzaren ezaugarrietan soilik zentratuz eta ez gainerako partaiderenetan. Aldiz, jolas kooperatiboei begira eta aipatutako hobeto ulertu ahal izateko, Johnson, Johnson eta Holubec-ek (1999: 3) azaltzen duten bezala, kooperazioa elkarrekin lan egitean datza helburu komunak lortu ahal izateko, non, bi alde edo partaideak bientzat onuragarriak diren emaitzak lortzen saiatzen diren. Beraz, ikaskuntza kooperatiboa metodo didaktiko bat da, non, ikasleek elkarrekin lanean jartzen diren bakoitzaren eta gainerakoen ikaskuntza maximizatzeko edota handiagotzeko.

Hori dela eta, partaidetza kooperatiboa ahalbidetzen duen ikaskuntza sustatu ahal izateko, Rios-ek (2009: 97), hezitzaileak jarrai behar duen hainbat puntu azaltzen ditu, horien artean: hezitzaileak umeei jarduera interpertsonal eta taldekoak erakutsi behar die indibidualismoa eta lehiakortasuna saihesteko. Hau honela izanik, gure asmoa izan da jolas lehiakorrek eta irabazle bakarrek alde batera uztea aipatutako jolas eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatu ahal izateko. Gainera, kooperazioa kulturarteko hezkuntza bat jasotzeko bidean erabiltzen den bide bat da, izan ere, Sales-ek (2012: 117) azaltzen duen bezala, "Kulturarteko didaktika pedagogia interaktiboaren printzipioetan oinarrituko da: ikuspegi kooperatiboak, komunikatiboak eta sozioafektiboak", beraz, esan bezala, hezkuntza ikuspegi

kooperatibotik bideratuta, eta komunikazio eta harreman afektibo eta sozialei arreta jarriz, kulturartekotasuna lortzeko bidean jartzea ahalbidetuko genuke.

Hori guztia horrela izanik eta aipatu bezala, jolas kooperatiboak garrantzia handia dute batez ere elkarren arteko harremanak gogortzea eta sustatzea bilatzen denean. Jolas mota horrekin lortu nahi duguna, beraz, elkarbizitza sustatzea da, elkarrekin lan egiten ikasiz, horrela funtzionatzen baitute komunitate eta gizarteak, eta beraz, garrantzitsua da, tolerantzia, laguntasuna eta errespetua bezalako baloreak transmititzea txikitatik, eta etxeko edo eremu familiarraz gain, ikastetxea da leku aproposenatarikoa, bertan elkartzen baitira ikasleak, harremanak izaten dituzte, arazoak, elkarrekin ikasten dute eta elkarren artean laguntzen ikasteko leku aproposa da.

Hori dela eta, kooperazioa ezagutza eta edukien ikaskuntzatik at joatea bilatzen dugu (ikasgelatik at, edukiak soilik transmititzeko ariketetatik at), arlo motorrera gerturatuz, jolasaren bidez, umeentzako erakargarriak diren egoerak eta proposamenak sortuz, beraien artean elkarrekin lan egitera animatzeko eta, jolas hauekin, elkarrekin kooperatzera animatzeaz gain, elkar laguntzaren garrantziaz kontzientziatzera animatuz (elkarri laguntzearen balorea).

### 3.HELBURUAK

Gure proposamen honekin hainbat helburu eta konpetentzia lortzera bideratu izan nahi dugu gure zerbitzua. Helburu horien artean bi alderdi aurkitu ahal ditzakegu, batetik, zerbitzua aurrera eramango dugun pertsonen formakuntzari begira eta, bestetik, zerbitzua jasoko duten pertsonen taldeari begira.

Zerbitzua aurrera eramango dugun pertsoneri begira, helburu gisa dugu gure formakuntza pertsonal eta profesionalean gaitasun eta trebetasun batzuk lortzea, besteak beste, saioen prestakuntzan trebatzea, irakasle gisa, saioaren diseinua eta saioaren edukiak prestatzen jakitea, bideratutako ikasle edo pertsona taldea ezagutzea, saioak moldatzen jakitea taldearen ezaugarri eta beharretara, hezitzaile gisa jarrera pertsonala moldatzen jakitea eta beharrak detektatzen jakitea eta beharrezko erantzuna ematen ikastea.

Zerbitzua jasoko duten pertsonen taldeari begira, horiek hainbat gaitasun lortzea nahi dugu eta gure saio eta zerbitzua horiek lortzera bideratzen saiatuko gara. Helburu horien artean, elkarbizitza sustatzea ikasle taldearen artean elkarlanaren bidez, jolas kooperatiboa sustatzea eta lehiakortasuna alde batera uzten ikastea, jolas kooperatiboekin eta bata bestearekin lan egiten eta jolasten ikasiz, ikasleen arteko harremana sendotzea, kulturartekotasunaren bidean pauso bat eman nahian, munduko zonalde ezberdinetako tradiziozko jolasak erabiliz, kultura ezberdinei leku bat eskaintzea, ikasleen ezaugarri eta egoera anitzak errespetatuak eta baloratuak izatea, ikasle guztien parte-hartzea sustatzea talde-sentsazioa lortu ahal izateko eta, azkenik, ikastetxe orduetatik at eskaintzen diren

jardueretan parte hartu ezin dituzten ikasleei, elkar ezagutzeko, jolasteko, harremanetan jartzeko eta jarduera motorra lantzeko saio batzuk eskaintzea aurkitu ahal ditugu.

Esan bezala, beraz, helburu horiek guztiak lortzera bideratuta egongo da gure zerbitzua, bi partaideek, hau da, zerbitzua aurrera eramango dugunak eta zerbitzua jasoko dutenak, zerbait eskuratuz eta zerbait ikasiz.

## 4.METODOA

### 4.1. AGERTOKIAREN DESKRIBAPENA

#### 4.1.1. Testuinguruaren deskribapena

Testuinguruari begira, gure proposamena Gasteizko Burgos Kalean kokatuta dagoen Aranbizkarra ikastetxean<sup>2</sup> aurrera eramatea erabaki genuen.

Ikastetxe hau 1979. Urtean eraiki zen momentu horretan zegoen beharrei begira, ikastola baten falta auzo berri batean, jaiotze tasa handitzea eta abar. Zentro publikoa da, zeinek, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza osoa hartzen dituen barnean. Nahiz eta hasieran, ikastetxe honetan A eta B hizkuntza-ereduak eskaintzen ziren ikasketak aurrera eramateko, gaur egun, D eredia da ikastetxe honek oinarri gisa duena.

Ikasle kopuruari begira, Aranbizkarra ikastetxeak 360 ikasle inguru hartzen ditu bere baitan, baita 37 irakasle inguru, zeintzuk, liburutegian, tutoretzetan, errefortzu linguistikoan, musikan, hezkuntza fisikoan, logopedian, pedagogia terapeutikoan eta abar banatzen diren. Ikastetxearen inguruko eremuari begira, aipatzekoa da, jolastoki handi bat duela, baita jolastokiko zati bat hartzen duen aterpe gune bat ere. Ikastetxetik gertu, gainera, parke nahiko handi eta zabal bat aurkitzen dugu (Aranbizkarra parkea). Gainera, kiroldegi-areto bat du, baita bi psikogela ere, lehena ikastetxe barruan eta, bigarrena, jantoki ondoan kokatuta daudenak.

Horretaz gain eta ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuei begira, aipatzekoa da, jantoki gune bat dutela, non, 150 pertsoneri jaten ematen zaien txanda bakoitzean, 14 begiralez eta 2 sukaldariz lagunduta.

Aipatzekoa da, gainera, klaseetako talde interaktiboak antolatzeko, praktketan dauden Magisteritzako ikasleak jasotzen dituztela, baita Koldo Mitxelena eta Fco. De Vitoria institututik ere. Hala ere, hauetaz gain eta ikas komunitate gisa, ahalik eta interakzio gehien eta

---

<sup>2</sup> <https://sites.google.com/aranbizkarra.net/ikaskomunitatea/orri-nagusia?authuser=0>

aberasgarriena lortze aldera, bestelako partaideak hartzen dituzte ere, besteak beste, familiak, aurretik izandako ikasleak, boluntarioak, praktiketako ikasleak edota auzoko agenteak.

Erabiliko dugun eremu edo inguruari begira, aipatzekoa da, psiko-gela bat erabiliko dela, jantoki ondoan kokatuta dagoena eta ikastetxeak dituen bi psiko-geletatik handiena dela. Komunak gertu ditu, baita jolastokia ere, talde aldaketak egiterako aproposa, jolas eremutik gertu baitago.

Psiko-gelak zapatak eta txaketak uzteko leku bat du, baita asanbladarako gune bat, aulkiekin osatua. Gune huts bat du, leihoez inguratua, jolasetarako erabiliko dugun eremua izango da. Koltxonetaz eta bloke bigunez sortutako harresi bat dago, gela bi zatitan banantzen duena, lehena asanblada eta gune hutsa, eta bigarrena, koltxoneta gunea, non, egurrezko instalazioak eta salto egiteko guneak dauden.

Bi guneetan, apal edota kutxa batzuk daude, non, materialak gordeta eta sailkatuta dauden, zapiak, bloke txikiak, mozorroak, txurro bigunak...

#### 4.1.2. Partaideak: esku-hartzea egindako taldearen ezaugarriak

Partaideei begira, aipatzekoa da, parte hartuko duten pertsona taldeak ikastetxeko zuzendariarekin adostuta egon direla, haiekin batera hitz egitean (zuzendari eta hezitzaile batzuekin) beraien antolakuntza proposamena gure nahiekin kontrastatu genituen, izan ere, aipatu beharra dago, ikastetxe honen irizpide eta nahien barruan ahalik eta ikasle gehienek zerbitzua jasotzea aurkitzen dela. Beraz, taldeak, taldeen antolakuntza, ordutegia, egunak, ekintzak eta dena delakoak, elkarrekin erabaki genuen elkarketa bat egitea lortu genuenean.

Parte hartuko duten taldeak, Haur Hezkuntzako azken bi urteetako ikasleekin osatuta egongo dira, hau da, Haur Hezkuntzako, lau eta bost urteko ikasleak. Parte-hartzaileak jantokian geratzen diren ikasleak dira, ikasgelako ikasle gehienak izanik. Ume gehienak jatorri anitzekoak dira, edota, hemen jaiok bestelako jatorria duten gurasoak. Honek kulturantzitasun handiko taldeak izatea eragiten du, baita euskara lehen hizkuntza gisa ez izatea, gehiengoena gaztelania da edota bestelakoak, hala ere, dagoeneko, ume ugari euskaran trebatzen hasiak dira. Lau urteko taldea 24 umez osatuta dago. Bost urteko taldea, berriz, 20 umez osatuta dago. Ume guztien parte-hartzea eta jolas-saioa ahalik eta kalitate gehiena izateko, talde bakoitza bitan banatuko dugu, talde bakoitzari ordu erdi inguru eskainiz, lau urtetako 12 umez osatutako bi talde izanik, eta bost urtetako 10 umez osatutako bi talde izanik (parte-hartzaileen kopurua aldatu daiteke, hauen eskolara etortzearen arabera, gaixorik jartzea, jantokira ez joatea...).

Aste bakoitzeko astearteetan egingo da saioa, eguerdiko 13:45etatik, 14:50/14:55raino. Aste bakoitzean Haur Hezkuntzako talde bati tokatuko zaio saioan parte-hartzea, lehen taldea bost urteko ikasleena izanik eta hurrengoko saioan lau urteko ikasleena.

Talde bakoitzak, guztira, hiru egun-saio izango ditu eta ni egongo naiz zerbitzua ematen sei asteartetan.

#### 4.1.3. Esku-hartzearen diseinua eta proposamen didaktikoa

Esku-hartzearen diseinuari begira, taula bat segitu genuen hau sortu ahal izateko, modu honetan errazagoa izateko (*Diseinuaren plantilla-taula 1. eranskinean aurkitu daiteke*).

Esku-hartze diseinuaren barruan, eskola zehazteaz gain, zerbitzuarekin batera aurrera eramane nahi genituen helburuak zehaztu genituen, dena era ordenatu eta bisual batean aurkitzeko. Helburu horien artean, besteak beste, hurrengoko hauek aurkitu ditzakegu: elkarbizitza sustatzea elkarlanaren bitartez, jolas kooperatiboaren bitartez ikasleen arteko harremana sendotzea bata bestearekin lan eginez eta elkarrekin egoten eta jolasten ikasiz, kultura ezberdinei lekua edo espazio bat ematea munduko jolas ezberdinak erabiliz, eta, ikasle bakoitzaren ezaugarriak baloratu eta errespetatzea.

Helburuez gain, helburuak lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarriak zehaztu genituen, hau da, zerbitzua prestatzeko ezaugarriak, eskola eta taldearen sarreraren ezaugarriak, zerbitzua martxan dagoeneko ezaugarriak eta itxieraren ezaugarriak zehaztu genituen. Lehenengokoari begira, ume kopurua kontuan hartuko genuela zehaztu genuen, baita horren arabera jolas kooperatiboak sortu edota moldatu eta materialak lehendik zeintzuk izango diren zehaztu edota prestatu ere.

Sarrerari begira, jarraituko genituen pausuak zehaztu genituen, hau da, gure burua aurkeztuko genuela, baita zertara gatozen azaldu ere, hau da, jolas batzuk egitera gendozela, kooperazioa bilatzeko eta elkarren artean lan egin beharko zutelarik. Hau denaren programazioa egin genuen ikastetxearen zuzendariari eta jantokiko begirale/hezitzaileari eskaintzeko, egin nahi genuena ikus zezaten eta on iritzia eman zezaten eskolara joan aurretik. Zerbitzua martxan egonda, jolasaren arauak azalduko eta gogoratuko genukeela aipatu genuen. Arazorik sortuko balitz, esku-hartuko genukeela eta bideratzen saiatuko ginela zehaztu genuen. Eta, momentu orotan edo ahal zenean, momentuko oharrak jasotzen joango ginela esan genuen.

Amaitzeko, itxierari begira, lehenagotik abisua emango genuela aipatu genuen, umeentzat aldaketa bat egongo delaren abisua ematea aproposa iruditzen zaigu, denboraren kontzeptua ulertzen joateko. Ondoren, ebaluatzeko momentua helduta, borobilean jarriko ginela zehaztu genuen, bakoitzaren iritzia libreki aurkezteko eta jolasa gustukoa izan den azaltzeko. Bukatzeko, umeak agurtu, zapatilak janztera animatu eta talde txanda egingo genuela adostu zen. Egin beharreko ekintzen ezaugarriak zehazturik, kronograma txiki bat egin genuen, egun bakoitzean zer egingo zen zehaztuz, baina hau, ondoren aldatu egin zen, ikastetxearekin egunak eta orduak guztiz zehazturik. Amaitzeko, dokumentazioa edo

informazioa nola jasoko genuen zehaztu genuen, gure kasuan, erabiliko genukeen material edo baliabideak, egunerokoak, momentuko oharrak, umeen balorazioa eta argazki edo bideo batzuk izanik, besteak beste.

Gure proposamen didaktikoa beraz, aipatu bezala, profesionalek, hau da, irakasle izateko ikasketak egiten ari garen ikasleek, esperientzia lortzera eta zerbitzu-sozial eta hezkuntza-zerbitzu erreal bat ematera bideratuta dago. Hori dela eta, kontuan izanik egoera sozioekonomiko anitzak aurkitu ditzakegula ikasgela batean gure helburu edota nahien barruan, ikastolaz kanpoko jardueretan parte-hartu ezin duten ikasleei behar hori asetzen laguntzea da, ez ekintza horiek ordezkatuz, baina bai laguntza txiki bat emanez. Horretaz gain, kulturantzatasuna lantzen saiatzea da gure helburuen barruan dagoen beste puntu bat, beraz, guk emango dugun 10 orduko zerbitzuari begira, kulturantzatasuna kulturartekotasun bihurtzeko bidean aurrerapauso txiki bat ematen laguntzen saiatuko gara. Gure helburu hori jarduera motorraren lanketarekin lantzea proposatu nahi dugu. Eta aipatutako azken helburua lortu ahal izateko, kultura ezberdinak kontuan hartu nahi ditugu, horietako bakoitza baloratzen, eta kultura bakoitza duen garrantzia eta presentzia azpimarratzen gure ikasgelan.

Horretarako, ikasleen laguntza edo kooperazioa eskatuko da, hauek, etxetik bai beren jaioterriko edota gurasoen jaioterriko jolasak ekartzea eskatuko baitzaie (bai autoktonoak diren haurrei, bai beste herrialde batekoak diren haurrei, baita beste herrialde bateko gurasoak dituzten haurrei. Gero eta jolas gehien eta ezberdinak, hobe). Hala ere, haiek jolasik ez ekartzekotan, guk eramango ditugu jolasak prestatu. Beraz, umeen kooperazioaz gain, hainbat munduko jolas batzen dituen liburu jakin batetaz baliatuko gara: *“Juegos Multiculturales: 225 Juegos tradicionales para un mundo global”* (Bantulá eta Mora, 2002).

Liburu honetatik, aipatu dugun bezala, jolas kooperatiboak erabiliko ditugu (jolasak moldatuz kooperazioa bilatu nahian ere), umeen adinera, baita ume kopuruari egokitzuz. Aldi berean, inguruari ahalik eta egokien moldatzen jolasak aukeratzea dugu helburu, baita lortzeko errazak diren materialak eskatzen dituzten jolasak erabiltzea ere. Hasieran, saioetan aurrera eramateko aukeratutako jolasak, honako hauek izan ziren:

### **1. AFRIKA:**

- 1.1. “Gato come o rato”: (Angola)
- 1.2. Sasa Kuru: (Burkina Faso)
- 1.3. Fus ifsús: (Marruecos)
- 1.4. Itík erhák: (Marruecos)
- 1.5. Maleua: (Mozambique)
- 1.6. “Giant’s House” (Erraldoiaren etxea): (Tanzania)
- 1.7. “Snake” (sugea): (Zambia)

### **2. AMERIKA:**



- 2.1. Ajutatut: (Canadá)
- 2.2. Muk (Silencio): (Canadá)
- 2.3. Uhl-ta: (EE UU)

**3. ASIA:**

- 3.1. "Hong-Lui-Ten": (China)
- 3.2. Dragons tail": (India)

**4. EUROPA:**

- 4.1. "Alla Frutta": (Italia)
- 4.2. "Czar and peasants": (Rusia)

*(Jolas guztien 2. azalpena eranskinean aurkitu daiteke)*

Hala ere, esan bezala, hauek hasieran pentsatutako jolasak izan ziren. Aldiz, kontuan izanik ez dugula denbora nahikoa aipatutako jolas guztiak aurrera eramateko (talde kopurua eta saio kopurua direla eta), azkenean, aldaketa batzuk egitea pentsatu genuen, hurrengokoak izanik aurrera eraman nahi izan ditugun jolasak:

**1. 5 urteko taldeari begira:**

- "Sasa Kuru"
- "Maleua"
- "Dragons Tail"

**2. 4 urteko taldeari begira:**

- "Gato come o rato"
- "Snake"
- "Uhi-ta" (Azkeneko jolas hau ezin genuen aurrera eraman ikastetxeen itxiera dela eta, birusak eraginda)

## **4.2. INFORMAZIOA JASOTZEKO PROZEDURA:**

Informazioa jasotzeko tresna edo baliabideei begira, erabiliko ditugun tresnak, ariketen azalpenen orriak edo saioaren gidioa, koaderno txikia, egunerokoa eta argazki solte batzuk izan dira.

**Azalpen orriari** edo **saioaren gidioari** begira, aipatzekoa da, jolasaren nondik norakoak zeintzuk diren jakiteko, azalpenak emateko eta abar gidatzeko erabili dugula, baita jolasa nongoa den jakiteko edo zer motatako materiala erabili behar den jakiteko ere. Txosten hori saio guztietara eramango dugu, hezitzaileoi laguntzeko (*Txosten hau 3. eranskinean aurkitu daiteke*).

**Koaderno txiki** bat eramatea ere erabaki genuen, esaldiak, momentuko hitz edo espresioak, ohar batzuk eta antzeko apunteak jasotzeko, egunerokoarekin lagunduko diguna, baita zer nolako gertaerak pasa diren jasotzen laguntzeko ere.

Aipatu bezala, **eguneroko** bat aurrera eramango dugu saio bakoitzaren egunean. Bertan, jasotako informazioa era narratibo batean islatuko da ikusmira pertsonal batetik hartuta, hori da, bertan, gertatutakoa islatuko dugu, gure sentimenduak aurkezten, baita egin diren edo egin nahi diren aldaketen berri ematen ere (*Eguneroko osoa 4. eranskinean aurkitu daiteke*). Egunerokoa egiteko irizpide zehatz batzuk jarraitu dira, hala nola, bizitako esperientziak, planifikazioarekiko hausnarketak, zer nolako harremanak eman diren eta bizi izandako egoera bereziak.

Esan bezala, gainera, **argazki** solte batzuk ere jaso ditugu, baina, aipatzekoa da, hain denbora gutxi izanik talde bakoitzarekin (taldeen arteko aldaketak kontuan izan gabe, zeinek, minutu batzuk hartzen dituen) ia ezin izan direla argazkirik jaso, denbora osoan saioa gidatzen, umeak motibatzen, azaltzen, laguntzen eta abar egon izan bainaiz. Azkenik, ebaluazioaren inguruan informazioa jasotzeko tresnak ere erabili ditugula aipatu beharra dago, besteak beste, eskuz eginiko **semaforo koloreko fitxa** borobilak, hau da, gorria, horia eta berdea. Fitxa bakoitza sentimendu batekin erlazionatuta dago, poztasuna berdearekin, neutroa horiarekin eta tristura gorriarekin lotuz. Hauen esanahia hobeto ulertzeko, fitxa bakoitzari, aipatutako emozioaren aurpegia jarri diogu, umeentzat modu bisualagoan aurkezteko eta hizkuntzarekin arazoak dituzten umeentzat ahalik eta errazena suertatzeko ebaluazioaren momentua (*argazkia 1*).

Argazkia 1: semaforo koloreko fitxak.



(Ebaluazioa egiteko, eskuz eginiko semaforoen fitxa, bakoitza emozio batekin lotuta)

Horretaz gain, dinamika berbera jarraituta, bloke gogorak erabili ditugu batzuetan, semaforoko kolore berdinekin, umeek gehiago manipula zezaten materiala izanik. Besteetan, aldiz, bloke bigunak erabili ditugu, azkeneko saioetan batez ere, aipatutako semaforo/emozioen fitxak erabili ostean. Bloke bigun horiek danbor gisa erabili ditugu, “indioen borobilean” bageunden bezala jolastuz, erritmoa erabiliz, ume guztiei banan-banan “indioen agurra eginez” (eskua altxaturik, “Hao” esanez) eta txandak errespetatuz, ume bakoitzari galdetu diegu ea nola sentitu diren, zein izan den momenturik gustukoena eta jolasa gustukoa izan duten, bakoitzak taldeari bere iritzi eta sentipenak ahoz azaltzeko (5. *eranskinean aurkitu daiteke*).

Zerbitzuko saioetatuz gain, ikastetxe berak eta, beraz, **zuzendariaren iritzia** jaso nahi izan dugu, zerbitzuaren inguruko informazio gehiago lortu ahal izateko. Hori lortzeko ikastetxeko zuzendariari eginiko galdetegi bat sortu genuen, non zerbitzuarekiko asebetetze maila eskatzen zen. Galdetegi hau ikastetxeetara bidali da behin zerbitzua bukatuta zegoela, eta zuzendariak erantzun duten (6. *Eranskinean aurkitu daiteke*).

### 4.3. INFORMAZIOA ANALIZATZEKO PROZEDURA

Hala ere, jaso dugun informazio guztiarekin ez da nahikoa izan, informazio guztiaren analisia egitea beharrezkoa suertatzen zaigu, informazioa ordenatzeko eta lortutako informazio horretatik ondorio batzuk ateratzeko. Horretarako jaso dugun iritziak berrantolatuko ditugu eta irizpide batekin antolatu, sistema kategorial bat erabiliaz. Gure informazio iturri handienak, eginiko egunerokoa, ikastetxetik jasotako ebaluazioa eta umeek saio egun guztietan eginiko ebaluazioa izango dira. Hauek eskainitako informazioa bilduko dugu, ondoren, emaitzen informazioaren interpretazioa egingo dugu.

#### 4.3.1. Edukiaren analisia

Analisiarekin hasteko, lehenik eta behin, bildutako informaziora jo izan dugu, informazio guzti hori sailkatu ahal izateko kategoria-sailkapen sistema baten bitartez egin da, zein, geroago azalduko dugun (7. *eranskinean aurkitu daiteke*). Informazioa sailkatuta dugula kategoria sistemaren dimentsio, kategoria eta azpikategoria ezberdinetan, orain, informazio guzti horiek multzokatzeko eta segmentazio bat egiteko aukera eman du.

#### 4.3.2. Kategoria sistema

Edukiaren analisia egin ahal izateko, aipatu bezala, kategoria sistema bat erabili izan dugu. Kategoria sistema hau, hainbat ataletan banatu izan dugu, informazioa ahalik eta era ordenatuenean sailkatzeko, puntu garrantzitsuenak eta garrantzi hain handia ez dutenak

ezberdintzen. Hori lortzeko eta klasifikazioa aurrera eramateko, taula bat jarraitzea adostu izan dugu, non, dimentsioetan, kategorietan eta azpikategorietan banatu izan dugun genuen informazioa.

Taula hau izanik, gure informazio iturrietara joan gara, gure kasuan, landa-oharrak, argazki gutxi batzuk eta saio guztietako egunerokora, azken hau, pisu handikoena izanik. Informazio guzti hori aurrean izanik, taularekin batera, klasifikazio edo sailkapena egiten joan gara, esperientzia eta anekdotetan, planifikazio, harreman, sentipen eta intzidentzia kritikoetan bananduta, hauek baitira guk zehaztutako dimentsioak. Dimentsio bakoitza zehazturik, horren barruan zehaztu izandako kategorietan banatu izan dugu informazioa, klasifikazio are eta zehatzago bat lortuz. Planifikazioaren kasuan, adibidez, informazioa aspektu metodologikoetan, proposamen didaktikoetan eta faktore erraztagarri eta oztopatzaileetan banatu izan da.

Taula 1: Katgoria-sistema

<b>Dimentsioak</b>	<b>Kategoriak</b>	<b>Azpikategoriak</b>
Esperientzia eta harremanak	Esperientzia eta anekdotak	
	Harremanak	Ikasleen arteko harremana
		Rolak
		Irakaslearekiko harremana
	Lidergotza	
Intzidentzia kritikoak	Gertaera	
	Hartutako erabakia	
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Arauk
		Diseinua
		Espazioa eta materiala
	Faktore erraztatzaileak	
	Faktore oztopatzaileak	
	Proposamen didaktikoa	Zer planteatu dugun
Ikasleen erantzunak		
Esperientziak sortutako sentipenak	Kezkak eta zalantzak	
	Hausnarketak	

Harremani begira, aldiz, lidergo motak, irakasleekiko jarrera, ikasleen arteko harremanak eta rolak ditugu katgoria gisa. Sentipenetan sartuta, berriz, kezkak eta zalantzak, beldurrak, erronkak eta hausnarketak kategoriak izatea adostu izan da, eta, azkenik, intzidentzia kritikoei begira, zer gertatu izan den eta zer erabaki hartu den. Azpikatgoria batzuk ere zehaztu izan dira, aipatu dugun bezala. Hauek, aldiz, aspektu metodologiko eta proposamen didaktikoen kategorietara murriztu dira, izan ere, hauek izan dira informazio gehien lortu duten kategoriak, beraz, berriz ere informazioaren sailkapena are eta zehatzagoa izateko, azpialak sortu dira. Aspektu metodologikoen kasuan, diseinua, espazio eta

materiala eta arauak ditugu, eta proposamen didaktikoetan, berriz, zer planteatu dugun, ikasleen erantzunak zeintzuk izan diren eta balorazioak.

Aipatzekoa da, klasifikazioa egiteko kategoria-sistema honen taula, gu gidatzeko izan dela, eta moldaketak jasotzeko pentsatu egon dela, hau da, kategorია edo azpikategoriak kentzeko edota gehitzeko prestatua (Taula 1).

#### 4.3.3. Prozesu guztiaren kronograma, I-Zren faseak kontuan izanda

Prozesu guzti hori bere denbora eskatu izan da, ez baita ikastetxera joatea eta zerbitzua edota saioak egitea soilik izan. Saio edo zerbitzuekin hasi baino lehen, ikastetxearekin kontaktuan jarri izan behar ginen, baita ikastetxearekin adostu elkartzeko egun bat ere, non, bilera zerbitzua eman behar genuen ikasle eta hauen tutoreak ikastetxera gerturatu ginen, bertako zuzendari eta bestelako hezitzaileekin elkartzeko (taula 2).

Taula 2: I-E esperientziaren kronograma

NOIZ	ZER	NOLA
Urtarrilak 11:	Ikastetxearekin kontaktuan jartzea eta zerbitzua bertan eraman nahi dela aipatu eta zerbitzua aurrera eramateko lehen aste-plangintza aurkeztu (hasieran saio-egunak noiz izan nahi ziren eguna eta ordua adierazi).	Korreoz.
Urtarrilak 17:	Aranbizkarra ikastetxeko zuzendariarekin elkartzeko egun eta ordua zehaztea.	Korreoz.
Urtarrilak 27:	Zuzendari eta hezitzaileekin elkartzea. Ordu-tegi eta saio-egun finalak zehaztea, baita espazio/eremua ere eta hau erakustea (psikogela,...).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean.
Otsailak 4:	Lehen zerbitzuaren saio eguna (5 urteko gela).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean. Psikogelan.
Otsailak 11:	Bigarren zerbitzuaren saio eguna (4 urteko gela).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean. Psikogelan.
Otsailak 18:	Hirugarren zerbitzuaren saio eguna (5 urteko gela).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean. Psikogelan.
Otsailak 25:	Laugarren zerbitzuaren saio eguna (4 urteko gela).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean. Psikogelan.
Martxoak 3:	Bostgarren zerbitzuaren saio eguna (5 urteko gela).	Presentzialki, Aranbizkarra ikastetxean. Psikogelan.

Elkarketa horretan, aurretik beraiekin izandako kontaktuan (korreoz eta abar) aipatutako saioen egunak, orduak, saio kopuruak, zerbitzua aurrera eramateko gune edo eremua, ikasgelak, ume kopurua eta bestelako puntuak zehaztu genituen, baita gure artean komunikatzeko helbide eta mugikor zenbakiak konpartitu ere.

Hau guztia zehaztuta, orduan bai, zerbitzua egitera abiatu ginen, gure kasuan, otsailaren 4an hasiz 5 urteko gelako haurrekin. Hurrengoko saioa aste bat geroago izan zen, otsailaren 11an hain zuzen, 4 urteko ikasgelako haurrekin. Aipatzekoa da, bai bost urteko gelan, baita lau urteko gelan, banaketa bat dagoela, hau da, bi ikasgela daude Haur Hezkuntzako bi urteetan, beraz, saio-egun bakoitzean, bi taldeekin lan egin dugu saioaren denbora bitan bananduz. Hurrengoko saioak otsailaren 18an (5 urteko gela), 25ean (4 urteko gela) eta martxoaren 3an izan dira (5 urteko gela). Hala ere, aipatu beharra dago, martxoaren 10ean azkeneko saio bat aurrera eramatea pentsatuta zegoela, lau urteko umeekin, zehazki, baina, Covid-19a dela eta ikastetxeen itxiera dela eta, ezin izan genuen azkeneko saio hau aurrera eraman, ezta ondoren ikastetxearekin aurrez aurreko bilera bat egin prozesu osoa baloratzeko.

## 5.EMAITZAK

Prozesu honetan laguntzeko eta analisisia errazteko, sailkatutako informazioa galdera batzuei erantzun dezaten erabaki dugu, honelako zerbait geratuz:

### 5.1. ESPERIENTZIAK ETA HARREMANAK

#### 5.1.1. Esperientzia eta anekdotei begira, zer kontatu dezakegu?

Atal honetan sartzan den informazio gehiena, saioetan zehar gertatzen diren hainbat pasarte izango litzateke, besteak beste, umeek eginiko hainbat ekimen, adibidez, ukitu ezin zen harresia botatzea eta ezer esan gabe jasotzea, eginiko jolasetan pasatutako hainbat esperientzia, umeek esandako edo proposatutakoarekiko erantzun batzuk eta abar. Planifikatuta genuenez at geratzen diren momentu edota pasarteak biltzen direla esan daiteke.

*Azken eguna zela aipatzerakoan, beste taldearen bezala, penaz hartu zuten berria, baina zer egin behar genuen jakiteko gogoekin zeuden, “¿Hoy que hacemos? ¿un juego peligroso?”. Honek, barregura eman dit, gainera umeak egindako gestua ikusterakoan (indarra zuela erakusteko, besoko muskulua erakusten). “Yo soy valiente eh, yo quiero jugar a algo peligroso” esaten zuen batek, besteek berdina esanez. (Egunerokoa, 2020.03.03)*

*Denbora asko ez genuela ikusita, jolasa munduko zer tokitik datorren aipatzera ekin dut, eta Afrikatik ekarritakoa zela aipatzean, umeak Afrikari buruz hitz egiten zuen abesti bat abesten eta dantzatzen hasi dira, beraz, hori moztu nahian jokoa hastera eta azaltzera joan gara borobilean antolatuz. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*Barrez inguratuta, talde guztiek horretara ekin dute, eta segituan harrapatu naute, beraz, nik beraiek egiten ari ziren modu berean, lurretik ipurdiarekin arrastaka joan naiz eremutik mugitzen, beraiek ni harrapatzen saiatzen ziren heinean. (Egunerokoa, 2020.02.25)*

Gertakizun gutxi batzuk hartzen dituen atala dela esan dezakegu, gehienbat esperientzia pertsonalerako gordetzen diren uneak edota hezitzaile bidean aurkitu daitezkeen egoera batzuk.

#### 5.1.2. Zer nolako harremanak eman dira saioetan?

Harremani begira, ikasleen arteko harremanak, hartutako edota ezarritako rolak eta irakasle edo hezitzaileekiko harremana dugu. Ikasleen arteko harremanari begira, lehen momentutik nahiko ona izan da, baina aipatzekoa da, saioak aurrera joan ahala, ikasleen artean elkartasun eta lagunkortasun handiagoa nabaritzen zela, beraien artean gehiago laguntzen baitziren, hasieran ez bezala, taldekideak ezberdinak izatea ez zitzaien axola, egoera erlaxatuago sortu zen beraien artean, bata bestearekin izandako kontaktuak (fisikoak) arazoetan sortzetik, beraien artean barkamena eskatzera eta barrez inguratzera, elkar lagunduz denbora osoan.

*Umeei begira, beraien artean laguntasuna nagusitu da, bai eserita zeudela jokalaritari pausuk ematean izan duten parte-hartzeari begira, baita lekutik altxatu eta ikaslearen ondora joan direlako hau hobeto lagundu nahian ere. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Aldi berean, umeei begira, beste saio batzuetan bezala, beraien artean moderatzen egon dira momentu konkretuetan, isiltzeko eskatuz, ondo antolatzen lagunduz elkarren artean, nola jarri behar ziren elkarri azalduz... Esan daiteke, elkarren arteko kooperazioa eman dela. (Egunerokoa, 2020.02.25)*

Irakasle edo hezitzailearekiko jarrerari begira, hasieran ikasleak ez zuten kasu handirik egiten esandakoari, askotan irakaslea desafiatzen zuten, eserita egon behar zirenean altxatzen, korrika egiten, bota ezin zen harresia botatzen, materialen bat hartzen... Saioak aurrera joanda, errespetua handiagotzen joan da, esandakoa egiten dute, ez dute hasieran bezala desafiatzen, nahiz eta umeetako batzuk, batzuetan hori egiten saiatu.

*Momentu honetan pixkat deskontrolatu dira, baina esertzeko eskatu nien arauak aipatzeko eta jolasa zein izango zen esateko. Ez zuten erresistentzia handirik jarri, nik esandakoa erraz errespetatu zuten. (Egunerokoa, 2020.03.03)*

*Umeak korrika egin dute eta berriro esertzeko eskatzean, hasiera batean kasu egin dute, baina aipatutako bi ikasleak berriro korrika hasi dira. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

Esan daiteke, orduan, saioak pasa ahala, ikasleen artean laguntasuna edota kooperazioa ematen joan dela, baita irakaslearekiko errespetua handitzen joan ere.

### 5.1.3. Umeen artean lidergotzarik eman da edo rolik hartu dute?

Umeen artean, hasieran bizpahiru ikasle aurkitu izan dira, zeintzuk, "burlati" edota "komiko" papera hartzen zuten. Hauek nahigabe erortzearena egiten zuten, edota irakaslea desafiatu, beste kideak bera egiten zutena imitatzerantz animatzeko edota, bestalde, besteak barre egiteko. Horretaz gain, umeek, beraien artean moderatzaile gisa jokatzeko zuten, askotan isiltzeko, esertzeko, zerbait ez egiteko eta abar eskatuz, edota beharrezkoa ikusten zutenean, kideei egin beharrekoa gogoratu ere. Hori izan da hartu duten rolik nabarmena, bestelako rolik bilatu ezkerorik, jolasetan esleitutako papera aurkituko genuke, soilik.

*Taldeei begira, aipatzekoa da ez dudala liderrik ikusi, baina bai influentzia handiko umeak. Hauek nahastean hasi direnean (bi taldeetan) gainontzeko gehienak berei segitzen hasi dira. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*Horrekin batera, ez da lider baten presentzia ikusi baina bai barre egiten dien ume baten presentzia, askotan "pailazo"-papera hartzen duen umea deitzen duguna. Honek, erortzen zela, blokearen kontra txokatzen zela eta abar egiten zuen, gainontzekoen barrea sortzeko, hala ere, denboraz gelditu behar izan dut denbora gehiegi suposatzen baitzuen honek jolastea, ez baitzen serio jokoan jolasten. Umea segituan ulertu du nik esaten ari nintzena, eta jolasa serio hartzen hasi da momentuan. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Ume hori poliziaren papera izatea pentsatu dut gainontzeko umeak ez altxatzeko, beraz, moderatzaile paper antzeko bat hartu du. Horretaz gain, hurrengoko jokalaria hautatutakoan, aurreko ume horrek, blokearen posizioa aukeratu du. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

Ulertu daiteke, beraz, nahiz eta ikasleen artean gainjartzen saiatzen zen ikaslerik egon den, ez dela lidergo paperik hartu duen ume konkreturik eta ikasleen arteko harremana nahiko ona izan dela azken saioetan. Gainera, esan bezala, rolei begira, moderatzailea izan da rol nabariena, zein, umeen artean saioa kontrolpean jarraitzen lagundu izan duen.



#### 5.1.4. Intzidentzia “kritikorik” egon da?

Intzidentziei begira, umeak saioa alde batera uztea eta koltxonetetara joatea ikusi ahal dugu (koltxoneten eremura ezin zela joan azaldu genuen), saioaren kontrola guztiz galduz. Hori gertatuta, saioaren kontrola berriro bereganatzen saiatu izan gara, baina alferrikakoa izan da, talde horren saioa guztiz galduz, umeetako bizpahiru izan ezik, zeintzuk jolastera joateko esan behar izan genien. Hurrengoko saioarekin berbera ez gertatzeko, beste estrategia batzuk bilatzea erabaki genuela ikusi daiteke, besteak beste, atentzioa mantentzeko eta umeak motibatuzeko estrategiak. Desafiatzeko hainbat gertaera ikusi izan dira (gutxi izanda ere), zeintzuk, sortez, ez duten saioaren kontrola galtzea eragin.

Horretaz gain, ume batek bekokian kolpe bat jasotzea aurkitu dezakegu informazioaren barruan, zein, korrika joanda, erori izan den. Hori gertatuta, umea ikuskatu (kolpearen zonaldea begiratu handitzen zen, gorri zegoen, umea ongi sentitzen zen...) izan da, baita honi lagundu (kolpean ur hotza jarri, busti, umea lasaitu...) eta irakaslearengana eraman eta gertatukoa azaldu ere.

*Aurkezpenekin geundela, ikasleetako bi haur nahasten hasi dira, gelatik korrika eginez, zutik jartzen, lurrera jaisten, bien artean harrapaketan ibiliz... nahiz eta hauei esertzeko eta isilik egoteko eskatu, nahi dutena egiten egon dira. Honek biak gainontzeko ikasleen atentzioa bereganatzen egon dira, eta ez didate kasu handirik egin. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*Bestalde, aurkitu izan dugu momentu bat, non, umeak beste ikaskide baten kontra egin duten arauetako bat errespetatu ez duelako (harresia ez botatzea). Hala ere, ume bat ia amaitzerakoan korrika hasi eta harresiaren zati bat bota du. Hori gertatzerakoan, guztiak beraren kontra egin dute esanez: “ehhh, que no puedes hacer eso, que es veneno!” (harresia landare pozoidunak zirela gogoratuz) (Egunerokoa, 2020.02.18)*

Hori ikusita eta gainontzeko intzidentziekin egin den bezala, zerbait egin izan dugu (erantzun bat eman), kasu honetan, gainontzeko taldeko ikasleak baretu eta intzidentzia eragin duen umeari araua gogoratu eta ikasleekin batera harresia jaso elkarlanean arituz.

*...eta nik umeak isiltzeko eskaturik, blokeak bota izandako umearengana gerturatu eta lehen arauetan esandakoa gogoratu diot: ezin dira harresiko blokeak bota hori eskatu ez badut, jolasaren parte baitira, hurrengoan kontu gehiagorekin ibiltzeko. Umea baietz esan eta beste ikasleekin batera, harresia jasotzen lagundu didate (Egunerokoa, 2020.02.18).*

Beraz, esan daiteke, intzidentziei begira, ikusi ahal dugu informazioari esker, ez dela arazo askorik eman, baina bai saioa hankaz gora jarri edo jarri ahal izan duten gertaerak. Hala ere, kasu guztietan erantzun bat eman da, saioa ahalik eta hoberen funtzionatu ahal izateko.

## 5.2. PLANIFIKAZIOA

### 5.2.1. Planifikazio eta aspektu metodologikoei begira, araurik jarri izan da?

Arauei begira, esan beharra dago, hasierako saioetan (lehen bi saioak) ez zirela arauak gogoratzen, baina dugun informazio iturriei esker, badakigu, ondoren, arauak gogoratu direla saio guztietan, ohikoak diren arauetatik at, beste arau batzuk gehituz, saioaren kontrola ez galtzeko, besteak beste, jolastu ezin den eremura ez joateko eta erabakitako espazioan jolasteko.

*Beraiek esandako araez gain (ezin da jo, iletik tiratu, bultzatu, hitz txarrak esan, ...), beste arau batzuk sartu ditut saioa deskontrolatu ez zedin: ezin da korrika egin korri egiteko unea ez denean, ezin da harresia bota hori eskatzen ez bada eta ezin da koltxoneten eremura joan jolasak hori eskatzen ez badu. (Egunerokoa, 2020.02.18)*



*Irudia 1: Aranbizkarra ikastola, 2020.03.03. Aulki eta lurrean eserita, arauak gogoratzeko prest!*

Informazioari esker, ikusi daiteke, saio guztietako errutina gisa erabili dela arauak gogoratzea eta saioaren kontrola mantentzen lagundu izan duela, izan ere, ikasleen parte-hartzea eskatzen zen eta beraiek ziren arauak aipatzen eta gogoratzen zituztenak.

### 5.2.2. Planifikazio eta metodologiari begira, diseinua nolakoa izan da?

Diseinua saioa egin baino lehen programatzen zen, dugun informazioa ikuskatzen badugu, saioak aurrera joanda, baita saio beran ere, sortzen ziren beharrei begira, aldaketak sartu izan

dira, adibidez, saioaren jarraitu beharreko estruktura (zerekin hasi, nola jarraitu...) jolasa aurrera eramateko modua, egun bateko jolasa beste saio bateko jolasarekin aldatzea, balorazioa unea egiteko modua (indioen borobilaren jolasa sartuz...) eta abar.

*Beraz, horrekin hasi dugu gaurko saioa, umeek zapatilak eta txaketak kendu eta gero. Umeei beti bezala, saioari hasiera emateko, eserlekuan esertzeko eskatu diet, eta beren laguntza behar nuelakoan, beraiek arauak gogoratzea eskatu diet (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Balorazioa egiteko uneari begira, aipatzekoa da, momentu hau gero eta dinamikoagoa edota joko baten antzekoa prestatzerakoan, denen parte-hartzeko gogoak gora egin duela, beraz, berriro ere aplikatu beharreko estrategia gisa ikusi izan dut. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Ebaluatzeko eseri ginen jolasa amaitu ondoren. Funtzionatu izan zuen bezala aurrekoetan, borobilean jarri ginen indioen jolasa egiteko, batzuk momentu hori itxaroten zeuden, gogoekin "buaaaa lo de los indios ¡SIIIII!!". (Egunerokoa, 2020.03.03)*

Beraz, esan daiteke, diseinuari begira, sartu diren aldaketak, saio eta taldearen araberakoak izan direla, beti umei saioa dibertigarriagoa, motibagarriagoa eta abar suertatzeko, adibidez, saioetan egin beharreko jolasa baino lehen, jolas txikiak egitea (jolasaren funtzionamendua ondo ulertzeko, pausuz pausu) edota, baloratzeko unean "indioen korroa" egitea.

### 5.2.3. Zer material edo zelako espazioa erabili izan da saioetan?

Espazioari begira, esan daiteke nahiko zabala zela erabili izandako eremua (psikogela), hala ere, espazioaren murrizpena ematen da koltxoneten eremuak espazioaren ia erdia hartzen duelako. Argitasun handiko eremua dela ulertzen dugu dugun informazioari esker, izan ere, leihoz inguratutako eremua da, eta psikogelan argi naturala sartzen uzten du. Gainera, psikogela ondo kokatuta dagoela ulertu daiteke umeen jantokiaren ondoan dagoelako eta ordutegia dela eta, bertatik ateratzen direlako (jantoki orduan izan dira saioak, beraz, jan ondoren, ez dute oso urruti joan behar) eta saioaren eremua ondoan dutelako. Horretaz gain, jolastokia ondoan edukita, txanda aldaketak egiteko denbora gutxi erabiltzea ekarri du, puntu positibo gisa hartuz.

Barruko espazioari begira, txaketak eta zapatilak uzteko lekua erabili izan da, baita aulkiez sortutako lauki bat ere, non, bertan, asanbladak egin diren, ongi etorria emateko, arauak gogoratze edota zerbait azaltzeko. Jolas eremuari begira, koltxoneten eremutik banantzen zuen blokeen harresi ondoko ingurua erabili izan da, leihoen ondoan dagoen eremua.



*Irudia 2: Aranbizkarra ikastola, 03/03/2020. Jolas eremuan. Ebaluaketa eginez, erdiko blokea indioen danbor gisa erabiltzen nuen, eta denak indioen agurra egiten ari ziren "Hao" altuan esaten ari ziren bitartean.*

Materialari dagokionez, informazioa irakurrita, esan daiteke ez dela material anitzik erabili, jolas gehienak material gabekoak direla eta. Hala ere, erabili izan diren material gehienak, saioak aurrera eraman izan diren espazioan aurki daitezkeen materialak dira, besteak beste, zapiak eta bloke bigunak. Bertako materialaz gain, ebaluaketarako eskuz eginiko semaforo-koloreko fitxak erabili izan dira.

*Hasiera batean, jolasa makilekin egin behar zer, ume bakoitzak makila bat eskuan izanda, altxatuta (kono baten laguntzarekin) egongo litzatekeen beste makil bat jo eta lurrera bota beharko lukeen. Hala ere, nahiko arriskutsua zela pentsatu nuen eta, beraz, bloke bigunekin egitea pentsatu nuen, txurro bat eskuan izanda hau kolpatzeko. Hala ere, berriz ere, zerbait kolpatzea arriskutsua zela pentsatu nuen, nahiz eta txurroa biguna izan, horrek iskanbilak sortzeko aukerak suertatu zezakeelako, beraz, blokea besarkatzea erabaki nuen. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Aldaketei begira, pentsatu dut lau urteko umeei kolorezko bloke edo kutxak aurkeztu baino, paperaz eginiko hiru borobil eramatea semaforoko koloreekin, baina errazagoa eta bisualagoa suertatzeko, borobiletan aurpegiak margotzea ideia ona izango litzateke: gorria, aurpegi triste; laranja, aurpegi neutroa; berdea, aurpegi alaia. (Egunerokoa, 2020.02.04)*



*Irudia 3: semaforo koloreko fitxak.*

Semaforo fitxei begira, baita balorazio momentuei begira ere (batera joan direlako), aipatzekoa da, bai "indioen korroa", baita fitxen ebaluazioa ere, oso ondo funtzionatu izan direla, umeez erraz baloratu izan dute eta, fitxei begira, hizkuntzarekin arazoak zituzten umeei (edo hizkuntza kontrolatzen ez zuten umeei) lagundu izan diela, era bisualago batean aurkeztu delako baloratzeko aukerak. Aipatzekoa da, honekin batera, umeen balorazioak, positiboak izan direla momentu orotan, hasierako saioetan izan ezik, non, nahasi ziren umeez balorazio negatiboa eman zuten. Hala ere, saioak aurrera joan ahala eta ikasle guztiak parte-hartzen joan ahala, balorazio horiek onerantz joan izan dira.

Esan daiteke, beraz, materiala erraz aurkitu daitekeena dela, biguna edo minik ez hartzeko modukoa eta jolasak aurrera eramateko beharrezkoak edo saioak era errazago edo dibertigarriagoan (indioen jolaserako danbor gisa erabilitako blokea, adibidez) egiteko erabili izan diren materialak direla.

#### 5.2.4. Saioak erraztu edo oztopatu izan dituzten faktorerik aurkitu izan da?

Informazioari esker, ikusi ahal dugu hainbat faktorek saioetan eragina izan dutela, nahiz eta gutxi batzuk izan. Faktore horietako batzuk "erraztagarriak" izan direla ulertu daiteke, besteak beste, umeez zuten jolasteko gogoia, zein, saioak aurrera eramaten lagundu izan duen.

Hala ere, "oztopatzaileak" izan diren beste faktore batzuk aurkitu izan dira, hauen artean, psikogelako koltxonetazko eremua eta harresia umeen aurrean egoteak tentazio

handiegia izatea suposatzea, denbora eskasa izatea saioak aurrera eramateko, ezagutzen ez zuten irakasle batek saioa aurrera eramatea eta honek duen autoritate falta umeengan, hezitzaile gehiegi elkartzea saio batzuetan edota, kasu gutxietan, jantokitik nahiko justu ateratzea (denborari begira).

*Horretaz gain, konturatu naiz, nahiz eta ebidentziak lortzen saiatu (argazkiak, momentuko oharra eta abar), hain denbora gutxi edukita, ezinezkoa suertatzen zaidala, taldetik urruntzen naizen bakoitzean umeak nahasten eta atentzioa galtzen dutelako. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*Gaurko egunean Haur Hezkuntzako 4 urteko umeekin egon naizen lehen saioa izan da. Gaur, aurreko astean ez bezala, ordurako umeak prest zeuden eta akordatutako orduan saioa hasteko aukera izan dugu. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*izan ere, parte-hartzeko gogoak zituzten umeak eta ez da oso zaila izan gaurko saioa aurrera eramatea. (Egunerokoa, 2020.02.25)*

Esan dezakegu beraz, faktore oztopatzaileak erraztagarriak baino gehiago izan direla kopuruari begira, baina gehienak eremu edo espazioarekin eta denborarekin zerikusia izan dute, ez zerbitzuaren diseinuarekin. Hala ere, aipatu beharra dago, nahiz eta hasiera batean taldea eramatea zailagoa suertatu, ikasleek jolasteko eta parte hartzeko gogoak izan dutela, are eta gehiago saioak aurrera joan izan direnean, beraz, taldea bera faktore erraztagarri bezala kontsideratu dezakegu.

#### 5.2.5. Proposamen didaktikoei begira, zerbait planteatu izan da eta ikasleen erantzunik jaso da?

Saioen planteamenduari begira, aipatzekoa da informazio iturria irakurrita, saio bakoitzerako prestatuta zegoen jolasaren inguruan bide ezberdinak planteatu edo proposatu izan direla umei, besteak beste, jolasean murgiltzeko pausu ezberdinak edota jolasean trebatzeko hasierako jolas txikiak. Gainera, batzuetan, jolasa azaltzeko modua ere era ezberdinetan planteatu izan da saio bakoitzari begira, taldeari moldatuz eta motibatzea bilatuz, testuinguru erakargarriak sortuz...

*Jolasa azaldu dut eta borobilean kokatu gara altxatuta. Bertan, umeak animatu eta motibatu ditut, "txoritxo batek esan dit zuek oso onak zaretela saltoak egiten, baita hanka batean saltoak egiten ere" eta antzekoak esanez. (Egunerokoa, 2020.02.04)*

*"Ausartentzat den jolasa da, leku hau (psikogela) gaur ez delako psikogela bat, oihan bat baizik, eta harresia ez da harresia bat gaur, landare pozoidunak baizik (hau bota ez zezaten)... Gainera, oihan honetan altxor bat dugu, momia baten altxor bat!"*

*(momentu honetan denak aho-zabalik zeuden) eta pertsonarik ausartena behar dugu esploratzailea izateko.” (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Balorazioa egiteko, pelikuletako indio tribu baten antzera esertzea eskatu dut, denak aurpegi serioa jarritz. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Beraiek esaten ari ziren jolasa “snake” zela azaldu nien, baina, beraiek nagusiagoak zirenez, “snake” jolastu beharrean, beste jolas bat egingo genuela esan nien, antzekoa, baina piska bat zailagoa. (Egunerokoa, 2020.03.03)*

Umeen erantzunei begira, aipatzekoa da informazioan ikusi den bezala, jolasa planteatu edo aurrera eraman den saio guztietan (edo, behintzat, gehienetan), umeez zer esaterik izan dutela, baina ez da egon jolasaren aurkako oposiziorik, baizik eta jolasaren inguruko komentarioak, galderak eta antzekoak. Erantzunetan ere, aipatzekoa da, ez dela soilik umeez ahoz esan dutena jaso, baita zer nolako jarrera hartu duten ere, nola erreakzionatu duten, zer keinu egin duten, gorputzarekin eta jarduteko erarekin zer ikusi den...

*Momentu horretan (bakoitzaren aurkezpenetan), konturatu izan naiz taldekideko neska batek ez zekiela euskara, izan ere, aurkezpenak euskaraz egiten ari ginela eta bere txanda tokatzen zela, honek esan dit “Yo no se hablar así”, eta frustrazio puntu bat ikusi ahal izan zaio. (Egunerokoa, 2020.02.04)*

*Aldiz, nire suposizioak zuzenak izan dira, izan ere, euskara ez zekien neskatxa, “dakienaren” aurpegia jarri du, hau da, “aurpegia argitu” zaio snake hitza entzutean, eta orduan, lurrera bota da hau imitatzeko eta niri azaltzeko zer esan nahi duen snake. (Egunerokoa, 2020.02.25)*

*Jolasa “dragon’s tail” zuela izena esan eta beraien artean altuan esaten hasi ziren: “dragon ball?”, “sí, será Dragon ball”, “ala! yo soy un dragón”, “¡furia nocturna!”... (Egunerokoa, 2020.03.03)*

*Zailagoa hitza entzutean, denak harridura aurpegia jarri zuten, bata bestearekin komentatuz “más difícil eh”, “ala más difícil”... (Egunerokoa, 2020.03.03)*

Aipatzekoa da, ikasleen erantzunei begira, planteatutako jolasak ongietorriak izan direla, eta parte-hartu izan dutela era positibo batean, gainera, bakoitzak pentsatzen zuena esateko aukera izan dute era libre batean. Hizkuntza ez zekiten ikasleei begira (euskara ez zekien neskatxa bezala, zein, adibidean aurkitu daitekeen), ikasle guztien ulermena sustatzeko, itzulpen txikiak egin izan nituen (gaztelaniaz) edota esaten edo azaltzen ari nintzena mimikarekin laguntzen saiatu nintzen.

Ikasleen erantzunez gain, ikastetxeko irakasle eta zuzendariaren balorazioa jaso dugula ere aipatzekoa da, zeintzuk, baliagarri eta beharrezkoa bezala aurkezten edota deskribatzen dute zerbitzua. Beraien aburuz, irakasleok ikasleak ezagutu ez izateak errealitatera gerturatsen lagundu izan digu, eta taldea poliki-poliki ezagutzen joan gara, baita ikasleetara moldatzen joan ere. Orokorrean hezkuntza-prozesuen berezko gatazkak ebaztea lortu dugula aipatzen dute, baina ikastetxeko erlazioei begira, eskas geratu dela aipatzen da ere, adostutako orduak egiteaz gain ez baitugu kontaktu handirik izan. Aipatzekoa da ere, denborari begira, zerbitzua nahiko motz geratu dela aipatzen dutela, denbora edota saio gehiago izateak aproposagoa izango zela azaltzen baitute. Hala ere, errepikatzeke zerbitzu gisa ikusten dute eta beharrezkoa dela esan dute. (6. *eranskinean aurkitu daiteke balorazioa*)

### 5.3. ESPERIENTZIAK SORTUTAKO SENTIPENAK

#### **Sentipenik sortu izan da saioak planifikatzeko edo aurrera eramateko momentuan?**

Sentipenei begira, aipatu daiteke, gainjarri izan den sentipena urduritasuna edota kezka izan direla, besteak beste, hizkuntzari begira, ikasleek nik azaltzen nuena ez ulertzearen kezka (ikasle batzuk ez zekiten euskaraz edo ez zeuden hizkuntzan trebaturik), saioa ongi eramango ez den kezka, denbora ongi antolatu ahalko den kezka, urduritasuna lau urteko taldearekin lehen saioa nahiko deskontrolatu baitzen...

*Niri begira, aipatzekoa da, hasieran oso urduri nengoela, baina umeak jadanik nirekin zeudela, haiei ahalik eta kalitate handiagoko harreman eta saioa eskaintzea izan dut helburu, beraz, beldur eta urduritasun gutxiena izaten saiatu naiz eta gidari paperean murgiltzen saiatu naiz. (Egunerokoa, 2020.02.04)*

*Hortik aurrera euskaraz eta gazteleraz azaltzen eman dut, momenturo itzulpentxoak eginez, izan ere, ni haientzat pertsona berria izanik, umeen erosotasuna bilatzea garrantzitsua ikusten nuen hain denbora gutxiko jolasak gozatu eta denbora atsegin bat pasa ahal izateko. (Egunerokoa, 2020.02.04)*

*Kontrola galtzeak nire jarreraren ez dit asko lagundu, ez nekien "galdutako" umeak berreskuratzen saiatu behin eta berriro edo gainontzeko umeengan zentratu beharra nuenik. Beraz, nahiko galduta egon naizenaren sentsazioa zan dut. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

Horretaz gain, ikusi dezakegu, saioetan zehar eta hauek amaitzerakoan hainbat hausnarketak egin direla, izandako saioari begira, hurrengoko saioari begira, izandako jarrerari begira eta abar.



*Aproposena, nire ustez, talde bakoitzarekin ordu oso bat izatea izango litzateke, non, jolasa aurkeztea, aurrera eramatea eta balorazioa egiteaz gain, umeeek libreki psikogelako materialekin jolastea ahalbidetuko litzatekeen. (Egunerokoa, 2020.02.11)*

*Gainera, esperientzia positiboagoa izanda, aurreko eguneko saioari begira, lasaiago eta saioak aurrera eramateko gai edota kapaz edo trebeago ikusi naiz, azken finean, ez da umeen motibazioa soilik baliagarria dena, bakoitzaren motibazio-pertsonalak ere garrantzia handia baitu, honek gainera, saio eta jardueretan eragin zuzena du eta, saio hauek, nire irakasle paperaren barruan, nire jarrerak duen garrantziaz konturatzen laguntzen ari didate. (Egunerokoa, 2020.02.18)*

*Esperientzia polita, berria eta beti bezala, erabilgarria izan da, non, umeeekin egoteko beste aukera bat suertatu den, zein, talde berri batekin lan egiteko aukera izan den. (Egunerokoa, 2020.03.03)*

Informazioari esker, beraz, esan daiteke, aipatu bezala, sentipen nabariak zalantzak eta kezka izan direla, gehienbat saioaren nondik norakoari begira, eta hausnartzera animatu duten saio edo zerbitzua izan dela, hausnarketak baitira gehien ageri direnak gure informazio iturriaren barruan.

Gainera, umeei eginiko balorazioei begira, zeintzuk, positiboak izan diren (orokorrean behintzat, hasierako saio batetan izan ezik, non, bizpahiru balorazio negatibo izan ziren), saioen prestakuntzaren eta saioaren eramateari begira hausnartzera animatu izan nau, beti ere hezitzaile paperean trebatzera eta hobekuntza pertsonalak bilatzera begira. Horretaz gain, ikastetxeak bueltatutako balorazioa positiboa izanak, lan guztia baliagarria izan dela pentsatzera animatu nau, profesionalki baloratuago sentitzera lagunduz, besteak beste, izan ere, galdetegian emandako erantzunetako bati erreferentzia eginez, “*Hasierako inpresioa ona iruditu zitzaigun eta bukatu ondoren, ez gara damutu, zeren emaitza onuragarria izan da*” (galdetegi/balorazioa 6. eranskinean aurkitu daitekeela gogoratzen dugu).

## 6. ONDORIOAK

Analisian aipatu genuen bezala, harremanen barruan ikasleen arteko harremana eta irakaslearekiko edo hezitzailearekiko harremana dugu, baita lidergotza edota ikasleek hartutako rolak ere. Irakasle edo hezitzailearekiko harremanari begira, aipatu izan den bezala, hasiera batean nahiko harreman ahula zuten, izan ere, ez nintzen ezagutzen zuten norbait. Horrek, autoritate falta bat ekarri zuela ikasleen artean aipatu daiteke eta, aldi berean, desafiatzeko aukera ekarri zien ikasle batzuei, besteak beste, egin beharrekoa ez egiteko aukera emanez edota egin behar ez zena egiten saiatzeko aukera.

Ikasleen artean, berriz, hasieran harremanak ez ziren ahulak, esan daiteke ikasleen arteko harremana nahiko ona zela, baina bai detektatu ahal zirela taldetxo batzuk, hau da, elkarrekin beti egon nahi direnen taldeak, eta bestelako ikasle batekin tokatzen bazitzairen, erabakiarekiko ezetza erakusten zuten. Hasieran ez ziren asko beraien artean laguntzen nahiz eta gure helburuetako bat kooperatibitatea zela azaldu, bakoitza bere aldetik zioan edo bere "lagun hobereenen" onurarantz jotzen zuten, nahiz eta beste taldekide bat izan. Hala ere, Carbonell-en (1999) hitzak jarraitzen esan daiteke jatorri ezberdinetako pertsonak elkarren ondoan bizitzea lortu dugula, integrazioa eta bizikidetzaren fenomenoak hobetzen, jakinda gaur egun ikastetxeetan kulturantzitasun handia dagoela interesgarriagoa bihurtzen dira guk egin dugun bezalako ekimenak egitea. Hori dela eta, kulturartekotasuneratz bideratuz, kontuan izan dugu harremanek garrantzi handia dutela, Arroyok (2013) esaten zuena lortzen saiatzen egon baikara, hau da, guztien ezberdintasun eta ezaugarriak errespetatzen ikasteko, guztion arteko tolerantzia eta errespetua bilatzea.

Hala ere, aipatzekoa da, saioak aurrera joan izan diren heinean, bai irakaslearekiko baita beste ikaslearekiko harremanak ere, hobetzen joan zirela, hau da, ikasleak esandakoa errespetatzen hasi ziren eta ikasleen arteko laguntasuna handiagotzen. Ikasleak beraien artean moderatzaileen papera hartzen joan dira, saioa eta jolas bera bide onetik joaten lagunduz eta, beharrezkoa zenean, beraien artean azalpenak ematen joan dira, hau da, jolasa ulertzen laguntzen, besteak beste. Beraz, esan bezala, ikasleen arteko kooperazioa, laguntasuna eta tolerantzia (betiko lagun-taldekoak ez ziren ikasleekin erlazionatzen eta jolasten) sustatzen joan dira, hau da, elkarren arteko elkarbizitza eta harremanak hobetzen joan dira hasierako egoerari begira, zein, ez zen hain gertukoa ezta hain lagunkorra ere ez. Honekin, Lleixàk-ek (2017) aipatutakoarekin parekotasuna eta gertututakoari arrazoi edo kausa bilatzen diogu, besteak beste, aditu honek dioen bezala, jarduera fisikoak ez du soilik osasunean laguntzen, baita elkarbizitzan ere, are eta gehiago hezitzaileak jarduera motorretik at dauden helburuak lantzeko saioak prestatzen dituenean, adibidez, kooperazioa lantzeko.

Aipatutakoarekin batera, beste puntu batekin sartuko gara, intzidentzia kritikoekin, hain zuzen. Saio guztiak erreparatuta eta egindako analisiari begira, ondoriozta dezakegu ez direla intzidentzia kritiko gehiegirik eman, agertu diren gehienak, aipatutako irakaslearekiko harremanarekin lotuko genuke, hain zuzen, desafiatzeko aukerarekin eta autoritate faltarekin. Esan bezala, autoritate gabeko pertsona bat izanik, eskatutakoa ez da beti bete, hasieran behintzat, umeek nahiago izan zuten koltxoneten eremura joan jolasa egin baino. Gainera, nahiz eta hara ez joateko eskatu, umeek ez zuten kasurik egin, azken finean, ezagutzen ez zuten pertsona batek zer egin eta zer egin behar ez zuten esaten ari zen. Horri, umeen inguruko informaziorik ez genuela gehitu behar diogu eta, gogoratzekoa da, ume bakoitzari behar duen tratua eskaintzeko, egunak eta saioak pasa behar ditugula.

Hala ere, aipatu dugun bezala, irakasle edo hezitzailearenganako errespetua handitzen joan izan da saioetan zehar, besteak beste, dagoeneko ez nintzelako hain ezezaguna eta jolas edo saioen planteamendua erakargarriagoa zelako.

Planifikazioa dela eta aspektu metodologikoetan oinarrituta diseinatutako saioak egin ahala aldaketak sartzeko ezinbestekoa izan da, saioaren egun berean, edota hurrengoko saioei begira, besteak beste, funtzionatzen ari ziren estrategiak sartuz, adibidez, arauak. Arauak gogoratzea tutoreak gomendatutako puntua izan zen, zein oso baliagarria suertatu den, umeei errutina bat eman geniolako, zein, dagoeneko ezagutzen zuten, eta gainera, saioa deskontrolatu ez zedin lagundu duen, baita ikasleen partaidetza eskatu arauak gogoratzeko momentuan. Arauen errutina egiteak eta diseinuaren barruan sartutako beste estrategia edota puntuek, jarduera motorra lantzeko jardueraz gain, elkarbizitza eta aspektu edo harreman afektiboak gogortzen eta elkar zaintzen lagundu duten saioen estruktura bat lortzen lagundu izan dute. Azkenengo hau, Gil, Gómez eta Contrerases (2008) aipatzen zutena ikusi izan dugu saioetan, hau da, faktore afektibo-harremanetakoak ere eragina dutela jarduera motorrean, ez soilik fisikoa, beraz, hau (faktore afektibo-harremanetakoak) lantzea edota zaintzea garrantzizkoa izan da umeen arteko harremana hobetu ahal izateko sozialki.

Diseinuarekin batera, materiala eta espazioa izan dugu saioan eragina izan duten faktore garrantzitsu gisa. Material gutxi erabili izan da, beraien artean jolastea bilatu izan baita ahalik eta material gutxirekin, beraien gorputzak eta beraien kideen gorputzak "material" garrantzitsuenak izanik. Honek elkarren arteko kontaktu fisikoa eta elkarren arteko gertutasuna ohikoagoa bihurtzen lagundu izan du, taldetxoaren arteko estrukturrekin zertxobait apurtuz, elkarren artean gehiago elkartzeko. Espazioari begira, aipatzekoa da, nahiz eta psikogela nahiko eremua handia izan eta argi naturala izan (puntu positibo gisa hartuak), faktore oztopatzaile gisa ere ikusi izan dela, izan ere, koltxoneten eremua eta blokeen harresia tentazio handiegia suposatzen izan du umeentzat, lehen saioetan batez ere. Umeak ohituta daude psikogela honetara joatean, bertako eremuan jolastera, hau da, koltxonetekin, blokeekin, kuxtetan dauden materialarekin... Espazio guzti hau eta bertako materiala gehiago aprobetxatu ahalko izango litzateke denbora gehiago izan bagenu, baina ezinezkoa suertatzen zen, izan ere, garrantzi handia du psiko-gelaren espazio eta materialak erabiltzen ustea Aucouturierren (2004) ezagutzetan zentratuz, aipatzekoa da, umeek libreki jolastu behar direla psikomotrizitate espazioetan, bertan, jolasaren bidez, espazioaren bidez eta bertako materialaren bidez, umea den bezalakoa aurkezten dela, bere beharrak azaltzen dituela, bere burua azaltzen duela, baita bere nahi eta sentipenak ere. Gainera, denbora eta espazioaren kontzeptuak barneratzen joaten da, baita gainontzeko umeekin erlazionatzen ikasi ere, zein, etorkizuneko bizitza helduan lagunduko dion.

Denbora, beraz, beste faktore oztopatzaile gisa ikusten dugu. Aproposena, gure ustez, ikasle talde bakoitzari ordu beteko saioa eskaintzea izango litzateke, saioan egin beharreko jolasa nahi adina errepikatzen edota jolas gehiago egiteko, erlaxatzeko une bat eskaintzeko beharrezkoa balitz, edota, aipatutako koltxoneten gunera joateko denbora eskaintzeko, baita harreria botatzeko eta hau jasotzeko denbora izateko ere. Baina, aipatu bezala, denbora-tarteak nahiko justua izan da, egunean bi talderi saio bat eskaini izan dugula jakinda. Denbora gehiago izan ezker, saioaren kalitatea handiagotu ahalko zela pentsatzen dugu, talde bakoitzari denbora-tarteak moldatu ahalko zirelako eta saioa beste erataria eraman ahalko zelako (taldearen behar eta ezaugarrien arabera, adibidez, azalpenetan denbora gehiago, jolasarekin hasi baino lehen hasierako jolastxoak gehiagotan egitea umeei zer egin behar zen hobeto barneratzeko...). Izan ere, Sánchez eta Llorca-k (2008) psikomotrizitate hezitzailearen rola inguruan aipatzen duten bezala, denbora oso garrantzitsua da saioan zehar egin denaren inguruan hausnartzeko, bai hezitzaileari begira, baita ikasleei begira ere, horrela, beharrezkoak diren aldaketak sartu ahalko dira edota saioak moldatu ere.

Espazio eta denboraz gain, beste faktore oztopatzaile bat aurkitu izan dugu, saioetan izandako hezitzaileen kopurua. Ondorioztatu izan dugu, gero eta hezitzaile edo irakasle gehiago izan saioan, orduan eta zailagoa izaten dela umeen atentzioa mantentzea saioa eramaten ari den pertsonarengan. Gure ustez, beharrezkoa soilik suertatzen denean egon beharko litzateke saio hauetan beste hezitzailearen bat, adibidez, ikasle berri bat etortzen bada, hizkuntza ezagutzen ez badu, behar berezi bat badu edota bestelakoak.

Planifikazioaren barruan, proposamen didaktikoei begira, zer planteatu eta nola planteatu den egitekoa izan da. Ulertu izan dugu ez dela soilik garrantzitsua saioan zer egin behar denaren diseinua, denbora eta materiala argi izatea, hau planteatzeko moduak garrantzia handia baitu ere. Umeei kalitatezko saioak eman behar zaizkie eta, beraz, hau nola aurkeztu behar den ere kalitatez egin behar dela ulertu behar da. Motibazioa eta erakargarritasuna bertan sartzen dira, eta hori honela izanda, saioak eta jolasak ahalik eta era motibagarri eta dibertigarriean planteatzen saiatu izan gara (are eta gehiago lehen bi saioak pasata). Saioak honela planteatzean, denen parte-hartzea bilatu eta sustatu nahi izan dugu, batez ere, elkarren artean kooperatzeko, hau da, jolasak denen artean jolasteko eta elkarren artean laguntzeko era erakargarrian planteatzen saiatu gara, denek elkarrekin irabazteko, adibidez. Hau guztia dagoeneko, hasieran aipatu genuen, Johnson, Johnson eta Holubec-ekin (1999), zeintzuk azaltzen zuten jolas kooperatiboak nola izan behar ziren edota nola planteatu, besteak beste, helburu komunak izan behar zituztela partaide biek, bientzat onuragarriak diren emaitzak lortzen saiatzeko, hau da, elkarren artean lan egitera animatu izan ditugu, elkarrekin jolasa egitea lortu ahal izateko.

Honekin erlazionatuta, irakasle edota hezitzailearen papera eta jarrera dugu. Ondorioztatu izan dugu saioen denbora pasa ahala, hezitzailearen papera oso garrantzia handikoa dela saioetan. Saioa kooperatibitatea biltzea badu helburu handi gisa, kooperazioa sustatzen ikasi beharko du hezitzaileak, adibidez, Riosek (2009) aipatzen duen bezala, hezitzaileak puntu batzuk jarraitu beharko ditu kooperazioa sustatu ahal izateko, zein, jarraitzen saiatu garen, besteak beste, lehiakortasuna eta indibidualtasunetik at joatea, elkarren artean lan egin daitekeela erakutsiz, eta, beraz, beharrezkoa suertatu izan denean, elkarren arteko partaidetzaren garrantzia gogoratu izan dugu saioetan.

Horretaz gain, hezitzailearen jarrerak ere garrantzia handia du. Umeak gidatzeaz gain, segurtasun eremu eta inguru bat sortzeaz arduratu behar da, umeak motibatzen, laguntzen, beraien beharrak asetzen, gatazkak konpontzen laguntzen, egiten ari direna behatzen, aktibo egonez (beharrezkoa denean) eta abar, hau da, hezitzailea prest egon behar da denbora tarte batean asko eskaintzeko kalitatezko saio bat eman nahi badiegu umei. Hezitzaile bera, beraz, ume edo taldea motibatzeaz eta beraietan atentzioa jartzeaz gain, bere buruari ere atentzioa eskaini behar dio, bera motibatuta egon behar baita ere eta bere sentimenduak ezagutu eta ulertu beharko ditu, hauek gestionatzen ikasi ahal izateko. Izan ere, Camps-ek eta Garciak (2004) azaltzen duten bezala, formakuntza pertsonalak garrantzia handia du, izan ere aukera ematen dio etorkizuneko psikomotrizistari bere dinamika pertsonala ezagutzeko, keinuak antzemateko, baita espazioarekin, materialarekin eta taldeko beste pertsonekin dituen inplikazioak antzemateko ere: Horrek, besteak eta bere burua hobeto ulertzeko gaitasunaren bidean beharrezkoak diren aldaketa pertsonalak egiten laguntzen du. Baita haurrari entzuteko, onartzeko eta haren hazkunde integrarean laguntzeko gaitasunera gerturatzeko lagundu ere. Esan ahal dugu, beraz, beste behin, irakasle papera ez dela gutxietsi behar den zerbait.

Autore edo aditu batzuk esaten dutenarekin gure informazioa alderatu ondoren, ondorioztatuko dugu ea markatu genituen helburuak betetzea lortu izan dugun. Helburuak gogoratuz, besteak beste, elkarbizitza sustatzea elkarlanaren bitartez, jolas kooperatiboen bidez ikasleen arteko harremana sendotu, bata bestearekin lan egiten eta jolasten ikasiz, kultura ezberdinei lekua eman, munduko zonalde ezberdinetako tradiziozko jolas ezberdinak erabiliz (kulturartekotasunerantzko bidean pauso bat eman), ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta egoera errespetatzea eta baloratzea eta ikasle guztien parte-hartzea sustatzea eta talde sentsazioa sendotzea genuen, baita, ikastetxe kanpoko jardueretan parte-hartu ezin duten ikasleei harremanetan jartzeko eta jarduera motorra lantzeko saio batzuk eskaintzea ere.

Aipatutako lehen helburuari begira (elkarbizitza sustatzea elkarlanaren bitartez), saioak aurrera joan diren heinean, elkarbizitza eta elkarren arteko harremana hobetzen joan dela esan dezakegu, beraz, helburua betetzea lortu dugula esan daiteke, gatazkak alde batera utzi izan direlako eta elkarren arteko tolerantzia handiagoa suertatu izan delako.

Bigarren helburuari begira (jolas kooperatiboen bidez ikasleen arteko harremana sendotu, bata bestearekin lan egiten eta jolasten ikasiz), esan daiteke, kooperazioa bilatzen duten jolasak egin ditugunez, aipatutako elkarren arteko harremana hobetzen lagundu dutela, elkarren artean lan egin izan dutelako, baita elkarrekin disfrutatu eta ondo pasatu ere, partaide ezberdinen artean konplizitatea eta laguntasuna lortuz.

Hirugarren helburuari begira (kultura ezberdinei lekua eman, munduko zonalde ezberdinetako tradiziozko jolas ezberdinak erabiliz), munduko zonalde ezberdinei eta bertako kulturari bisibilizazio txiki bat ematen saiatu garela aipatzekoa da, munduko leku ezberdinetako jolas tradizionalak erabili izan ditugulako gure saioetan, nahiz eta aipatzekoa izan, jolas batzuk kooperazioa bilatu ahal izateko, moldatu izan ditugun, baita umeen adin eta ezaugarrietara ere.

Laugarren helburuari begira (ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta egoera errespetatzea eta baloratzea), esan dezakegu bakoitzaren izateko era eta ezaugarriak errespetatu izan direla momentu orotan, bakoitza den bezalakoa baloratzea eta errespetatzea beharrezkoa ikusten baitugu. Beraz, gure saioak, jarduteko era, azalpenak eta jolastxoak, beharrezkoa suertatzen zen momentuetan, ikasleen behar eta ezaugarrietara moldatzen saiatu gara.

Bosgarren helburuari begira (ikasle guztien parte-hartzea sustatzea eta talde sententzioa sendotzea), aipatzekoa da, saio guztietan ikasle guztien parte-hartzea lortzen saiatu izan garela, umeak animatuz, motibatuz, gidatuz... hau da, guztiek parte-hartu zezaten inguru eta egoera apropos bat lortzen saiatu gara saio guztietan.

Azken helburuari begira (ikastetxe kanpoko jardueretan parte-hartu ezin duten ikasleei harremanetan jartzeko eta jarduera motorra lantzeko saio batzuk eskaintzea), ikastetxe-orduetatik at dauden jardueretan parte-hartu ezin duten ikasleei (baita jarduera horietan parte hartu dezaketenei ere), antzeko jarduera osagarriak eskaintzen saiatu gara, non, ikasleen artean harremanetan jartzeko egoerak sortzen saiatu garen, elkarren artean gehiago erlazionatzeko, baita jarduera motorra lantzeko ere.

Honekin, zera ondorioztatu dezakegu, hasieran markatu izan genituen helburuak (denak ez badira, gehienak) betetzea edo, behintzat, ahalik eta gehien betetzea lortu izan dugula. Izan ere, gure helburuak zerbitzuaren hasieratik presente izan ditugu saioak aurrera eramateko orduan, ez baitugu galdu behar saioaren noranzkoa ezta zergatia ere. Azken finean, beharrezkoa ikusten dugu saioak zerbait lortzera bideratuta egitea, ez soilik ikasleen "ongi pasatzerako" edo disfruterako, zein, garrantzitsua den ere, baina hortik at dauden bestelako helburu eta beharrak asetzera bideratuta egon behar diren saioak prestatzera eta aurrera eramatearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Hori guztiaz gain eta ikastetxeak bidalitako balorazio-galdetegia gogoratuz, aipatzekoa da dagoeneko ikastetxeko zuzendari eta irakasleek aipatzen zutena, ikastetxearentzat baliagarria izateaz gain, baliagarria suertatu dela etorkizuneko irakasle gisa jardungo

garenentzat, errealitatean murgiltzen lagundu baitigu, baita egoera errealekin topatzen eta gure burua bertan kokatzen lagundu ere, tutoretza baten behetik at, irakasle gisa jarduteko aukera eman baita.

## 7.LIMITAZIOAK ETA HOBEKUNTZAK

Lan eta zerbitzuari begira, aipatzekoa da, nahiz eta emaitza positiboak lortu, beti hobetu daitekeen proposamen bat dela, izan ere, limitazio batzuekin topatu izan gara zerbitzua iraun duen asteetan zehar.

Limitazioekin hasiz, aipatzekoa da, nahiz eta parte-hartu duten ikasle taldeak ikasgela bakoitzeko ikasle gehienak jaso (gehiengoa jantokian bazkaltzen geratzen baitira), ez gara heldu gainontzeko ikasleei, zeintzuk, zerbitzuak ase nahi izan dituen behar berdina izan zezaketen. Horretaz gain, limitazio handiena denbora izan da. Izan ere, saio askotan denbora justuarekin lan egin dugu, batzuetan saioak motzegiak suertatuz. Gainera, denbora falta, kasu askotan, saioaren kalitatean eragina izan dezake, ez baita azalpen eta jolaserako denbora nahikoa eskaintzen talde bakoitzarentzako, izan ere, talde bakoitzak behar ezberdinak ditu, eta batzuetan, saioaren momentu batzuetarako (edota intzidentzietarako) denbora gehiago eskaintzea beharrezkoa izaten da.

Hobekuntzei begira eta aipatutakoarekin erlazionatuz, saioak egin diren une edo momentua limitazio gisa ikusi ahal da, hau da, zerbitzua jantokiko orduan izatea. Esan bezala, ikasle talde osoa ez da jantokira joaten, beraz, beste momentu batetan izatea aholkagarria izan daiteke, non, ikasle guztiak egon ahal diren eta, non, beraien jolas-librerako momentua errespetatzen den (jantokiko jolas-orduan egin dugu zerbitzua. Une horretan, ikasleek jolas librerako momentua dute normalean). Hobekuntzekin jarraituz, dagoeneko hainbat aldiz aipatu den bezala, denbora gehiago eskaini beharko litzateke zerbitzuari, saio gehiago eskaini, talde bakoitzari denbora gehiago, adibidez, ordu bat eta ez talde bakoitzari 40 minutu (batzuetan gutxiago). Saioaren denbora gehitzearekin batera, gainera, umeei harresia botatzeko aukera ematea aproposa izango litzateke, eta saioko jolasak egin ondoren, jolas librerako aukera eskaintzea psiko-gelako eremu osoan (koltxoneten eremua, harresia, saioetan erabilitako eremua, material ezberdinak...). Horretaz gain, saioetan proposatutako jolasak errepikatu, moldaera gehiago eskaini edota bestelako jolasak egiteko aukera eskaini daiteke.

Limitazio eta hobekuntzetaz gain, aipatzekoa da, zerbitzu hau aurrera eramateak, horrelako proposamen gehiago egiteko aukera ematen duela etorkizunari begira, bai unibertsitateko ikasleei begira (IZ-n murgiltzeko aukera emanez), baita ikastetxeari begira ere (IZ proposamenetan parte hartzera animatu, beraien ikasleei saio eta zerbitzu horrelakoak jasotzeko aukera emanez). Horretaz gain, bide profesionalari begira, beste baliabide bat

ezagutzea ahalbidetu da, IZ-ren metodologia, bakoitzaren motxilan ezagutza eta tresna kopurua handiagotuz.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Aucouturier, Bernad (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz*. Barcelona: Graó. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=GFiQ05tMY0EC&oi=fnd&pg=PA15&dq=aucouturier+2004+Los+fantasmas+de+acci%C3%B3n+y+la+pr%C3%A1ctica+psicomotriz&ots=eXAOE7bN8Q&sig=ImMBSqr5hIPuT63OhMYc8-VSnWM#v=onepage&q=aucouturier%202004%20Los%20fantasmas%20de%20acci%C3%B3n%20y%20la%20pr%C3%A1ctica%20psicomotriz&f=false>
- Aps Aprentatze Servei: Asociación Centro Promotor de Aprendizaje Servicio 2019. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aprenentatgeservei.cat/que-es-laps/>
- Arroyo González, María José (2013). La Educación Intercultural: un camino hacia la inclusión educativa. *Revista de Educación Inclusiva*, 6 (2), 144-159.
- Bantulà Janot, Jaume, Mora Verdeny, Josep Maria (2002). *Juegos Multiculturales: 225 Juegos tradicionales para un mundo global*. Barcelona: Paidotribo.
- Barquín, Amelia; López Armendáriz, Jon; Ibarra Bustinza, Joseba; Barnes, Julia; Perez, Karnele; Aguilar, Tusta eta Ruiz de Lobera, Mariana; Coelho, Elizabeth. (2006). Kulturartekotasuna eskolan. *Jakingarriak*, 58.
- Battle, Roser (2013). ¿Qué es el aprendizaje servicio y por qué nos interesa?. *Monográficos Escuela*, 26, 4-5. Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://roserbattle.net/wp-content/uploads/2014/10/monografico-aps-periodico-escuela-2013.pdf>
- Camps, Cori; García Olalla, Lola (2004). La formación personal del psicomotricista como proceso de cambio y transformación. *Entre Líneas*, 16, 7-20. Honako webgune honetatik berreskuratua: [http://app-psicomotricistas.net/articles/EL16\\_07-20.pdf](http://app-psicomotricistas.net/articles/EL16_07-20.pdf)
- Carbonell, Francesc (1999). Desigualdad social, diversidad cultural y educación. In Eliseo Aja (koord.). *En La inmigración extranjera en España: los retos educativos* (99-118 orr.). Barcelona: Fundación "la Caixa".



- Gil, Pedro; Contreras, Onofre Ricardo; Gómez, Isabel (2008). Habilidades motrices en la infancia y su desarrollo desde una educación física animada. *Revista iberoamericana de educación*, 47, 71-96. Honako webgune honetatik berreskuratua: [https://www.researchgate.net/publication/28230812\\_Habilidades\\_motrices\\_en\\_la\\_infancia\\_y\\_su\\_desarrollo\\_desde\\_una\\_educacion\\_fisica\\_animada](https://www.researchgate.net/publication/28230812_Habilidades_motrices_en_la_infancia_y_su_desarrollo_desde_una_educacion_fisica_animada)
- Johnson, David W.; Johnson, Roger T.; Holubec, Edythe J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Barcelona: Paidós.
- Jordan, Jose Antonio (1996). La interculturalidad en la escuela. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 25, 71-84. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=117894>
- Lleixà, Teresa. (2017). Didáctica de la Educación Física: Nuevos temas, nuevos contextos. *Didacticae*, 2, 2-5.
- Martínez, Miquel eta Puig, Josep M. (2011). Aprenentatge-servei: de l'Escola Nova a l'educació d'avui. *Temps d'Educació*, 41, 11-24. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.cuadernosdepedagogia.com/content/Documento.aspx?params=H4slIAAA AAAAEAMtMSbF1CTEAAiNjcxMTM7WY1KLizPw8WYMDQzMDSyNDkEBmWqVLfnJ IZUGqbVpiTnGqWmJScX5OaUlqaFGmbUhRaSoAlwNlakYAAAA=WKE>
- Opazo, Hector. (2015). *Experiencias de aprendizaje-servicio en la formación del profesorado. Un estudio de caso*. (Tesi doctoral). Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.
- Puig Rovira, Josep M. (koord.); De la Cerda Toledo, Maribel; Gijón Casares, Mónica; Martín García, Xus; Graell Martín, Mariona; Palos Rodríguez, Josep; Muñoz García, Àlex; Trilla Bernet, Jaume; Rubio Serrano, Laura; Bosch Vila, Carme; Batlle Suñer, Roser eta Climent Castelló, M. Teresa. (2009). *Aprendizaje servicio (ApS): Educación y compromiso cívico*. Barcelona: GRAÓ.
- ¿Qué es el APS? PREMIOS Aprendizaje y servicio. Kontsultatuta: 2019ko urriaren 12an. In: <https://aprendizajeservicio.com/que-es-el-aps/>
- Rios Hernández, Merche (2009). "La inclusión en el área de educación física en España. Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la educación física y el deporte*, 9, 83-114. Honako webgune honetatik bereskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2900340>

Sales Ciges, Auxiliadora (2012). La formación intercultural del profesorado: estrategias para un proceso de investigación-acción. *Educatio siglo XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 30 (1), 113-132.

Sánchez Rodríguez, Josefina; Llorca Llinares, Miguel (2008). El rol del psicomotrista. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 22 (2), 35-60. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/274/27414780004.pdf>

Uruñuela Nájera, Pedro; Teijeira Bautista, Eloísa; Puig Rovira, Josep M.; Mendía Gallardo, Rafael; eta Cruz Mora, Mar. (2016). Aprendizaje-servicio y convivencia. *Revista Convives*, 16, 3. Kontsultatuta: 2019ko urriaren 12an. In: <http://convivesenlaescuela.blogspot.com/2016/12/revista-convives-n-16-aprendizaje.html>

Uruñuela Nájera, Pedro. (2013). El Aprendizaje-Servicio, un método para la EpC y los derechos humanos. *Monográficos Escuela*, Madrid. (3 orr.).

---

## 9.ERANSKINAK.

1. Eranskina:

**Izen-abizenak:** Ianire Makinai Milan

<b>Izenburua</b>	Ikaskuntza-Zerbitzua eta Jarduera Motorra Kulturartekotasunean
<b>Eskola / Erakundea</b>	Aranbizkarra ikastola
<b>Zerbitzuaren helburua(k)</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Elkarbizitza sustatzea elkarlanean arituz.</li><li>• Jolas kooperatiboen bidez ikasleen arteko harremana sendotu, bata bestearekin lan egiten eta jolasten ikasiz.</li><li>• Kultura ezberdinei lekua eman, munduko zonalde ezberdinetako tradiziozko jolas ezberdinak erabiliz.</li><li>• Ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta egoera errespetatzea.</li><li>• Guztien parte-hartzea sustatzea, talde sentsazioa sendotuz.</li></ul>	
<b>Ekintzak</b>	
Helburua lortzeko egin beharreko ekintzen ezaugarri zehatzak. <ul style="list-style-type: none"><li>• Zerbitzua prestatzeko.</li><li>• Sarrera eskolan/erakundeetan eta taldean.</li><li>• Zerbitzua martxan dagoen bitartean.</li><li>• Itxiera.</li></ul>	
Deskribapena: azpi-helburua, jarraibideak/pausoak, baliabideak (denbora, materialak...).	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Zerbitzua prestatzeko:</b> Ume kopurua kontuan eduki, jolasak kooperazioa lantzeko moldatu edo lehiakorrek diren jolasak eraldatu kooperatiboak izatera heltzeko. Taldea ezagutu ondoren, zerbait gehiago moldatzea beharrezkoa bada hurrengo saiorako, hori moldatu. Materialak zeintzuk diren erabaki eta eskolara joaten hauek prestatu.</li><li>• <b>Sarrera eskolan eta taldean:</b> Buruaren aurkezpena, jolas-kooperatiboak egitera gatozela azaldu, baita honek suposatuko duena ere (elkarrekin lan egin eta jolastu, elkarrekin konponbideak bilatu eta abar).</li><li>• <b>Zerbitzua martxan dagoen bitartean:</b> Jolasak eta horien arauak azaldu eta</li></ul>	

beharrezkoa denean gogoratu (beharrezkoa bada, galderak egin ulertu duten zihurtatzeko). Arazoren bat gertatuz gero, esku-hartu eta arazoa konponbiderantz bideratu. Oharrak hartzen joan, ikusten edota gertatzen ari denaz.

- **Itxiera:** Abisua ematea saioa amaitzera doala (denborak abisatzea garrantzizkoa da). Ikasleei borobilean jartzea eskatzea eta bakoitzari iruditu zaiona azaltzea libreki (balorazio bat egitea). Saioa nola joan den komentatzea (baita arazoren bat gertatu bada ere). Ondo eginez gero, zoriondu eta agurtu. Txaketak eta zapatilak jantzi eta talde aldaketa egin.

## Kronograma

Ekintzen egutegia.

Data / Denbora-tartea	Ekintza
Otsailak 5, 1h	“Gato come o rato” eta “Sasa Kuru”
Otsailak 12, 1h	“Fus ifsús” eta “Itik erhák”
Otsailak 19, 1h	“Maleua” eta “Giant’s House”
Otsailak 26, 1h	“Snake” eta “Ajutatut”
Martxoak 4, 1h	“Muk” eta “Uhl-ta”
Martxoak 11, 1h	“Hong-Lui-Ten” eta “Dragons tail”
Martxoak 18, 1h	“Alla Frutta” eta “Czar and peasants”

## Dokumentazioa

Informazioa nola jasoko duzu?

Egunerokoa; Momentuko oharrak. Umeen balorazioa. \*(bideo eta argazkiak ahal badira)\*

2.Eranskina:

**AFRIKA:**

**“Gato come o rato”: (Angola)**

Jolas honetan bi pertsonaia nagusi izango ditugu, katua eta xagua. Xagua kideek eginiko borobil baten barruan egongo da eta katua, aldiz, borobilaren kanpoan. Katua xagua harrapatzen saiatu behar da borobileko kideek hau sartzea ekiditen saiatzen diren bitartean. Borobileko kideek xagua arriskuan dagoela ikusten badute “Gato come o rato” edo “katuak xagua jaten du” altuan esango dute, xagua abisatu nahian. Xagua eta katuaren papera aldatzen joango da partaideen artean, edota, jolasa zailtzea bilatzen bada, bi katu izendatu daitezke.

Gomendatutako adina: 3-8 urte.

Antolaketa: Zutik, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 5 minutu.

**“Sasa Kuru”: (Burkina Faso)**

Jolas honetan hiruko taldeak egin behar dira. Hiru pertsona hauek elkarri bizkarra ematen jarri behar dira, beraien artean besoak lotuz. Taldekide bakoitza hanka batean bakarrik ibiliko da eta hiruen artean, antolakuntza, kooperazio eta laguntzaren bitartez 7 metrora egongo den helmuga batera heldu behar dira erori gabe. Hasieran, hiruko multzo bakoitzak beren erritmora egin dezakete ariketa helmugara talde guztiak heltzeko asmoarekin, hala ere, taldeen arteko lasterketak egitea posiblea da, betiere, talde barruko kooperazioa bultzatuz.

Helmugaren distantzia moldatu edo aldatu egin daiteke, baita taldeen osaketa ere (gogoratu beharra dago, kulturartekotasuna bultzatu nahi dugula, beraz, ahalik eta anitzena izan taldea, orduan eta hobeto).

Gomendatutako adina: 8-12 urte.

Antolaketa: Librea.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 3 minutu.

**“Fus ifsús”: (Marruecos)**

Jolas honetan, partehartzaileak borobil batean eseriko dira, bata bestearengandik distantzia bat utzita. Hezitzaileak seinale bat egin ondoren parte hartzaileak besoak aurrera eramango dituzte. Hezitzaileak (begiratu gabe) hiru arte kontatuko du eta partehartzaileek eskuaren goikaldea (esku-gaina) edo bekaldea (esku-ahurra) erakustea aukeratuko dute. Hezitzaileak orduan esku-gain ala esku-ahur aukeratuko du. Aipatutakoa aukeratu duten pertsonak,

gainontzeko taldekideak harrapatzen saiatuko dira (zeintzuk, korrika alde egingo duten) elkarri oratuta dauden bitartean.

Gomendatutako adina: 6-12 urte.

Antolaketa: Eserita, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: Partaide guztiak harrapatuak izan arte (gehienez 10 minutu).

#### **“Itík erhák”: (Marruecos)**

Jolas honetarako kopuru bereko bi talde (bost-eko edo sei-ko taldeak) sortu behar dira, bat harrapatzaileak eta, bestea, iheslariak. Harrapatzaileak beste taldeko kideak harrapatzen saiatu behar dira, baina bat harrapatzerakoan, horietako lauk iheslaria “eskoltatu” beharko dute lehenagotik adostutako leku bateraino. Iheslariak harrapatua izandakoan ez du erresistentziarik jarriko, baina erne egon beharko da, bere taldekideak bera ukitzen saiatuko direlako askatzeko asmoz. Harrapatzaileak, harrapatua “eskoltatzen” duten bitartean, elkarri oratuta joango dira, eta gainontzeko iheslariak hau askatzea ekiditen saiatuko dira, beti ere eskuak erabili gabe. Jolasa amaitutzat emango da iheslari guztiak harrapatuta daudenean.

Gomendatutako adina: 6-12 urte.

Antolaketa: Libre.

Beharrezko materiala: Petoak edo taldeak ezberdintzeko zerbit.

Bataz besteko denbora: Iheslari guztiak harrapatuak izan arte (15 minutu inguru).

#### **“Maleua”: (Mozambique)**

Jolas honetan bi talde egin behar dira eta inguru laukizuzen baten bi aldetan jarriko dira. Laukizuzen inguruaren erdian talde bakoitzeko partaide bat jarriko da eta hauen begiak estaliko dira zapi batekin. Orduan, hezitzaileak laukizuzenaren bi puntu ezberdinetan kono batek oratutako makil bat jarriko du zutik (gure kasuan koltxoneta bat, kono formaduna bada hobeto) eta “itsututako” bi partaideei makilatxo bat (gure kasuan txurro antzeko bat) emango zaie bakoitzari. Hezitzaileak “itsuak” desorientatuko ditu buelta pare bat emanaz, eta seinalea ematerakoan, gainontzeko taldekideek, bere taldeko “itsuari” pausoak esaten joango dira (bero-bero, hotz-hotz...) honek zutik dagoen koltxoneta eskuan duen txurroarekin jo arte eta hau lurrera bota arte. Txanda beste taldekide bati pasatuko zaio, guztiek parte-hartu ahal izateko.

Gomendatutako adina: 6-12 urte.

Antolaketa: Bi ilara, laukizuzen inguruaren kontrako alde bakoiztean.

Beharrezko materiala: Bi kono, zutik egongo diren bi makil, partaideek izango dituzten bi makilatxo eta bi zapi. Gure kasuan, kono eta makilak beharrezkoak, koltxonetak eta txurroak.

Bataz besteko denbora: 15 minutu.

#### **“Giant’s House” (Erraldoiaren etxea): (Tanzania)**

Jolas honetan partaide guztien artean bat aukeratzen da jolasa zuzentzeko. Gainontzeko partaideak binaka jarriko dira zuzentzailearen inguruan. Bikote bakoitzak iskina bat adostuko du beraien “eszenatoki” bihurtzeko. Zuzendariaren inguruan daudela, hari galdetu beharko diote: “Joan erraldoiaren etxera eta esan zer ikusten duzun”. Orduan, zuzendariak zerbaiten izena esango du (sugea, aulkia, ...) eta bikote bakoitza bere “eszenatokira” joango da zuzendariak esandakoaren errepresentazioa egiteko. Errepresentazio “onena” egiten duen bikoteko kide bat zuzendari bihurtuko da (bikoteko kidea zuzendariak aukeratu dezake edo “harri, artazi, orri”-aren bitartez).

Gomendatutako adina: 6-10 urte.

Antolaketa: Zutik, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 10 minutu.

#### **“Snake” (sugea): (Zambia)**

Jolas honetan hiruko taldeak egingo dira, taldekide bakoitza lurrian eseriko da eta bere taldekidearen atzean edo aurrean eseriko da, aurrekoaren gerrira oratuz, suge bat eratzten dutelarik. Zuzendari bat egongo da, zein, gazela bat izango den. “Gazela” hau jolas-toki eremuaren barruan egongo da beste taldekideekin (sugeekin) batera. Talde bakoitza (sugeak) arrastaka joan beharko da jolastoki eremutik taldearen barnean adostutako eta sinkronizatutako mugimenduetan aurreratuz (eskuak erabili gabe) zuzendaria (gazela) dagoen tokira heldu nahian. Zuzendaria (gazela), gainera, espaziotik poliki-poliki mugitzeko aukera izango du, jolasaren zailtasun maila igoz.

Gomendatutako adina: 8-12 urte.

Antolaketa: eserita, ilaran.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 5 minutu.

### **AMERIKA:**

#### **“Ajutatut”: (Canadá)**

Jolas honetan parte-hartzaileak borobil batean kokatuko dira, beraien beso bat atzean utziz, eta bestea aurrean. Parte-hartzaile batek pilota jokoan jarriko du ondokoari pasatuz, horrela buelta oso bat eman arte pilota erori gabe.

Gomendatutako adina: 6-10 urte.

Antolaketa: Zutik, borobilean.

Beharrezko materiala: Pilota bigun bat.

Bataz besteko denbora: 5 minutu.

#### **“Muk” (Silencio): (Canadá)**

Jolas honetan umeak borobilean eseri beharko dira eta erdian jarriko den pertsona bat aukeratuko dute. Erdiko pertsonak borobileko pertsona bat seinalatuko du, honek “muk” esan beharko du eta aurpegi ahalik eta serioen jarri. Erdikoak espresio eta gestuen bitartez, seinalatutako pertsona barreazten saiatu beharko da. Hau lortzen badu, paperak aldatzen dira. Umeak aurrez aurre jartzeko, momentu on bat pasatzeko eta konplizitatea eta gertutasuna lortzeko joko apropos bat da.

Gomendatutako adina: 3-8 urte.

Antolaketa: Eserita, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 10 minutu.

#### **“Uhi-ta”: (EE UU)**

Jolas honetan parte-hartzaileak bi taldetan banatzen dira, eta talde bakoitza eskuetatik oratuta egon beharko da. Hasiera puntu batetik hasiko dira bi taldeak helmuga batera joateko. Helmuga punturara heltzeko, zuzen joan beharrean, borobilean bueltak ematen joan beharko dira, taldekiderik erori gabe eta eskurik soltatu gabe. Beraz, estrategiaren bat bilatu beharko dute ahalik eta azkarren heltzeko, erratu gabe. Erratu ezker, hasiera puntura itzuli beharko da taldea. Zirkuituak ere egin daitezke bide zuzena ez izateko. Zailtasuna igo nahi bada, taldearen kideak alderantziz jarri ahaliko dira, batzuk borobilaren barrualdera begiratzuz eta besteak kanpoalderantz.

Gomendatutako adina: 6-12 urte.

Antolaketa: Zutik, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 5 minutu.

#### **ASIA:**

##### **“Hong-Lui-Ten”: (China)**

Jolas honetan bi rol ezberdinduko dira, harrapalaria eta iheslariak. Iheslariak markatutako inguruan zehar korrika egongo dira (zuzendariak zehaztu dezake nola egongo diren korrika egiten: kanpora eta barrurantz, zig-zag eginez, eskumarantz bueltaka, noranzkoa aldatuz...) eta harrapalaria puntu batean zutik mantenduko da begiak itxita. Harrapalariak “gorria” esango



du eta gainontzeko jokalariai hau entzutean, geldik mantendu beharko dira dauden lekuan. Orduan, harrapalariai 3 pauso emango du iheslari batenganatz, hau ukitu nahian. Hau ukituz gero, biak harrapalariai izango dira.

Harrapalariaiek "berdea" esango dute iheslariak korrika berriro hasteko. "Horia" esanez gero, iheslariak hanka baten gainean saltoka eginez ibiliko dira. Jolasa, iheslari guztiak harrapatuak direnean amaituko da. Harrapalariaiek beraien artean hitz egin eta adostu beharko dute norengana joan behar diren (hura harrapatu ahal izateko). "gorria", "berdea" eta "horia" lehendabiziko zuzendariak soilik esango du, hala ere, begiak itxita mantendu beharko dute harrapalari guztiak iheslariak bueltaka dauden bitartean (tranparik ez egiteko).

Gomendatutako adina: 6-10 urte.

Antolaketa: Librea, zutik, espazioan zehar.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 5-10 minutu.

#### **"Dragons tail": (India)**

Parte-hartzaileak zutik eta ilaran antolatuko dira, bata besteari sorbaldeetatik oratuz ("trena" izango balira bezala). Aurrekoa erensugearen burua izango da eta atzealdekoa erensugearen buztana, gainontzeko jokalariai, aldiz, erensugearen gorputza edo enborra. Erensugea ingurutik mugitzen joango da, ez oso bizkor. Zuzendariak, momentu batean, abisu bat emango du (txalo bat, hitz bat,...) eta "buruak" "buztana" harrapatzen saiatuko da. Bitartean, "gorputza" osatzen duten jokalariai mugitzen joango dira hau gertatu ez dadin saiatuz eta katea ez apurtuz. Lehenak azkena harrapatuz gero, buztan bihurtuko da, eta "buruaren" ondoren zegoena lehena bihurtuko da.

Gomendatutako adina: 6-12 urte.

Antolaketa: Zutik, ilaran.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 10 minutu.

## **EUROPA:**

### **“Alla Frutta”: (Italia)**

Jokalariak bat izan ezik borobilean kokatuko dira eskutik helduta. Borobiletik kanpo gelditzen dena fruta-jalea izango da eta borobilean daudenak fruta ezberdinak. Borobileko jokalaria bakoitzak fruta baten izena hartuko du (borobilean daudenen artean adostu beharko dute bakoitzaren izena “fruta-jalea” entzun gabe). Borobileko haurrak bueltak ematen hasiko dira eta fruta-jaleak fruta baten izena altuan esango du “gaur ..... jango dut” esanez. Borobileko jokalaria batek fruta horren izena badu, altuan “ni naiz” esango du. Orduan, fruta-jalea hau harrapatzen saiatuko da, borobileko gainontzeko jokalariak bueltak ematen dauden bitartean fruta hori babestu nahian.

Borobileko ikasleak bueltak alde batera ala bestera emateko aukera izango dute fruta harrapatu ez dezaten. Zailtasun maila igo nahi bada, bi fruta-jale izendatu ahalko dira eta bien artean adostu beharko dute zein fruta jan nahiko duten.

Gomendatutako adina: 8-12 urte.

Antolaketa: Zutik, borobilean.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 5-10 minutu.

### **“Czar and peasants” (“el zar y los campesinos”): (Rusia)**

Zozketa bati esker, harrapalari bat aukeratuko da, zein, alkatea izango den, gainontzeko jokalariak herritarrek izanik. Herritarrek, beraien artean, lanbide bat aukeratu beharko dute (mediku, garbitzaile, irakasle, okin, harakin....). Aukeratzekoan (minutu eta erdi bat izango dute hau aukeratzeko), alkatearengana gerturatuko dira 5 metroko distantzia bat utziz eta guztiak batera, lanbidea mimikaren bidez errepresentatzen saiatuko dira. Alkateak altuan esan beharko du zein lanbide den, hau asmatzen badu, herritarrek elkarrerri helduta (eskutik) korrika hasiko dira lehenagotik adostutako marra batera heldu arte.

Marrara heldu baino lehen alkateak herritarren bat harrapatu badu, biak alkate bihurtuko dira eta jolasa berriro hasiko da (gehienez bi alkate egongo dira, beraz, bi alkate egonda, herritarren bat harrapatzen badute, harrapatutakoa alkate bilakatuko da, eta lehenagotik zegoen alkatea herritar bilakatuko da).

Gomendatutako adina: 6-10 urte.

Antolaketa: Zutik, libreki.

Beharrezko materiala: Ez dago materialik.

Bataz besteko denbora: 10 minutu.

3.Eranskina:

## APS JARDUEREN PROGRAMAZIOA

HH 5 → 20 ume → 10 txandako.

HH 4 → 24 ume → 12 txandako.

<b>Otsailak 4:</b>	5 "A" (13:45-14:20) 5 "B" (14:20-14:55)	"Sasa Kuru" **"Muk"**
<b>Otsailak 11:</b>	4 "A" (13:45-14:20) 4 "B" (14:20-14:55)	"Gato come o rato" **"Muk"**
<b>Otsailak 18:</b>	5 "A" (13:45-14:20) 5 "B" (14:20-14:55)	"Maleua" **"Muk"**
<b>Otsailak 25:</b>	4 "A" (13:45-14:20) 4 "B" (14:20-14:55)	"Snake" **"Muk"**
<b>Martxoak 3:</b>	5 "A" (13:45-14:20) 5 "B" (14:20-14:55)	"Dragons Tail" **"Muk"**
<b>Martxoak 10:</b>	4 "A" (13:45-14:20) 4 "B" (14:20-14:55)	"Uhi-ta" **"Muk"**

\***Muk**\*: Denbora soberan badugu egin daitekeen jolasa (denbora gutxi irauten du).

### DENBORA KUDEAKETA:

35 minutu (taldeko) →

- Azalpena 5 minutu → jolasa 15' → ebaluaketa 10' → aldaketa 5'

**edo**

- Azalpena 10 minutu → jolasa 10' → ebaluaketa 10' → aldaketa 5'

### TXANDA ALDAKETAK:

- Eguraldi onarekin: kolunpioetan.

edo

- Euriarekin: Teresa bitartekari gisa (beste psiko-gelan egongo dira umeak).

## **JOLASEN AZALPENA:**

### **AFRIKA:**

#### **1. Sasa Kuru: (Burkina Faso)**

Jolas honetan hiruko taldeak egin behar dira. Hiru pertsona hauek elkarri bizkarra ematen jarri behar dira, beraien artean besoak lotuz. Taldekide bakoitza hanka batean bakarrik ibiliko da eta hiruen artean, antolakuntza, kooperazio eta laguntzaren bitartez 7 metro ingurura egongo den helmuga batera heldu behar dira erori gabe (inguruari buelta oso bat ematea ere bila daiteke, espazioa oso handia ez bada).

Hasieran, hiruko multzo bakoitzak beren erritmora egin dezakete ariketa helmugara talde guztiak heltzeko asmoarekin, hala ere, taldeen arteko lasterketak egitea posiblea da, betiere, talde barruko kooperazioa bultzatuz.

Helmugaren distantzia moldatu edo aldatu egin daiteke, baita taldeen osaketa ere (gogoratu beharra dago, kulturartekotasuna bultzatu nahi dugula, beraz, ahalik eta anitzena izan taldea, orduan eta hobeto).

##### 1.1. Antolaketa: Librea.

#### **2. “Gato come o rato”: (Angola)**

Jolas honetan bi pertsonaia nagusi izango ditugu, katua eta xagua. Xagua kideek eginiko borobil baten barruan egongo da eta katua, aldiz, borobilaren kanpoan. Katua xagua harrapatzen saiatu behar da borobileko kideek hau sartzea ekiditen saiatzen diren bitartean. Borobileko kideek xagua arriskuan dagoela ikusten badute “Gato come o rato” edo “katuak xagua jaten du” altuan esango dute, xagua abisatu nahian.

Xagua eta katuaren papera aldatzen joango da partaideen artean, edota, jolasa zailtzea bilatzen bada, bi katu izendatu daitezke.

##### 2.1. Antolaketa: Zutik, borobilean.

### 3. Maleua: (Mozambique)

Jolas honetan bi talde egin behar dira eta inguru laukizuzen baten bi aldetan jarriko dira. Laukizuzen inguruaren erdian talde bakoitzeko partaide bat jarriko da eta hauen begiak estaliko dira zapi batekin. Orduan, hezitzaileak laukizuzenaren bi puntu ezberdinetan kono batek oratutako makil bat (gure kasuan koltxoneta bat) jarriko du zutik eta “itsututako” bi partaideei makilatxo bat (txurro bat) emango zaie bakoitzari. Hezitzaileak “itsuak” desorientatuko ditu buelta pare bat emanaz, eta seinalea ematerakoan, gainontzeko taldekideek, bere taldeko “itsuari” pausoak esaten joango dira (bero-bero, hotz-hotz...) honek zutik dagoen koltxonetari eskuan duen txurroarekin jo arte eta hau lurrera bota arte.

Txanda beste taldekide bati pasatuko zaio, guztiek parte-hartu ahal izateko.

3. 1. Antolaketa: Bi ilara, laukizuzen inguruaren kontrako alde bakoiztean.

3.2. Beharrezko materiala: Bi kono, zutik egongo diren bi makil, partaideek izango dituzten bi makilatxo eta bi zapi. → Psikogelan ikusi ahal izan genuen txurro batzuk, hori erabili ahal daiteke eta/edo bota beharrekoa makila izan beharrean, arresiko koltxoneta bat.

### 6. “Snake” (sugea): (Zambia)

Jolas honetan hiruko taldeak egingo dira, taldekide bakoitza lurrean eseriko da eta bere taldekidearen atzean edo aurrean eseriko da, aurrekoaren gerrira oratuz, suge bat eratzen dutelarik. Zuzendari bat egongo da, zein, gazela bat izango den. “Gazela” hau jolas-toki eremuaren barruan egongo da beste taldekideekin (sugeekin) batera.

Talde bakoitza (sugeak) arrastaka joan beharko da jolastoki eremutik taldearen barnean adostutako eta sinkronizatutako mugimenduarekin aurreratuz (eskuak erabili gabe) zuzendaria (gazela) dagoen tokira heldu nahian.

Zuzendaria (gazela), gainera, espaziotik poliki-poliki mugitzeko aukera izango du, jolasaren zailtasun maila igoz.

6.1. Antolaketa: eserita, ilaran.

## **AMERIKA:**

### **\*\*\*\* Muk (Silencio): (Canadá)\*\*\*\* (KOMODINA)**

Jolas honetan umeak borobilean eseri beharko dira eta erdian jarriko den pertsona bat aukeratuko dute. Erdiko pertsonak borobileko pertsona bat seinalatuko du, honek “muk” esan beharko du eta aurpegi ahalik eta serioen jarri. Erdikoak espresio eta gestuen bitartez, seinalatutako pertsona barreazten saiatu beharko da. Hau lortzen badu, paperak aldatzen dira.

Umeak aurrez aurre jartzeko, momentu on bat pasatzeko eta konplizitatea eta gertutasuna lortzeko joko apropos bat da.

Antolaketa: Eserita, borobilean.

### **4. Uhl-ta: (EE UU)**

Jolas honetan parte-hartzaileak bi taldetan banatzen dira, eta talde bakoitza eskuetatik oratuta egon beharko da. Hasiera puntu batetik hasiko dira bi taldeak helmuga batera joateko. Helmuga puntura heltzeko, zuzen joan beharrean, borobilean bueltak ematen joan beharko dira, taldekiderik erori gabe eta eskurik soltatu gabe. Beraz, estrategiaren bat bilatu beharko dute ahalik eta azkarren heltzeko, erratu gabe. Erratu ezker, hasiera puntura itzuli beharko da taldea.

Zirkuituak ere egin daitezke bide zuzena ez izateko. Zailtasuna igo nahi bada, taldearen kideak alderantziz jarri ahalko dira, batzuk borobilaren barrualdera begiratu eta besteak kanpoalderantz.

4.1. Antolaketa: Zutik, borobilean.

## **ASIA:**

### **5. “Dragons tail”: (India)**

Parte-hartzaileak zutik eta ilaran antolatuko dira, bata besteari sorbaldetatik oratuz (“trena” izango balira bezala). Aurrekoa erensugearen burua izango da eta atzealdekoa erensugearen buztana, gainontzeko jokalaria, aldiz, erensugearen gorputza edo enborra.

Erensugea ingurutik mugitzen joango da, ez oso bizkor. Zuzendariak, momentu batean, abisu bat emango du (txalo bat, hitz bat,...) eta “buruak” “buztana” harrapatzen saiatuko da. Bitartean, “gorputza” osatzen duten jokalaria mugitzen joango dira hau gertatu ez dadin saiatuz eta katea ez apurtuz. Lehenak azkena harrapatuz gero, buztan bihurtuko da, eta “buruaren” ondoren zegoena lehen bihurtuko da.

#### 5.1. Antolaketa: Zutik, ilaran.

### **EBALUATZEKO:**

- Borobilean eseri eta galdetu zenbat gustatu zaien jokia, zer gustatu zaien gehiegai eta gutxiago, beraien ustez ondo jolastu dira elkarrekin edo arazoren bat egon da? Errepikatu nahiko luketen? Hurrengo jardueretarako prest/gogoekin? Ondo pasatu dute?
- Nola ikusi naute ni, eta taldea?
- Puntuatu jarduera, semaforo-estrategia erabiliz?? **Berdea** (oso ondo), **laranja** (ondo/nahiko), **gorria** (txarto) → txarteltxoak egin.
- Nire ebaluazioa komentatu, nire ustez nola joan da? ondo portatu dira? arazorik egon da? ondo egin dute elkarrekin lan?

### **EBALUAZIO TRESNAK:**

- Egunerokoa.
- Momentuko oharrak.
- Umeen balorazioa.
- \*(bideo eta argazkiak ahal badira)\*
- **Semaforoko koloreen fitzak.**

4.Eranskina:

## **EGUNEROKOAK**

### **1. EGUNA. 04.02.2020**

Gaurkoa jolas-kooperatiboak aurrera eraman ditudan lehenengo eguna izan da. Lehenengo aste hau Haur Hezkuntzako 5 urteko haurrekin saioa egiten hasi naiz. Nahiko urduri nengoen, ez bainekien zer/nolako haur talde tokatuko zitzaidan, hau da, zaila, erraza... Ikastolara heltzerako lehenengo momentuan ez dut ez sarrerako aterik zabalik ikusi, ezta barrura deitzeko txirrinik aurkitu ere. Beraz, ikastolaren zenbakia bilatu eta hona deitu dut atea zabaltzea eskatzeko asmoarekin, hala ere, nahiz eta hiru alditan deitu, ez dit inork hartu. Jolastokian eserita zegoen jantokiko begirale bati deitu behar izan diot eta honek zabaltzea atea hark zuen giltzekin. Ikastolara sartzea lortu dudanean, jantokiko aldera jo dut zuzenean, honen parean baitzegoen erabili beharreko "psiko-gela handia". Sartzerakoan Teresa bilatu dut nora joan behar nintzen jakiteko.

Teresak lau urteko haurrekin tokatzen zitzaidala uste zuen, baina nik azaldu diot bost urteko umeekin hasten nintzela gaurko egunean, beraientzako saioa prestatuta eta pentsatuta ekartzen bainuen. Teresak lau eta bost urteko jantokiko bi begiraleak aurkeztu dizkit, gaurkoak Markel du izena. Honek azaldu dit nahiko berandu zebiltzala gaur eta umeak mahaia uzten ari zirela, hark kanpoko aldean umeak ilara batean prestatzen hasi da. Nahiz eta 13:45 hasi behar, gaurko saioa 13:55 gutxi gorabehera hasi behar izan dugu.

Gaurko bost urteko taldeko ume kopurua 20 izan beharrean, 18 izan dira, beraz, 9ko bi talde sortu izan dugu. Umeak nirekin sartu dira psiko-gelara, Markelek ni aurkezten zioan heinean eta niri kasu egiteko eskatzen zien heinean. Psiko-gelaren barruan, lauki bat osatzen zuen banku batzuetan esertzea eskatu diet beren jertse eta txaketak zintzilik utzi dituztenean. Bertan, nire burua berriro aurkeztera abiatu nahiz eta beraien izenak ere ezagutu ahal izateko, modu dinamiko batean egitea pentsatu dut, beraien izena eta gustuko janaria zein den azaltzea eskatuz. Metodoak arrakasta izan du, umeek beraien buruari eta beren gustuen inguruan hitz egitea nahi izan dute eta ume guztiek erraz parte izan dute momentu honetan.

Hurrengoko pausoa, ni zertara netorren azaltzea izan da, kasu honetan, jolas batzuk egitera etorri naizela azaldu diet, baina jolas hauek oso ohikoak ez direla esan diet, izan ere, elkarrekin jolastuz eta lan egiten soilik ondo aterako direla azaldu diet, baita munduko leku ezberdinetako jolasak izango direla ere. Gaurko jolasa Afrikatik, Burkina Fasotik, eratorritakoa dela azaldu eta jolasaren izena esan eta denon artean altuan errepikatu dugu: "Sasa Kuru". Izen hau gero eta altuago esan dugu, azkenean izena oihukatzen amaitu dugun arte. Umeen atenzioa eta kooperazioa bilatzeko estrategia gisa erabili dut eta, esan beharra dago, jolasteko nahiak piztu direla. Momentu honetan, taldearen barruan bi ume nahasten hasi dira eta, aldi berean, nik horienganako kontrola galtzen. Beste umeak, aldiz, atenzioa mantentzen



jarraitu dute, eta momentu batzuetan, taldearen moderatzaile gisa jokatu dute, bi ume horiei isiltzeko eta esertzeko eskatuz. Hala ere, nahiz eta bere ikaskideek eta nik azaldu entzuteko momentua zela, ez dute kasu handirik egin.

Jolasa azaldu dut eta borobilean kokatu gara altxatuta. Bertan, umeak animatu eta motibatu ditut, “txoritxo batek esan dit zuek oso onak zaretela saltoak egiten, baita hanka batean saltoak egiten ere” eta antzekoak esanez. Umeak hori niri egiaztatu nahian frogak egiten hasi dira “bایی”, “begira ze ondo” eta antzekoak esanez. Lehenengo, lekuan bertan hanka batean saltorik egin gabe oreka mantentzeko eskatu diet, ondoren lekuan saltoak egiteko, gero bueltak emanez toki berean (hanka batekin saltoak emanez) eta, azkenik, borobilean eskumarantz bueltak emanez. Umeak ondo pasatzen ari zirela ikusi ostean, jolasa bete-betean egitera sartu naiz. Paretaren kontra jartzeko eskatu diet eta ni distantzia batean kokatuta nengoen lurreko marrara hanka batean salto txikian emanez heltzeko eskatu diet. Hau egin ostean kooperazioa lantzen hasi naiz, lehenengo guztiak eskuak emanez berriro prozesu bera errepikatzen eskatuz, ondoren binaka eskuak emanda (bikoitiak ez zirenez, hirukote bat osatu behar izan dut), ondoren bera, baina elkarrekin besoak gurutzatuta eta elkarlotuta, eta azkenik, elkarri oratuta baina bizkarra emanez.

Prozesuan, batzuk erori dira, beste batzuk motelago egin dute, taldekideak aldatu dira.... baina oso gustura egon dira, sarritan errepikatzea eskatu baitute. Hala ere, arazo bat egon da nahasten ari zen ume batekin, bere taldekidea bakarrik uzten ari zela korrika joaten baitzen gelako alde batetik bestera. Taldekideari hirukoteko ikaskideetako bat esleitu diot, eta nahasten ari zen umea jolastu nahi ez zuela esan du, gelatik irtenez. Hala ere, atearen ondoan gelditu da, eta nahiz eta nik animatu jolastera, bueltatzen zen momentu orotan joan egiten zen. Nik azaldu diot denbora oso urria zela, beste taldeari tokatuko zitzaiola jolastea eta orduan hark ezingo zuela jolastu. Baina ez da jolasean sartu. Baloratzeko ordua heldu da, eta umeekin batera lurrean etzan naiz elkarrei begira, erlaxazio puntu bat lortu ahal izateko. Lehenengo zer iruditu zaien galdetu diet, ondoren, eskuak altxatzea eskatu diet, asko, gutxi eta zerbait gustatu zaien jakiteko. Zein momentu izan den beraien gustukoa ere galdetu diet, “ondo eserita eta entzuten” ari ziren umei eta, amaitzeko, gelatik zauden hiru bloke hartu ditut jokoa puntuatu zezaten: gorria oso gutxi, horia “bueeno” eta berdea asko gustatu zait izanik. Umei banan-banan eskatu diet bloke bat altxatzea beraien buruen gainetik eta altuan esatea koloreak zer esan nahi zuen, hau da, “Niri asko gustatu/gutxi gustatu/buenoo zait” esanez. Guztiok berdea aukeratu dute, jolastu nahi ez zuen umea kenduta, honek gorria aukeratu baitu.

Ondoren, beste taldearekin txanda aldatu dugu. Momentu honetan, jolastea nahi ez zuen umea talde berriarekin berriro sartu da, jolastu nahian, hala ere, jantokiko begiratzailearekin batera joatea eskatu diot, dagoeneko gaurko bere txanda galdu baitu (autoritate puntu bat aurkeztu nahian egin dut, izan ere, dagoeneko denbora gutxi genuelaren

abisua eman diot eta ezin zuen gainontzeko kideek baino jolas-denbora gehiago izan, ez litzateke justua izango). Txanda aldatzean dinamika bera jarraitu dugu, izena eta gustuko janaria beharrean, izena eta gustuko animalia izan dira. Momentu horretan (bakoitzaren aurkezpenetan), konturatu izan naiz taldekideko neska batek ez zekiela euskara, izan ere, aurkezpenak euskeraz egiten ari ginela eta bere txanda tokatzen zela, honek esan dit “Yo no se hablar asi”, eta frustrazio puntu bat ikusi ahal izan zaio. Hau ikusita gazteleraz eskatu diot eta gero horren itzulpena aurkeztu. Neska lasaiago geratu da gorputz jarrera eta ikusi ahal izandako gestuari esker (gorputza-jarrera erlaxatuago bat hartu eta irribarre egin du).

Hortik aurrera euskeraz eta gazteleraz azaltzen eman dut, momenturo itzulpentxoak eginez, izan ere, ni haientzat pertsona berria izanik, umeen erosotasuna bilatzea garrantzitsua ikusten nuen hain denbora gutxiko jolasak gozatu eta denbora atsegin bat pasa ahal izateko. Talde honetan beste ume “nahasi bat” izan dut, hala ere, kasu gehiago egiten egon da, eta gainontzeko haurrek ere moderatzaile papera hartu dute momentu batzuetan.

Jolasaren dinamika berdina izan da gutxi gorabehera, baina, helmugara heltzerako momentuan, aipatutako haurrak dagoeneko prestatuta zegoen koltxonetazko harresiaren zati bat bota du, baina nik eskatu gabe, bere kabuz jasotzen hasi da. Baloratzeko momentua heltzerakoan, batzuk “ya?” eta antzekoak bota dituzte “queremos jugar otra vez”, “más” eta abar esanez. Hala ere, azaldu behar izan diet klasera bueltatzeko ordua heltzen ari zela eta beste aste batzuk genituela beste jolas batzuk egiteko, horrek lasaitu die.

Baloratzeko momentua erraza izan da, eta denak ondo baloratu dute jolasa, gainera, aipatzekoa da, kolorezko kutxak hartuta, euskeraz balorazioa botatzean, euskara ez zekien neskak, nik esandakoa primeran ahoskatu duela. Balorazio guztiak esku-txalo batekin amaitu ditugu eta elkarrei txalotuz, elkarren arteko konplizitatea bilatuz. Arazo bat suertatu da irteteko momentuan, neska bat erori da eta bekokian kolpea hartu du. Neskarengana gerturatu naiz, lasaitu dut besarkada bat eskainiz eta hau behatu dut ea zonaldea handituta zuen ikusteko. Ez zuen markarik, ezta ubeldurarik, baina hura lasaitzeko, nirekin ur hotzarekin bustitzera joatea proposatu diot eta horretara abiatu gara.

Denbora osoan bere kide bat gurekin egon da hau lasaituz (konplizitate eta erlazio ona zuela ikusi ahal izan da erraz). Ondoren, hirurak batera umeen gelara joan gara, dagoeneko gainontzeko haurrak jantokiko begiraleekin joanak baitziren. Gelara gerturatuta, umeen irakasleari gertatutakoa azaldu diot, nahiz eta ezer ez eduki, hark ere begiratu ahal izateko. Aldaketei begira, pentsatu dut lau urteko umei kolorezko bloke edo kutxak aurkeztu baino, paperaz eginiko hiru borobil eramatea semaforoko koloreekin, baina errazagoa eta bisualagoa suertatzeko, borobiletan aurpegiak margotzea ideia ona izango litzateke: gorria, aurpegi triste; laranja, aurpegi neutroa; berdea, aurpegi alaia.

Saioaren abiadurari begira, hasieran nahiko motel hasi da, lehengo eguna izanik aurkezpen bat egitea beharrezkoa ikusten bainuen, hala ere, azalpena eta jolasa hasi

dugunean, saioaren abiadura bizkortu da umeen parte-hartzearekin batera. Ez dut parte-hartzeko arazorik ikusi (nahastu diren umeak alde batera utziz, guztira 2 izan baitira) eta errepikapenerako gogoak erraz identifikatu ditut, gustuko jarduerak behin eta berriz errepikatzeko joera baitute adin honetako umeak, are gehiago sentsazioak sortarazten dituzten jarduerak izanik (saltoen sentsazioa, biren mario sentsazioa, oreka mantentzearen erronka...).

Hala ere, aipatzekoa da, saioaren denbora hain urria izanik, saioaren kalitatea nahiko gutxitzen dela, esan daiteke, denbora aproposena, 45 minutu inguru izango zirela (12 ume gehienez), jokia gehiagotan errepikatzeko, aldaketa gehiago sartzeko aukera ematen baitu, eta saioa lasaiago aurrera eramango litzateke. Beraz, esan daiteke, saioa oso motza suertatu zaidala, baita umei ere. Gainera, arazoren bat suertatzen bada, saioaren denbora asko murriztu daiteke, eta jolas-denbora oso motza izatearen arriskua dago. Taldeari begira, nahiko talde ona eta parte-hartzeko prest dagoena izan da, ez da oso zaila izan jarduera aurrera eramatea. Niri begira, aipatzekoa da, hasieran oso urduri nengoela, baina umeak jadanik nirekin zeudela, haiei ahalik eta kalitate handiagoko harreman eta saioa eskaintzea izan dut helburu, beraz, beldur eta urduritasun gutxiena izaten saiatu naiz eta gidari paperean murgiltzen saiatu naiz. Gainera, praktikaldia berriki amaituta, umeekin egoteko eta lan egiteko "txip"-a "aktibatuta" nuelaren sentsazioa izan dut, lagundu didan zerbait izanik. Lehen egun/saioa izateko ez da batere gaizki egon!

## **2. EGUNA: 11.02.2020**

Gaurko egunean Haur Hezkuntzako 4 urteko umeekin egon naizen lehen saioa izan da. Gaur, aurreko astean ez bezala, ordurako umeak prest zeuden eta akordatutako orduan saioa hasteko aukera izan dugu. Lehengoko taldearekin sartzekoan konturatu izan naiz, ume batzuk ez zutela euskara kontrolatzen edota ezagutzen, baina gestuekin txaketak eta zapatillak kentzeko eskaera ulertu izan dute. Umeekin eta nirekin batera, psiko-gelara GrAL-eko tutorea eta beste hezitzaile bat sartu dira. Azkeneko hau ikasleen arteko neskatxa batekin egon da. Antza denez, neskatxa horrek ez zuen hizkuntza ezagutzen, ez euskara (nahiz eta horren ikaskuntzan dihardu hezitzaileak euskarazko hitzak botatzen zizkiola eta), ezta gaztelera ere ez. Gainera, hezitzaile honek beste hizkuntza batean hitz batzuk esan dituelaren usteak ditut.

Lau urteko haurrekin lehen saioa izan denez, aurreko saioan bezala, nire aurkezpena egin dut eta gustuko animalia bat aipatu dut, gainontzekoei berdina eskatuz. Nahiz eta batzuk gaztelera erantzun, beste umeetako askok animalia izena euskeraz esan didate. Aurkezpenekin geundela, ikasleetako bi haur nahasten hasi dira, gelatik korrika eginez, zutik jartzen, lurrera jaisten, bien artean harrapaketa ibiliz.... nahiz eta hauei esertzeko eta isilik egoteko eskatu, nahi dutena egiten egon dira. Honek biak gainontzeko ikasleen atentzia bereganatzen egon dira, eta ez didate kasu handirik egin.

Horretan geundela, eta egoera kontuan izanik, tutoreak aholkatu dit korrika egiten ustea pare bat minututan, gero berriro eseriko direnaren baldintzarekin. Umeak korrika egin dute eta berriro esertzeko eskatzean, hasiera batean kasu egin dute, baina aipatutako bi ikasleak berriro korrika hasi dira.

Denbora asko ez genuela ikusita, jolasa munduko zer tokitik datorren aipatzera ekin dut, eta Afrikatik ekarritakoa zela aipatzean, umeak Afrikari buruz hitz egiten zuen abesti bat abesten eta dantzatzen hasi dira, beraz, hori moztu nahian jokoa hastera eta azaltzera joan gara borobilean antolatuz.

Jokoan bi pertsonai nagusi daudela azaldu dut, katua eta xagua, ondoren gainontzekoak xaguaren etxea zirela azaldu dut. Katu bat eta xagu bat izendatzean, umeen artean liskartxoak sortzen hasi dira, bat baino gehiago katua edo xagu izan nahi zuela aipatuz. Nahiz eta nik beraiei geroago izango direla azaltzen saiatu, posizio horretan egoten jarraitu dira pare bat ume. Bi ikasle hezitzailearekin batera gelditu dira, hizkuntza ezagutzen ez zuen ikaslea eta beste ikasle bat, zein, bloke batzuekin jolasean eman duen saioan zehar.

Jolasa martxan jartzea lortu dut, baina denbora gutxi pasata, lehen aipatutako bi ikasleak jolasetik irteten eta sartzen eman dute denboratxo bat, nahiz eta beraiei katu/xagu izatea tokatzen zitzaizenean, jolasean murgildu. Geroxeago, pare bat ume koltxonetetara joatea erabaki dute eta jolasa alde batera utzi dute. Jolasa guztiz funtzionatu duen momentu bakarra, azkenengo txandan izan da, non, ni katua bilakatu naizen eta gainontzeko umeek xagua babesten eman duten.

Baloratzeko momentuan jolastu izan duten ume gehienak egon dira, eta aurreko astean ez bezala, gaur, semaforo koloreko blokeak erabili beharrean, nik eginiko fitxa batzuk erabili ditut (horia, berdea eta gorria, aurpegi batzuen bitartez, sentimenduak aurkezten zituztenak). Horiekin batera, gustatu zaien ala ez baloratu izan dute fitxa bat aukeratuz eta horrek zer esan nahi zuen altuan esanik.

Ondoren, txanda aldaketa egiteko momentua heldu da. Umeak txaketak eta zapatilak janzten ari zirela, tutoreak aholku batzuk eman dizkit: azalpenak motzagoak izatea, mugimendu gehiago eskatzea lehengo momentutik eta jolasa beste era batean aurrera eramatea, katuen eta xaguen mugimendua txaloen bidez aurrera eramanez, horrela beraiek atenzioa lehengo momentutik eskaini beharko zuten. Beraz, aholku horiek kontuan izanik, hurrengoko taldearen bila joan naiz. Hurrengoko taldearekin, ez diot denbora gehiegi eskaini bakoitzaren aurkezpenaren momentuari, izenak esatera mugatu bainaiz. Hasiera batean, parte-hartzeko gogoekin zeudela iruditu zait, baina jokoa hastear geundela, ume batzuk koltxonetekin jolastu nahi zutela azaldu didate eta, nahiz eta nik horretarako momentua ez zela azaldu, ikasleen kopuru bat koltxonetetara joaten saiatu dira eta, nahiz eta tutoreak "erresistentzia" bat eskaini, beraiek jolas modura ulertu dute eta hara joan dira jolastera.

Nahiz eta nik hona bueltatu behar zirela azaldu, ez didate kasurik egin, beraz, hain denbora gutxi genuela kontuan izanda, gainontzekoekin jolasa hastera mugatu naiz. Hasieran, denak paretaren kontra zeudela, beren atentzioa lortu ahal izateko, eskuak gora, behera, alde batera eta abar jartzea eskatu diet, nik egiten nituen gestuak imitatuz. Honek denbora txiki horretan funtzionatu du, baina jokoa hasi den heinean, atentzio hori galtzen joan da.

Hasiera batean, tutoreak proposatutako moduan egiten saiatu nahiz, txaloekin (panderoa ez baikenuen), baina umeek ez dute oso ondo ulertu, beraz, txaloak beharrez, animalia bakoitzaren soinuekin jokatzeko pentsatu dut, hau da, katu mugitu behar zenean, katuaren soinua egingo nuen, eta xaguak mugitu behar zirenean, xaguarena. Bitartean, mugitzea tokatzen ez zitzaizkien jokalariek geldik egoteko, "stop" edota "estatua" esaten nien. Jokoa poliki-poliki aurrera joan da, eta hitz egiten eta kasurik egiten ez zidaten momentu batzuetan, beren atentzioa lortzeko, esku bat gora eta bete eskua "isiltzeko" gestua eginez jarri naiz, beraiek ni imitatzeko. Horrek beraien atentzio berreskuratzen lagundu dit, baina minutu batzuetan soilik. Minutu batzuk geroago, aldiz, ume gehienak psiko gelako harresia botatzen hasi dira, eta bertan jolasten. Taldearen atentzioa eta kontrola guztiz galdu dut eta geratzen ziren bi umeak, balorazioa egin beharrez, besteekin jolastera joateko proposatu diet.

Taldeei begira, aipatzekoa da ez dudala liderrik ikusi, baina bai influentzia handiko umeak. Hauek nahastean hasi direnean (bi taldeetan) gainontzeko gehienak berei segitzen hasi dira.

Horretaz gain, tutorearen aholkuak segituz, hurrengoko egunetan aurkezpena ez dagoela kontuan izanik, lehenengo momentutik beraien atentzioa eskatzen saiatuko nahiz eta dinamika ahalik eta azkarren hasten.

Bestalde, kontrol ezak aurreko asteko saioarekin konparatuz, frustrazio puntu bat eragin dit, nahiz eta kontuan eduki honelakorik pasa ahal zela. Hala ere, ez nekien oso ondo nola jokatu alde egiten ari ziren hurrekin, ez bainekien zein punturaino "autoritate" jarrera erakutsi, ez bainekien nolako erantzuna izango luketen.

Horrekin batera hurrengokoa ondorioztatu edo hausnartu dut: adin bakoitzarentzat hiru saio soilik izanda eta oso denbora gutxi izanik, ezinezkoa egiten zait taldea guztiz ezagutzea, beraz, ez dakit nolako estrategia edota baliabide diren talde bakoitzarentzako hoberenak, zeintzuk beraien atentzioa lortzen lagunduko didaten, eta zeintzuk galtzen. Beraz, kalitatezko saio bat eskaintzea oso zaila egiten zait. Bestalde, ondorioztatu izan dut, frustrazioa sentitzea normala dela, ez baitzait nahi bezala atera saioa, hala ere, kontuan izan beharra dut, umeak estimulu handiko inguru batean sartuta daudela, non, beti joko librean jarduten duten: psiko-gela. Beraz, etorri berria den eta ezagutzen ez duten pertsona batek, beraiek ohituta dauden eta nahi duten eran jolastea ez usteak, desafiatzeko aukera izan dute, eta horretan jardun dira momentu gehienez, desafiatzen.

Atentziora bereganatzeko estrategiei begira, hauek gehiagotan erabiltzea ideia ona izango litzatekela pentsatzen dut, eta horiekin batera, umeak poliki-poliki, jolasean barneratzen saiatu behar nahiz. Psiko-gelako harresiari begira, tentazio handiegia dela iruditzen zait, baina hori altxatuta mantendu beharra dudalaren oztopoa dut, ez baitugu denbora askorik hura botatzen uzteko, gero berriro ere altxatu beharko dudalako hurrengoko taldea etorri baino lehen eta saioa bukatzerakoan. Aproposena, nire ustez, talde bakoitzarekin ordu oso bat izatea izango litzateke, non, jolasa aurkeztea, aurrera eramatea eta balorazioa egiteaz gain, umeek libreki psiko-gelako materialekin jolastea ahalbidetuko litzatekeen. Hala ere, gure saioen egoera dela eta eta dugun denbora kontuan izanik, ezin dugu antolaketa hori aurrera eraman.

Niri begira, nahiko galdua nengoela sentitu nahiz eta bi pertsona heldu gehiago gelan edukita, zurrunago egon naizela sentitu naiz, ez naiz aurreko saioan bezala hain libre sentitu, beti presio-puntu bat eskaintzen baitu honelako saioak aurrera eramateko aditu bat ez izanik. Kontrola galtzeak nire jarrerari ez dit asko lagundu, ez nekien "galdutako" umeak berreskuratzen saiatu behin eta berriro edo gainontzeko umeetan zentratu beharra nuenik. Beraz, nahiko galduta egon naizenaren sentsazioa zan dut.

Materialari begira, pentsatu dut, koltxonetek beraien atentziora asko erakartzen dutenez, bestelako jolas batzuetan (posiblea baldin bada) horietako bloke bat erabiltzea, beraien atentziora jolas gunera erakartzeko. Horretaz gain, konturatu nahiz, nahiz eta ebidentziak lortzen saiatu (argazkiak, momentuko oharrak eta abar), hain denbora gutxi edukita, ezinezkoa suertatzen zaidala, taldetik urruntzen nahiz bakoitzean umeak nahasten eta atentziora galtzen dutelako.

### **3. EGUNA: 18.02.2020**

Gaurko egunean 5 urteko haurrekin saioa ematea tokatu zait berriz ere. Aurreko astean gertaturikoa ikusita, GrALeko tutoreak aholku bat eman zidan saioak hasterako orduan aldaketa bat egiteko: saioak arauak gogoratzearekin batera hastea. Nik hau komentatu zidanean, nahiko harriz geratu nintzen, psikogelari sartzekoan egiten den errutina garrantzitsuena izanda, ez nintzelako horretaz gogoratu. Beraz, horrekin hasi dugu gaurko saioa, umeek zapatilak eta txaketak kendu eta gero. Umeei beti bezala, saioari hasiera emateko, eserlekuan esertzeko eskatu diet, eta beren laguntza behar nuelakoan, beraiek arauak gogoratzea eskatu diet.

Beraiek esandako arauetaz gain (ezin da jo, iletik tiratu, bultzatu, hitz txarrak esan, ...), beste arau batzuk sartu ditut saioa deskontrolatu ez zedin: ezin da korrika egin korri egiteko unea ez denean, ezin da harrisia bota hori eskatzen ez bada eta ezin da koltxoneten eremura joan jolasak hori eskatzen ez bada. Umeetako batzuk koltxoneten lekura joan ez zela entzutean, aurpegi "txarra" jarri dute, nahiko argi utzi didate ez zaiela arau hura gehiegi gustatu.

eta tristura puntu bat sentitu dut, nire esku balego, denbora gehiegi eskainiko nielako eta horretan jolasteko aukera, baina gure egoerara moldatu behar gara eta ezinezkoa egiten zaigu koltxonetetan jolasteko denbora eskaintzea.

Umeei jolasaren izena esan diet eta hau errepikatu dugu altuan, aurreko egunetan bezala. Beraiei motibatzeke eta jolasarekiko interes puntu bat sortzeko, jolas nahiko arriskutsua eta ausartentzat prestatua dela esan diet. Hori entzutean harridura aurpegia jarri eta beraien artean eta altuan honelako komentarioak esaten hasi dira: “Yo soy valiente”, “pero yo soy más valiente”, “¿peligroso?”... Momentu horretan beraien atentzioa nuela konturatzean, jolasa aurrera eramango genuen gunera joan gara, jolasaren azalpentxoak emateko. Bertan leihoen kontra kokatuta zeudela, ausartentzat den jolasa dela berriro ere komentatu diet honen zergatia azaldu nahian, momentu horretan zergatik galdetzen hasi dira, ia denak batera, baina nik zergati hori azaltzeko, isiltasuna beharko nuela azaldu diet, beraien atentzioz entzun zezaten. Ez da beharrezkoa izan ezer gehiago esatea, hori entzun duten momentu berean, denak isildu baitira.

“Ausartentzat den jolasa da, leku hau (psikogela) gaur ez delako psikogela bat, oihan bat baizik, eta harresia ez da harresia bat gaur, landare pozoidunak baizik (hau bota ez zezaten)... Gainera, oihan honetan altxor bat dugu, momia baten altxor bat! (momentu honetan denak aho-zabalik zeuden) eta pertsonarik ausartena behar dugu esploratzailea izateko.” Momentu horretan ume guztiak, bai neskek, baita mutilak ere, eskua altxatzen eta niregana gerturatzen hasi dira beraien aukeratzeko eskatuz. Momentu horretan berriro beraien lekura joatea eskatu eta hitz egiten jarraitu dut “baina badakizue zergatik izan behar den hain ausarta gure esploratzailea? ez duelako ezer ere ez ikusiko... begiak tapatuta izango ditu!”. Horrek berriro harridura sustatu du umeen artean, baina hori entzutean berriro ere eskuak altxatzen eta aukeratzeko eskatzen hasi dira. “Dona-dona” egin eta ume bat aukeratu dut, zein, lehen esploratzailea izango zen. Orduan, harresia osatzen duen blokeetako bat aukeratu dut eta bere aurrean jarri dut. Bloke hori altxorra izango zela azaldu diet, eta esploratzailea hori besarkatu beharko duela azaldu dut joko irabazteko, hala ere, berak ez duenez ezer ikusiko (momentu honetan, zapi bat hartu eta erakutsi egin diet), gainontzekoek “bero-bero” edota “hotz-hotz”-ekin gidatu beharko zutela, beraien txoritxo-laguntzaileak izango baitziren.

Denek ulertu zutela ziurtatutakoan, umeari zapia begiak tapatzen jarri eta honi buelta batzuk eman diot guztiok batera hamarrerarte kontatzen ari ginen bitartean. Bueltak ematen auzatzen, “aurrera ausart hori!” esan eta joko hasi dugu. Denak parte-hartu dute laguntzeko momentuan, batzuk, gainera, altxatzen eta gerturatzen hasi dira bere ondora joateko eta pausak esateko: “por ahi no”, “date la vuelta”, “para adelante”... hasieran utzi egin diet, baina gehiegi gerturatzen hasitakoan, eserita lekutik esan behar zutela azaldu diet eta hori egin dute. Umeak ez du denbora gehiegi behar izan “altxorra” topatzeko. Ume hori poliziaren papera izatea pentsatu dut gainontzeko umeak ez altxatzeko, beraz, moderatzaile paper antzeko bat

hartu du. Horretaz gain, hurrengoko jokalaria hautatutakoan, aurreko ume horrek, blokearen posizioa aukeratu du.

Hasiera batean, jolasa makilekin egin behar zer, ume bakoitzak makila bat eskuan izanda, altxatuta (kono baten laguntzarekin) egongo litzatekeen beste makil bat jo eta lurrera bota beharko lukeen. Hala ere, nahiko arriskutsua zela pentsatu nuen eta, beraz, bloke bigunekin egitea pentsatu nuen, txurro bat eskuan izanda hau kolpatzeko. Hala ere, berriz ere, zerbait kolpatzea arriskutsua zela pentsatu nuen, nahiz eta txurroa biguna izan, horrek iskanbilak sortzeko aukerak suertatu zezakelako, beraz, blokea besarkatzea erabaki nuen. Jolasa oso ondo funtzionatu du, baita umeak motibatzeke era ere (oihanaren eta esploratzailearen kontua dela eta), denbora orotan berriro errepikatzea eskatu baitute.

Balorazio unean, borobilean eseri eta beste bloke txiki eta karratu formaduna aukeratu dut, horrekin modu dibertigarriagoan balorazioa egiteko. Balorazioa egiteko, pelikuletako indio tribu baten antzera esertzea eskatu dut, denak aurpegi serioa jarritz. Nik "indio jefe" papera hartu dut eta esku artean nuen blokea danbor gisa erabili dut. Ume bat hatzarekin seinalatu eta "jau" esanez agurtu gara eskua altxatzen dugun heinean. Erritmo puntu bat emateko, elkarrizketa baten modukoa segitu dugu, zein, beraiantzat oso dibertigarria suertatu zaien: "jau", "jau", "Tá gustau?" "bai/ez", eta eskuak txokatzen genituen.

Esan beharra dago guztiek baieztatu erantzuna eman dutela, eta berriro jolasteko eskatu dutela ere, baina lehen taldearen denbora dagoeneko bukatu zen eta zapatilak janztera joateko eskatu diet, beste taldearen txanda baitzen. Bigarren taldearekin, prozedura bera egitea erabaki dut hain ondo atera delako: zapatak eta jertsea kentzea, asanbladan arauak gogoratzea, jolas-eremura joatea, azalpen motibagarria ematea, jolastea eta balorazioa.

Dena berdin edo nahiko antzeko atera da, guztiek jolastu nahi izan dute, guztiek lagundu nahi izan dute eta berriz ere, aurreko taldearekin bezala, esertzeko eskatu behar izan diet, polizia papera esleituz jolastu izan dutenei, balorazioa egin dute era nahiko antzekoan... Hala ere, ume bat ia amaitzerakoan korrika hasi eta harresiaren zati bat bota du. Hori gertatzerakoan, guztiak beraren kontra egin dute esanez: " eh, que no puedes hacer eso, que es veneno!" (harresia landare pozoidunak zirela gogoratu) eta nik umeak isiltzeko eskaturik, blokeak bota izandako umearengana gerturatu eta lehen arauetan esandakoa gogoratu diot: ezin dira harresiko blokeak bota hori eskatu ez badut, jolasaren parte baitira, hurrengoan kontu gehiagorekin ibiltzeko. Umea baietz esan eta beste ikasleekin batera, harresia jasotzen lagundu didate.

Talde honetan ere, frustrazio aurpegia jarri dute berriz jolasteko denbora gehiago ez genuela azaldu didanean. Hala ere, denek onartu behar izan dute eta jertseak eta zapatilak janztera joan dira, beraien artean lasterketak egiten zituzten heinean (zein heltzen zen lehenago zapatilak hartzera).



Gaurko egunean, beraz, modu hobekoan hasi garela saioa pentsatzen dut, izan ere, beraien psikologo saioetan bezala, errutina gisa, arauak sartzea, atentzioa, parte-hartzea eta kokatzea lagundu egin die. Aldi berean, umeak jokoarekiko interesa sortzeko estrategiak (kontatutako istorioa, misterio puntu ematea jokoari, ausart hitza sartzea...) nahiko ondo funtzionatu izan dutela uste dut, beraz, beste saioetan aplikatu beharreko puntuak direla pentsatzen dut. Umeei begira, beraien artean laguntasuna nagusitu da, bai eserita zeudela jokalaritari pausuak ematean izan duten parte-hartzeari begira, baita lekutik altxatu eta ikaslearen ondora joan direlako hau hobeto lagundu nahian ere. Horrekin batera, ez da lider baten presentzia ikusi baina bai barre egiten dien ume baten presentzia, askotan "pailazo"-papera hartzen duena umea deitzen duguna. Honek, erortzen zela, blokearen kontra txokatzen zela eta abar egiten zuen, gainontzekoen barrea sortzeko, hala ere, denboraz gelditu behar izan dut denbora gehiegi suposatzen baitzuen honek jolastea, ez baitzen serio jokoan jolasten. Umea segituan ulertu du nik esaten ari nintzena, eta jolasa serio hartzen hasi da momentuan.

Beraien artean moderatzailearen papera ikusi izan dugu berriz ere, kasu honetan harresia botatzerakoan, eta antzekoak.

Balorazioa egiteko uneari begira, aipatzekoa da, momentu hau gero eta dinamikoagoa edota joko baten antzekoa prestatzerakoan, denen parte-hartzeko gogoak gora egin duela, beraz, berriro ere aplikatu beharreko estrategia gisa ikusi izan dut.

Nik aktiboagoa ikusi dut nire burua, baita antzerki puntu batekin ere, azkenean, jolasari misterio puntu hori emateko eta umeen artean jolasteko gogoak hazteko, piska bat aktuatzen eta dramatizatzen eman dut, baina erantzun positiboa izan duela ikusi izan da, beraz, hori ere, aplikatzen jarraitu behar den estrategia gisa ikusi izan dut. Aldi berean, saioa ain ondo aurrera zioala ikustean, nire burua gogo gehiagorekin sentitu dut, eta honek, azken finean, nire izateko eran eragina izan du, dinamikoagoa, umeekin gertuagoa eta abar egon bainaiz, lasaiago eta naturalago jardunez.

Gainera, esperientzia positiboagoa izanda, aurreko eguneko saioari begira, lasaiago eta saioak aurrera eramateko gai edota kapaz edo trebeago ikusi naiz, azken finean, ez da umeen motibazioa soilik baliagarria dena, bakoitzaren motibazio-pertsonalak ere garrantzia handia baitu, honek gainera, saio eta jardueretan eragin zuzena du eta, saio hauek, nire irakasle paperaren barruan, nire jarrerak duen garrantziaz konturatzen laguntzen ari didate.



(Aranbizkarra ikastola, psiko-gelako harresia, 2020-02-18)

#### 4. **EGUNA: 25.02.2020**

Gaurko egunean lau urteko hurrekin izan dut saioa eta kontuan izanik, beraiekin izandako aurreko saioa nahiko aldrebestua izan zela, nahiko urduri ni joan. Hala ere, lasaitasuna mantentzea erabaki nuen, urduritasunak ez baitzidan ezerezetan lagunduko, ezta saioari ere ez. Umeen lehen tandarekin sartu nintzen psiko-gelara, baita hezitzaile batekin ere, aurreko lau urteko umeekin etorri zen bezala. Talde honetan, beste gelako ume bat ekarri zuten ere (hau da, lau urteko beste taldeko ume bat), baita aurreko egunean etorri ez zen ume bat ere.

Sartzerakoan, txaketak kendu eta aulkietan eseri ziren, batzuk nik esan gabe, eta beste batzuk ni eskatuta. Esertzerakoan, dagoeneko bi umek “a las colchonetas” esanez hasi ziren, baina gertakizun hori berriz ez gertatzeko, hori moztea erabaki nuen: “ez ez, gau ez goaz koltxonetetara, gaur bakarrik hemengo eremutik ibiliko gara jolasean”.

Honekin batera, hezitzaileak ere nik esandakoa errepikatzen ibili da, eskuekin ezetzko gestua ondo markatuz, norbaitek ez baitzuen euskara ondo kontrolatzen, beraz, nik berdina egitea erabaki nuen, hurrengoko pausuetan. Izan ere, egin dugun hurrengoko gauza, arauak gogoratzea izan da, beraz, beren parte-hartzea eskatu dut, aurreko saioan bezala (5 urtekoekin egin bezala). Hasieran ez zekiten zer esan edo ez zuten ezer esan nahi, beraz, ni pentsatzeko gestua egiten egon naiz eta orduan esan dut: “mmm ni hasiko naiz orduan, mmmm... ezin da jo”.

Hori entzutean, umeak nik eskatutakoa ulertu dute eta eskuak altxatzen hasi dira beraiek ere arauen bat esan nahi baitzuten. Harritu nau zerbait esan duen lehengo pertsona euskaraz ez zekien neskata bat izana, baina asko poztu nau bere parte-hartzeko gogoak aurreko saioan baino altuagoak izatea. Horrekin batera konturatu nahiz, nahiko egina dutela errutina hau (arauak gogoratzea), dagoeneko buruz baitzekiten ikasle “berriak” barne.

Arauekin batera, hezitzaileak eta biok ezetzko gestua asko markatzen genuen eskuarekin, eta gainontzeko hurrekin hori egiten hasi ziren ere. Baita arauak mimikaren bidez

ere azaltzen araua nola zen ondo ez zekitenean, adibidez: “mm ezin tirar del ilea” eta iletik tiratzearen gestua egin, ondoren nik azalduz, “hori da, ezin dugu iletik tiratu”. Arauak bukatu ostean, egun honetan tokatzen zen jokoari sarrera egitera joan nintzen, baina, hain aztoratuta edo mugitzeko beharra zutela ikusita, beste egunerako prestatuta nuen jolas bat egitea erabaki dut, “snake” jolasa.

Horrekin hasteko eta aulkietan eserita geundela aprobetxatuz, galdera bat bota diet: “gaurko jolasaren izena “snake” da (misterio aurpegia jarriz), norbaitek daki zer den snake?”. Galdera hau bota dut, askotan, afrikar familia duten ume askok ingelera izaten dutelako etxeko hizkuntza gisa, ez da inoiz ziurtatzen jo behar honelakorik, suposizio hutsak baitira, baina ez genuen galtzen ezer hori galdetzen bagenuen, izan ere ez ditut umeak ezagutzen eta ez dakit zeintzuk diren bakoitzaren lehen hizkuntzak. Gainera, ingelerako irakaslearekin izena entzunda edukitzearen aukerak zeuden, baina ez da honela izan.

Aldiz, nire suposizioak zuzenak izan dira, izan ere, euskara ez zekien neskatxa, “dakienaren” aurpegia jarri du, hau da, “aurpegia argitu” zaio snake hitza entzutean, eta orduan, lurrera bota da hau imitatzeko eta niri azaltzeko zer esan nahi duen snake. Hori ikustean, beste bi ikaslek soinua egiten hasi dira “shhh shhh”, eta nik jarraitu dut: hori da, suge bat da snake. Eta neskatxari bostekoa eman diot. Honen ondoren, psikogelako paretara joatea eskatu diet eta ziztu bizian joan dira. Bertan zeudela, ni beraien aurrealdean kokatu naiz eta lurrean etzatea eskatu diet, nik berdina eginez ulertzen ez zuten ikasleei laguntzeko asmoz.

Lurrean etzanda geundela sugearen soinua eginez, niregana arrastaka etortzeko eskatu diet. Hasieran, batzuk ez ziren ia mugitzen, baina poliki-poliki oinen laguntzarekin batera, denak niregana etortzea lortu dute, denak zorionduz “ez da gauza erreza eta oso ondo egin duzue” bostekoak emanez. Ariketa bera hiruzpalau aldiz egin dugu, umei asko gustatu baitzaie eta berriro egiteko eskatzen ari zirelako.

Honen ondoren, binaka jartzea eskatu diet, hezitzaileak bi ume konkreturi elkarrekin jartzeko eskatzen zidan heinean. Bikoteak eratuta zeudela, bata bestaren atzean jartzea eskatu diet, aurrekoa atzekoaren hankei ondo oratuz eta atzekoak aurrekoari gerritik edo tripatik ondo oratuz. Denak prest zeudela, azaldu diet, orain suge bat izaten jarraitzen zutela, baina suge handiago bat. Beraz, ipurdiarekin arrastako eta saltotxoak emanez, niregana heldu behar zirela bikote bakoitza. Barrez inguratuta, talde guztiek horretara ekin dute, eta segituan harrapatu naute, beraz, nik beraiek egiten ari ziren modu berean, lurretik ipurdiarekin arrastaka joan naiz eremutik mugitzen, beraiek ni harrapatzen saiatzen ziren heinean.

Ondoren, berdina egiten jarraitu dugu baina 4ko eta 5eko taldeak eginez, hau da, bi suge handi sortu ditugu. Niri harrapatzen saiatzen zirenez, batzuk tranpak egiten saiatu dira, eskuak erabiliz inpultsu gehiago hartzeko, piska bat soltatuz... baina nik ondo oratzeko eskatzean, barreen artean, berriro ondo kokatzen ziren.

Gero, suge handi bat eratzea erabaki nuen, guztiok batera ilara handi bat eratuz. Oraingo honetan gehiago kostatu zitzairen, ondo oratuta egonik, nahiko zaila baitzen bizkor mugitzea, baina ez zitzairen asko axola, barrezka eta saiatzen jarraitu zuten. Bitartean, hezitzaileak haiek grabatzen edo argazkiak ateratzen egon zen, gero beste hezitzaile bati erakutsi ziona.

Jolasari amaiera emateko, denak paretaren kontra jarri ziren berriro eta nik galdera bat bota nien: badakizue zer den untxi bat? eta hau imitatzen hasi ziren. Orduan, nik esan nien, "badakizue zer jaten duen sugeak?", "ratones, plantas..." esaten hasi ziren, orduan nik esan nien: "eta untxitxoak ere". Orduan umeek harridura aurpegia jarri zuten, hare gehiago nik ondoren esan nienarekin: "orduan... zuek untxitxoak bazarete... eta ni sugea... zer gertatuko da?", denboratxo bat utzi nien beraiek hipotesiak eta usteak botatzeko, ume batek "que nos vas a comer!" esan zuen arte. Nik orduan, jolas gisa, gosea nuenaren gestua egin nuen, eta umeak urduritasun eta poztasun aurpegia jarri zuten zetorren jolasa dagoeneko ezagutzen zutelako: "harrapaketa jolasa".

Nik untxiak imitatzea eskatu nien, hau da, saltotxo txikiak ematen ia belauniko... eta ni suge lotiarena egin nuen, musikatxo bat abesten nuen bitartean. Orduan, abesteari utzi, esnatzen ari nintzenaren gestua egin eta altuan esan nien tripa ukitzen nintzen bitartean: "mmmm... ze gose naizen... untxitxo batzuk jango ditut" (ahots grabearekin), eta orduan, begiak zabaldu, "beldurrezko" aurpegia jarri eta hauek harrapatzera joaten nintzen kilimak eginez. Umeak korrika hasi ziren, barrezka, oihu eginez... eta berriro errepikatu genuen jolasa beste hiruzpalau aldiz. Ondoren, korroan eseri ginen balorazioa egiteko. Hau egin ahal izateko, aurreko asteko metodo bera erabiltzea erabaki nuen, "indioen korroa". Oso serio jarri behar zirela esan nien, haserretuta bazeuden bezala. Denak haserre egotearen aurpegia jarri zuten beso eta hankak gurutzatuta zuten bitartean. Nik azaldu nien, ni "indio-jefe" nintzela, eta beraiek, indio txikiak, erritualak ikasten ari zirenak. Bloke karratu bat hartu nuen eta nire hanka tartean jarri nuen, danbor gisa.

"Nik "Hao" esaterakoan, zuek ere esan behar didazue "hao", eskuak horrela jarriz (eskua altxatuta, aurrera begira), ulertu duzue?" (dena ahots grabearekin), baietz esaterakoan, hasi nintzen "Hao" denak niri errepikatuz, "hao"... ondoren umeetako bat seinalatu "hao" esan, berak agurra bueltatzen zidan bitartean, "te ha gustao?", "bai!" eta bostekoa eman. Horrela guztiekin, denak irrikitan zeuden beraiei agurtzeko eta berdina egiteko. Amaitzeko, denok batera, "danborrak" jotzen egon ginen, kantuan eginez ni errepikatuz. Denbora amaitu zen arte eta txanda aldaketa egin behar izan genuen arte. Ez zuten joan nahi, baina beste talde bati tokatzen zitzaiola azaldu behar izan nien.

Beste taldearekin funtzionamendu bera izan genuen. Hasieran, arauak galdetzean, bizkorrago hauek gogoratzen hasi gara, beraiek lehenengo momentutik ulertu baitidate, hala

ere, umeetako batek “hori zergatik” egiten geundela galdetu zuen, eta nik beharrezkoa zela azaldu nien, “hona etortzen zareten aldietan bezala”.

Ume bera aztoratzen hasi zen eta koltxonetetara joaten saiatu da hasiera batean, baina hau moztu nahian, azaldu nien ezin zirela hara joan, bestela ezingo zutela jolastu eta kanpora joan beharko zirela, jolasak egin gabe. Honek, ume horri ez dio grazia handirik egin, baina eseri da aulkietan, eta aurreko taldean baten bat bota genuen galdetuz, bati “ia ia” erantzunez. Hura moztzen eta gelditzen ez banuen, besteak berdina egiteko arriskua zegoen.

Snake zer zenaren galdera bera egin nuen, baina ez zuen erantzunik izan, beraz, honen soinua egitea erabaki nuen pista bat emateko asmoz, horrekin batera zer zen asmatu dute eta batek mingaina ateratzeko gestua egin du, besteak barre egiten zuten bitartean eta imitatzen zuten bitartean. Jolastera joan gara, baina honetan, sugearen gestuarekin lurra botata, niregana etortzen lortzea gehiago kostatu zaie bi edota hiru umeri. Hala ere, besteak erabiltzen zuten estrategia ikusi (oinek lagundu) eta bera egiten saiatu dira arrakasta izanik.

Suge handiagoak eratzerako momentuan, jolasa nahiko ondo joan da, baina bi umek bere kasa jolasten egoten ziren momentu batzuetan, bata besteari kilimak eginez... Hala ere, jolasten jarraitu dute besteak bezala. Suge handia sortzerakoan, behin baino gehiagotan ilara apurtu da, baina lau aldiz saiatu ondoren, eta ondo elkar oratzeko eskatu ondoren, jolasa hobera joan da.

Beraiek untxiak eta sugea izatearen unea izan da jolasaren zatirik dibertigarriena beraientzat eta barrezka eta korrika egon dira momentu osoan, berriro eta berriro jolasteko eskatuz. Ebaluaketa edo balorazioa egiteko unean, beste taldekideak bezala, gogotsu egon dira, indioarenak eginez, hare gehiago azkeneko momentuan danborrak jotzean eta abestean. Aipatzekoa da, beste aurreko saioarekin konparatuz hain ondo atera izana gaurko saioa, beraiei zoriondu diedala, guztiok guztiori txalotzen (bi taldeak).

Nire buruari begira, nahiko urduri sartu arren, saioa ahalik eta hoberen eramaten saiatu naiz. Nahiko ondo atera da, aipatzekoa da, berriz, seriotasun puntu bat edo autoritate puntu bat izan dudala talde bakoitzeko hasierako unean, saioa hankaz-gora ez jartzeko eta saioaren kontrola mantentzeko. Hala ere, seriotasun puntu hori, esan bezala, hasieran soilik izan da, izan ere, parte-hartzeko gogoak zituzten umeak eta ez da oso zaila izan gaurko saioa aurrera eramatea.

Aldi berean, umei begira, beste saio batzuetan bezala, beraien artean moderatzen egon dira momentu konkretuetan, isiltzeko eskatuz, ondo antolatzen lagunduz elkarren artean, nola jarri behar ziren elkarri azalduz... Esan daiteke, elkarren arteko kooperazioa eman dela. Konturatu izan naiz, aurreko astean bezala, baloratzeko modua jolas eran egitea gehiago gustatzen zaiela umei, ez baitaie luzeegia suertatzen eta gustura egoten direlako metodo hori egiten.

Puntu negatibo edo arazotxo gisa, aipatzekoa da, psiko-gelako leihoeak kanpotik barruan gertatzen dena ikusten uzten duten eremutxoak dituztela, eta horretatik, talde batzuetako umeek, aurreko taldeak zer egiten ari den ikusi izan dute, eta “magia” eta “misterio” puntu hori kentzen diotela jolasari. Hala ere, pertsianak jaisteko aukera izan arren, kanpoko argia erabiltzea gomendagarriena izaten da psiko-gelako eremu garbi eta aproposa izateko, beraz, hauek ez jaistea erabaki dut.

##### **5. EGUNA: 03.03.2020**

Gaurko eguna, 5 urteko haurrekin izan dudana azken saioa izan da. Beti bezala, ongi etorria egin diet eta txaketak eta zapatak kentzeko eskatu diet Ondoren, beti bezala, azalpenak emateko, aulkietan esertzea eskatu diet, nahiz eta gehiengoa, nik esan gabe, dagoeneko eserita zeuden.



(Aranbizkarra ikastola, 03/03/2020. Hasiera emateko saioari, aulkietan eta lurrean eserita, indioen agurra egiten)

Gogotsu zeudela ikusi ahal zen, izan ere, denak zeuden galdetzen gaur zer jolas egin behar genuen. “Eso de la serpiente vamos a hacer, ella dijo eso, y los de 4 hicieron eso” esan

zuen batek, izan ere, aurrekoan esan bezala, batzuetan, lehietatik ikusten zuten barruan gertatzen ari zena.

Azalpena egin baino lehen, haurrei aipatu nien egun hau zela azkena. Hori entzutean "jooo" eta honelakoak esaten hasi ziren. Honek pena eman zidan, baina gustatu izanaren seinale zela pentsatu nuen. Arauekin hasi ginen lehenengo. Beraiek esaten ari ziren jolasa snake zela azaldu nien, baina, beraiek nagusiagoak zirenez, "snake" jolastu beharrean, beste jolas bat egingo genuela esan nien, antzekoa, baina piska bat zailagoa. Zailagoa hitza entzuten, denak harridura aurpegia jarri zuten, bata bestearekin komentatuz "más difícil eh", "ala más difícil"... Beraien atentzioa lorturik, jolasaren izena esatera eta honen azalpena ematera abiatu nintzen.

Jolasa "dragon's tail" zuela izena esan eta beraien artean altuan esaten hasi ziren: "dragon ball?", "sí, será Dragon ball", "ala! yo soy un dragón", "¡furia nocturna!"...Ezetz esan eta azaldu nien ez zela ez Dragoi Bolaren ezer ezta antzekorik, baina bai zuela zerikusia erensugearekin. "Tail" hitza mimikaren bidez ulertu zuten, buztanaren mugimendua eskuarekin egiten ari baintzen. Orduan, guztion artean herensugearen buztana esan nahi zuela ulertu genuen. Jolasa azaldu nien eta jolas-eremura joan ginen.

Bertan, misterio puntua emateko, leihoen pertsianak piska bat bajatu nuen, argia sartzen utziz baina eremu ilunago bat sortuz, eta istorio batekin, testuinguru bat sortu nien: Badakizue non bizi diren erensugeak? (batzuk "erreketan", "oihanetan" eta abar esan zuten) gure erensugea kobazulo batean bizi da, Txinako kobazulo batean, horregatik ain iluna dago leku hau. Baina badakizue? hemen bizi den erensugea suzko erensugea da, labaz inguratuta bizi da, beroa gustatzen zaio, orduan... zer ez zaio gustatzen erensugeari? zerk egingo dio min? ("el frío", "los pinchos"... "el hielo") "bale, izotzak bai egiten dio min, baina zerez egina dago izotza?" "uraz, horrek egiten dio min!" "Ba, koltxonetaz egindako pareta hau (harresia seinalatu nuen) urez eginikoa da, eta koltxoneten eremua laku bat edo itsasoa da, beraz, erensugea ezin da horra joan, eta badakizue zein izango den erensugea? zuek guztiak". "¿Osea que si tocamos eso nos morimos?" batek, eta nik min egingo zirela eta orduan, deskalifikatuta geratuko zirela, "eliminados", beraz, ezin zela ukitu.

Azaldu nien erensugea kobazuloan bizi zenez, batzuetan euria egiterakoan, ez zela ateratzen janari bila, eta orduan, gose zenez, bere buztana jaten saiatzen zela. Beraiek, herensuge handi bat sortu zuten, bat burua izanik, gainontzekoak gorputza eta azken bat, buztana. Burua zena buztana jaten saiatu beharko zen, gorputzak zirenak hau ez gertatzen lagunduz, mugitzen ziren heinean. Horretarako, oso ondo lotuta egon behar ziren, bi eskuekin, eta ezin ziren soltatu.

Jokoa hasi baino lehen (hau da, buruak buztana harrapatzea), beraien artean ondo oratu behar ziren kontzeptua argi geratu zela ikusteko eta praktikan jartzeko, jolas txiki bat

egin genuen: niri segitu behar zidaten sugea egin ondoren, eta ni beraiek engainatzen saiatuko nintzen, baina, beraiek ezin zuten elkar oratzeari utzi.

Batzuetan, nik eskua gora eramatean, umeetako batzuk tranpan erortzen ziren eta beraz, deskalifikatuta bi minutu geratzen ziren, besteak ikusiz. Deskalifikatuen zenbakia edo kopurua handitzen joan zen, eta beraz, barren artean, jolastxo txikia hainbat aldiz egin genuen, oso denbora gutxi eramaten baitzuen. Umeetako batek hezitzailea behar zuela azaldu zidan jantokiko begiraleak, beraz, ez zekiela nola jardungo zuen, berria baitzen. Hala ere, nire taldean sartzea erabaki nuen, askotan, bata bestearekin kontaktuan jarritz elkarrekin jolasten hasten dira, elkar animatzen dira eta baita elkar laguntzen ere. Kasu honetan, nahiz eta jolastxo honetan pixkat kostatu hasiera batean ez soltatzea, poliki-poliki arauak harrapatzen joan zen eta besteekin batera jolasten egon zen.

Jolastxo honen arauak guztiz barnetatuta edukita, jolas nagusia egitera abiatu ginen. Hasieran, nahiko urduri zeuden buztanaren papera zutenak, baina segituan hasi ziren lasaitzen gorputza osatzen ari zen umeak elkarlaguntzen hasi zirelako. Hainbat aldiz egin genuen jolasa, denak izan nahi baitziren buru edo buztan eta gehienak pasatu ziren bi roletako batetik. Ebaluatzeko eseri ginen jolasa amaitu ondoren. Funtzionatu izan zuen bezala aurrekoetan, borobilean jarri ginen indioen jolasa egiteko, batzuk momentu hori itxaroten zeuden, gogoekin "buaaaa lo de los indios ¡SIIIII!!!". Ebaluazio horrekin batera, beste batzuetan bezala, denbora piska bat gehiago izanik, aurpegien semaforoan fitxak ere erabili genituen, erantzuna eta ebaluazioa positiboa izanik, baita aipatuz zein momentu izan zen gustukoena (bakoitzarena), erantzunak positiboak izan ziren guztiak.





(Aranbizkarra ikastola, 03/03/2020. Ebaluaketa eginez, erdiko blokea indioen danbor gisa erabiltzen nuen, eta denak indioen agurra egiten ari ziren "Hao" altuan esaten ari ziren bitartean).

Ebaluaketa egina, txaketak eta zapatilak jantzi ziren eta talde aldaketa egitera joan ginen.

Beste taldearekin prozesu bera egin genuen, baina horiek ez ziren hasi beste taldea bezala "sugearen jolasa"-ren inguruko ezer esaten, nahiz eta batzuk aurreko saioan leihotik begiratu izana. Azken eguna zela aipatzerakoan, beste taldearen bezala, penaz hartu zuten berria, baina zer egin behar guen jakiteko gogoekin zeuden, "¿Hoy que hacemos? ¿un juego peligroso?". Honek, barregura eman dit, gainera umeak egindako gestua ikusterakoan (indarra zuela erakusteko, besoko muskulua erakusten). "Yo soy valiente eh, yo quiero jugar a algo peligroso" esaten zuen batek, besteek berdina esanez. Momentu honetan pixkat deskontrolatu dira, baina esertzeko eskatu nien arauak aipatzeko eta jolasa zein izango zen esateko. Ez zuten erresistentzia handirik jarri, nik esandakoa erraz errespetatu zuten.



(aulki eta lurrean eserita, arauak gogoratzeko prest!)

Arauak gogoratuta eta jolasa aipatuta, hau jolastera abiatu ginen. Prozesu bera eta azalpen antzekoa erabili genuen. Kasu honetan, lehen bezala, hasierako jolastxoak egin genuen, eskuak ez zirela soltatu behar ulertzeko, baina talde honek, lehenago harrapatu zuen araua, eta ia lehenengo momentutik primeran egin zuten dinamika.

Kontestuan jarrita (kobazuloa, gosea, buruak buztana jan, ezin ukitu koltxonetak...), jolasari hasiera eman genion. Beste taldeak ez bezala, talde honetan, lehenago harrapatzen ziren elkar, gorputza osatzen ari ziren umeek ez baitzuten asko elkar laguntzen. Hori ikusita,

azaldu nien, gorputzak buztanari lagundu behar ziotela, bestela beraiei min egingo bazitzairen bezala izango baitzen. Hori entzunda, “ah claro, es como si me como mi pie” “ o mi mano” eta antzekoak esaten hasi ziren, eta nik arrazoia ematerakoan, jolasa berriro egiten hasi ginen. Saiakera honetan, dagoeneko, zailagoa suertatu zen buruak buztana jatea, hain azkar behintzat. Ume ugari pasa ziren rol guztietatik, gustura zeuden, barrez, batzuk, lurrera botatzen ziren, bata bestaren gainean, eta barrez lehertzen ziren.

Jolasari bukaera eman genion, eta ebaluaketa egitera abiatu ginen. Nire harridurarako, nik ea zenbat gustatu zien ikustera joan behar ginela esatean, umeak borobilean jarri ziren indioen gestua edo agurraren gestua eginez. “Ahh.. badakizue orduan zer doan orain e...” “claro, ¡lo de los indios!”.

Beti bezala, koltxoneta hartu nuen danbor gisa erabiltzeko eta denok batera aurpegi serioa jarri genuen danborraren erritmoa jarraitzen genuen bitartean. Gero, beste taldean bezala, denbora piska bat genuenez, semaforoan fitxak atera eta horrekin ebaluatzeaz gain, bakoitzaren momenturik gustukoena zein izan zen aipatu genuen.

Joan aurretik, besarkada kolektiboa eman genuen, batek ni besarkatu ninduelako eta besteak ere gerturatu zirelako. “¿Vas a venir otro día?” eta antzekoak galdetu zidaten, baina momentuz ezetza jaso behar zutela azaldu nien, baina oso ondo pasatu nuela beraiekin aipatu nien “ y yo” “ y yo también”... Esperientzia polita, berria eta beti bezala, erabilgarria izan da, non, umeekin egoteko beste aukera bat suertatu den, zein, talde berri batekin lan egiteko aukera izan den.

5.Eranskina:



("indioen borobila", koltxoneta biguna danbor gisa erdian, umeak "indioen agurra" eginez eskuarekin eta "Hao" esanez)

6.Eranskina:

**Ikastetxeetan/elkarteetan (unibertsitateko ikasleekin eta irakasleekin batera) balorazio partekatu orokor bat egiteko qidoia**

Helburua: esperientziari eta zerbitzuei buruzko balorazio bateratu bat egitea.

Landu beharreko gaiak eta galdera posibleak:

1.-Zein mailatan lortu dute unibertsitateko ikasleek GrALaren gaitasunak garatzea?

**OSO ONGI**

2.-Ezagutza teoriko-praktikoa egungo hezkuntza-errealitatearekin lotzea.

**Unibertsitateko ikasleek ,gure ikastolan agertu zirenean, ez zituzten gure ikasleak ezagutzen eta guk uste dugu beraien lana poliki -poliki moldantzen joan dela.**

3.-Hezkuntza-prozesuen berezko gatazkak ebaztea.

**Bai, orokorrean, gure ustez, nahiko ondo lortu dute.**

4.-Ezagutza berria sortzea.

**OSO ONGI**

5.- Zerbitzua eta zerbitzuko esku-hartzea:

**OSO ONGI**

6.-Arrakastatsua izan da?

**Bai. Datorren ikasturtean errepikatzeko moduan.**

7.-Ikastetxeko ikasleentzat/Elkarteko erabiltzaileentzat egokia izan da?

Bai, gure ikastolako ikasleentzat oso egokia izan da.

8.-Indarguneak eta ahuleziak.

**Honelako lanak oso onuragarriak dira ikastetxeetan, baina batzutan prestaketa eta denbora oso motzak gelditzen dira.**

9.-Zein mailatan izan daiteke lagungarri etorkizuneko irakasleen garapen profesionalerako I+Z proiektu bat?

Horrelako proiektuak **oso beharrezkoak dira** etorkizuneko irakasleentzat. Eskoletara joan baino lehen jakin behar dute zer aurkituko duten beraietan.

10.Autonomia garatzeko?

**OSO BEHARREZKOAK DIRA.**

11.-Gogoeta eta gaitasun kritikoa indartzeko?

**OSO BEHARREZKOAK DIRA.**

12.-Arazoei aurre egiteko eta erabakiak hartzeko argudio akademiko-profesionalak garatu ditzaten?

**OSO BEHARREZKOAK DIRA.**

13.-Oro har, esperientziak merezi izan du?

**Bai, bai. Esperientzia oso baliogarria eta onuragarria izan da.**

14.-Nolakoak izan dira harremanak?

**Oso onak bai, baina estuak ez. Oso denbora gutxi egon gara elkarrekin. Unibertsitateko ikasleek beraien ordutegiak betetzen zituzten baina gurekin elkartzeko oso denbora gutxi zeukaten .**

15.-Nola sentitu zarete?

**Orokorrean lasai eta pozik sentitu gara.**

16.-Onuragarria izan da?

**Bai, OSO ONURAGARRIA IZAN DA.**

17.-Esperientzia beste ikastetxeei/ikasleei gomendatuko zenikete?

**Bai noski, esperientzia hau beste ikastetxeei /ikasleei gomendatuko genieke.**

18.-Datorren ikasturtean esperientzia errepikatzea gustatuko litzaizueke?

**Ahal bada BAI, datorren ikasturtean esperientzia hau errepikatzea gustatuko litzaiguke.**

Con formato: Fuente: Negrita, Español (España)

## IKASTETXEAREN EBALUAZIOA

### **Noiz erantzun da galdetegia**

30/04/2020 18:50:36

### **Ikastegia / Erakundea / Elkartea**

Aranbizkarra ikastola

### **Jasotako Ikaslea(k)**

Ianire Makinai, Oscar eta Carmen

### **Irakaslegaiak lortu du... [...teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea?]**

NAHIKO ados

### **Irakaslegaiak lortu du... [...irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea?]**

NAHIKO ados

### **Irakaslegaiak lortu du... [...ezagutza berria sortzea?]**

GUZTIZ ados

### **Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Zuk ikusi eta entzundakoaren arabera, burututako esku-hartzea arrakastatsua izan da?]**

NAHIKO ados

### **Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Burututako esku-hartzea egokia eta eraginkorra izan da zerbitzua jaso dutenentzat (ikastetxeko ikasleentzat, erakundeko erabiltzaileentzat, elkarteko bazkideentzat...)]**

NAHIKO ados

### **Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Iruditzen zaizu horrelako ekimenekin parte hartzen dutenek (ikastetxeko ikasleek, erakundeko erabiltzaileek, elkarteko bazkideek...) euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutela?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Hobekuntza/berrikuntza proiektuak baliagarriak dira irakaslegaiarentzat eskolan garatu beharko dituzten gaitasunak hobetzeko?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiarentzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean autonomia erakusteko?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiarentzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean hausnarketa egiteko eta argudiatzeko?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiarentzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean iritzi akademiko eta profesionalak emateko?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Uste duzu irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla horrelako ekimenak?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Ikastetxerako/erakunderako/elkarterako... onuragarria izan da horrelako ekimen batean parte hartzea?]**

GUZTIZ ados

**Eskolatzeko prozesuak hobetu [Gustatuko litzazuke hurrengo urtean horrelako zerbait egitea?]**

GUZTIZ ados

**Hezkuntza Fakultateko zerbitzua jaso behar zenutela jakin zenuenenean, zer-nolako inpresioa hartu zenion gaiari? Eta ondoren, espero zenuen bezala izan da?**

Hasierako inpresioa ona iruditu zitzaigun eta bukatu ondoren, ez gara damutu, zeren emaitza onuragarria izan da.

**Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik?**

**Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?**

Zuek proposatutako ekimen hau oso aberasgarria izan da, arlo gehienetan. Gure ikastolako ikasleak ikas komunitate batean sartuta daude eta oso ohituta daude horrelako dinamika hauetan sartzen, ekintza desberdinak ikasten, agente desberdinekin egoten... Horregatik zuek ekarritako ekimena oso ondo etorri zaigu.

**Nola hobetu daiteke prozesu hau?**

Motza gelditu zaigu. Jarduerak edo ekintzak luzeagoak izan beharko lukete.

**Amaitzeko, oro har, nola baloratuko zenuke esperientzia? Adjektibo pare bat eman.**

Aberasgarria eta beharrezkoa.



7.Eranskina:

### **Esperientzia eta anekdotak:**

**Esperientziak eta anekdotak-** Azken eguna zela aipatzerakoan, beste taldearen bezala, penaz hartu zuten berria, baina zer egin behar genuen jakiteko gogoekin zeuden, “¿Hoy que hacemos? ¿un juego peligroso?”. Honek, barregura eman dit, gainera umeak egindako gestua ikusterakoan (indarra zuela erakusteko, besoko muskulua erakusten). “Yo soy valiente eh, yo quiero jugar a algo peligroso” esaten zuen batek, besteek berdina esanez. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Esperientzia eta anekdotak-** Dena berdin edo nahiko antzeko atera da, guztiak jolastu nahi izan dute, guztiak lagundu nahi izan dute eta berriz ere, aurreko taldearekin bezala, esertzeko eskatu behar izan diet, polizia papera esleituz jolastu izan dutenei, balorazioa egin dute era nahiko antzekoan... *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Esperientzia eta anekdotak-** Hasieran, batzuk ez ziren ia mugitzen, baina poliki-poliki oinen laguntzarekin batera, denak niregana etortzea lortu dute, denak zorionduz “ez da gauza erreza eta oso ondo egin duzue” bostekoak emanez. Ariketa bera hiruzpalau aldiz egin dugu, umei asko gustatu baitzaie eta berriro egiteko eskatzen ari zirelako. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Esperientzia eta anekdotak-** Ikastolara heltzerako lehenengo momentuan ez dut ez sarrerako aterik zabalik ikusi, ezta barrura deitzeko txirrinik aurkitu ere. Beraz, ikastolaren zenbakia bilatu eta hona deitu dut atea zabaltzea eskatzeko asmoarekin, hala ere, nahiz eta hiru alditan deitu, ez dit inork hartu. Jolastokian eserita zegoen jantokiko begirale bati deitu behar izan diot eta honek zabaldu dit atea hark zuen giltzekin. Ikastolara sartzea lortu dudanean, jantokiko aldera jo dut zuzenean, honen parean baitzegoen erabili beharreko “psiko-gela handia”. Sartzerakoan Teresa bilatu dut nora joan behar nintzen jakiteko. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Amaitzeko, denok batera, “danborrak” jotzen egon ginen, kantuan eginez ni errepikatuz. Denbora amaitu zen arte eta txanda aldaketa egin behar izan genuen arte. Ez zuten joan nahi, baina beste talde bati tokatzen zitzaiola azaldu behar izan nien. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Azalpena egin baino lehen, haurrei aipatu nien egun hau zela azkena. Hori entzutean “jooo” eta honelakoak esaten hasi ziren. Honek pena eman zidan, baina gustatu izanaren seinale zela pentsatu nuen. Arauekin hasi ginen lehenengo. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Azkeneko hau ikasleen arteko neskatxa batekin egon da. Antza denez, neskatxa horrek ez zuen hizkuntza ezagutzen, ez euskara (nahiz eta horren ikaskuntzan dihardu hezitzaileak euskarazko hitzak botatzen zizkiola eta), ezta

gatzelera ere ez. Gainera, hezitzaile honek beste hizkuntza batean hitz batzuk esan dituelaren usteak ditut. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Barrez inguratuta, talde guztiek horretara ekin dute, eta segituan harrapatu naute, beraz, nik beraiek egiten ari ziren modu berean, lurretik ipurdiarekin arrastaka joan naiz eremutik mugitzen, beraiek ni harrapatzen saiatzen ziren heinean. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Batzuetan, nik eskua gora eramatean, umeetako batzuk tranpan erortzen ziren eta beraz, deskalifikatuta bi minutu geratzen ziren, besteak ikusiz. Deskalifikatuen zenbakia edo kopurua handitzen joan zen, eta beraz, barreen artean, jolastxo txikia hainbat aldiz egin genuen, oso denbora gutxi eramaten baitzuen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Bi ikasle hezitzailearekin batera gelditu dira, hizkuntza ezagutzen ez zuen ikaslea eta beste ikasle bat, zein, bloke batzuekin jolasean eman duen saioan zehar. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Denbora asko ez genuela ikusita, jolasa munduko zer tokitik datorren aipatzera ekin dut, eta Afrikatik ekarritakoa zela aipatzean, umeak Afrikari buruz hitz egiten zuen abesti bat abesten eta dantzatzen hasi dira, beraz, hori moztu nahian jokoa hastera eta azaltzera joan gara borobilean antolatuz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Hala ere, azaldu behar izan diet klasera bueltatzeko ordua heltzen ari zela eta beste aste batzuk genituela beste jolas batzuk egiteko, horrek lasaitu die. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Esperientziak eta anekdotak-** hasieran utzi egin diet, baina gehiegi gerturatzen hasitakoan, eserita lekutik esan behar zutela azaldu diet eta hori egin dute. Umeak ez du denbora gehiegi behar izan "altxorra" topatzeko. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Joan aurretik, besarkada kolektiboa eman genuen, batek ni besarkatu ninduelako eta besteak ere gerturatu zirelako. "¿Vas a venir otro día?" eta antzekoak galdetu zidaten, baina momentuz ezetza jaso behar zutela azaldu nien, baina oso ondo pasatu nuela beraiekin aipatu nien " y yo" " y yo también"... *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Jolasaren dinamika berdina izan da gutxi gorabehera, baina, helmugara heltzerako momentuan, aipatutako haurrak dagoeneko prestatuta zegoen koltxonetazko harresiaren zati bat bota du, baina nik eskatu gabe, bere kabuz jasotzen hasi da. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Jolasari bukaera eman genion, eta ebaluaketa egitera abiatu ginen. Nire harridurarako, nik ea zenbat gustatu zien ikustera joan behar ginela esatean, umeak borobilean jarri ziren indioen gestua edo agurraren gestua eginez.

“Ahh.. badakizue orduan zer doan orain e...” “claro, ¡lo de los indios!”. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Jolastera joan gara, baina honetan, sugearen gestuarekin lurrean botata, niregana etortzen lortzea gehiago kostatu zaie bi edota hiru umeri. Hala ere, besteek erabiltzen zuten estrategia ikusi (oinekin lagundu) eta bera egiten saiatu dira arrakasta izanik. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Lehengoko taldearekin sartzekoan konturatu izan naiz, ume batzuk ez zutela euskara kontrolatzen edota ezagutzen, baina gestuekin txaketak eta zapatilak kentzeko eskaera ulertu izan dute. (*Egunerokoa, 2020.02.11*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Ni orduan, jolas gisa, gosea nuenaren gestua egin nuen, eta umeak urduritasun eta poztasun aurpegia jarri zuten zetorren jolasa dagoeneko ezagutzen zutelako: “harrapaketa jolasa”. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Ondoren, beste taldearekin txanda aldatu dugu. Momentu honetan, jolastu nahi ez zuen umea talde berriarekin berriro sartu da, jolastu nahian, hala ere, jantokiko begiratzailearekin batera joatea eskatu diot, dagoeneko gaurko bere txanda galdu baitu (autoritate puntu bat aurkeztu nahian egin dut, izan ere, dagoeneko denbora gutxi genuelaren abisua eman diot eta ezin zuen gainontzeko kideek baino jolas-denbora gehiago izan, ez litzateke justua izango). (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Oraingo honetan gehiago kostatu zitzairen, ondo oratuta egonik, nahiko zaila baitzen bizkor mugitzea, baina ez zitzairen asko axola, barrezka eta saiatzen jarraitu zuten. Bitartean, hezitzaileak haiek grabatzen edo argazkiak ateratzen egon zen, gero beste hezitzaile bati erakutsi ziona. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Sartzekoan, txaketak kendu eta aulkietan eseri ziren, batzuk nik esan gabe, eta beste batzuk ni eskatuta. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Suge handiagoak eratzerako momentuan, jolasa nahiko ondo joan da, baina bi umeek bere kasa jolasten egoten ziren momentu batzuetan, bata besteari kilimak eginez... Hala ere, jolasten jarraitu dute besteak bezala. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Talde honetan ere, frustrazio aurpegia jarri dute berriz jolasteko denbora gehiago ez genuela azaldu diedanean. Hala ere, denek onartu behar izan dute eta jertseak eta zapatilak janztera joan dira, beraien artean lasterketak egiten zituzten heinean (zein heltzen zen lehenago zapatilak hartzera). (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Teresak lau eta bost urteko jantokiko bi begiraleak aurkeztu dizkit, gaurkoak Markel du izena. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Esperientziak eta anekdotak-** Umeen lehen tandarekin sartu nintzen psiko-gelara, baita hezitzaile batekin ere, aurreko lau urteko umeekin etorri zen bezala. Talde honetan, beste gelako ume bat ekarri zuten ere (hau da, lau urteko beste taldeko ume bat), baita aurreko egunean etorri ez zen ume bat ere. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Esperientziak eta anekdotak-** Umeetako batek hezitzailea behar zuela azaldu zidan jantokiko begiraleak, beraz, ez zekiela nola jardungo zuen, berria baitzen. Hala ere, nire taldean sartzea erabaki nuen, askotan, bata bestearekin kontaktuan jarritz elkarrekin jolasten hasten dira, elkar animatzen dira eta baita elkar laguntzen ere. Kasu honetan, nahiz eta jolastxo honetan pixkat kostatu hasiera batean ez soltatzea, poliki-poliki arauak harrapatzen joan zen eta besteekin batera jolasten egon zen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

Ikasleen arteko harremanak:

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-** Denak parte-hartu dute laguntzeko momentuan, batzuk, gainera, altxatzen eta gerturatzen hasi dira bere ondora joateko eta pausuak esateko: “por ahí no”, “date la vuelta”, “para adelante”... *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-** Aldi berean, umei begira, beste saio batzuetan bezala, beraien artean moderatzen egon dira momentu konkretuetan, isiltzeko eskatuz, ondo antolatzen lagunduz elkarren artean, nola jarri behar ziren elkarri azalduz... Esan daiteke, elkarren arteko kooperazioa eman dela. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-** Beste taldeak ez bezala, talde honetan, lehenago harrapatzen ziren elkar, gorputza osatzen ari ziren umeek ez baitzuten asko elkar laguntzen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-** Jolastxo honen arauak guztiz barneratuta edukita, jolas nagusia egitera abiatu ginen. Hasieran, nahiko urduri zeuden buztanaren papera zutenak, baina segituan hasi ziren lasaitzen gorputza osatzen ari zen umeak elkarlaguntzen hasi zirelako. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-** Katu bat eta xagu bat izendatzean, umeen artean liskartxoak sortzen hasi dira, bat baino gehiago katua edo xagu izan nahi zuela aipatuz. Nahiz eta nik beraiei geroago izango direla azaltzen saiatu, posizio horretan egoten jarraitu dira pare bat ume. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-.** Prozesuan, batzuk erori dira, beste batzuk motelago egin dute, taldekideak aldatu dira.... baina oso gustura egon dira, sarritan errepikatzea eskatu baitute. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-.** Ume ugari pasa ziren rol guztietatik, gustura zeuden, barrez, batzuk, lurrera botatzen ziren, bata bestaren gainean, eta barrez lehertzen ziren. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Harremanak- ikasleen arteko harremanak-.** Umeei begira, beraien artean laguntasuna nagusitu da, bai eserita zeudela jokalaria pausuak ematean izan duten parte-hartzeari begira, baita lekutik altxatu eta ikaslearen ondora joan direlako hau hobeto lagundu nahian ere. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

Irakasle/hezitzailearekiko jarrera:

**Harremanak- irakaslearekiko jarrera-.** Jolasa martxan jartzea lortu dut, baina denbora gutxi pasata, lehen aipatutako bi ikasleak jolasetik irteten eta sartzen eman dute denboratxo bat, nahiz eta beraiei katu/xagu izatea tokatzen zitzaizenean, jolasean murgildu. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Harremanak- irakasleekiko jarrera-.** Momentu honetan pixkat deskontrolatu dira, baina esertzeko eskatu nien arauak aipatzeko eta jolasa zein izango zen esateko. Ez zuten erresistentzia handirik jarri, nik esandakoa erraz errespetatu zuten. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Harremanak- irakasleekiko jarrera-.** Momentu honetan, taldearen barruan bi ume nahasten hasi dira eta, aldi berean, nik horienganako kontrola galtzen. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Harremanak- irakasleekiko jarrera-.** Umeak korrika egin dute eta berriro esertzeko eskatzean, hasiera batean kasu egin dute, baina aipatutako bi ikasleak berriro korrika hasi dira.

**Rolak eta lidergo motak:**

**Harremanak- lidergo motak-.** Horrekin batera, ez da lider baten presentzia ikusi baina bai barre egiten dien ume baten presentzia, askotan "pailazo"-papera hartzen duen umea deitzen duguna. Honek, erortzen zela, blokearen kontra txokatzen zela eta abar egiten zuen, gainontzekoen barrea sortzeko, hala ere, denboraz gelditu behar izan dut denbora gehiegi suposatzen baitzuen honek jolastea, ez baitzen serio jokoan jolasten. Umea

segituan ulertu du nik esaten ari nintzena, eta jolasa serio hartzen hasi da momentuan. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Harremanak- lidergo motak-** Taldeei begira, aipatzekoa da ez dudala liderrik ikusi, baina bai influentzia handiko umeak. Hauek nahastean hasi direnean (bi taldeetan) gainontzeko gehienak berei segitzen hasi dira. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Harremanak- rolak-** “Dona-dona” egin eta ume bat aukeratu dut, zein, lehen esploratzailea izango zen. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Harremanak- rolak-** Beraiek untxiak eta sugea izatearen unea izan da jolasaren zatirik dibertigarriena beraiantzat (Egunerokoa, 2020.02.25)

**Harremanak- rolak-** Beraien artean moderatzailearen papera ikusi izan dugu berriz ere, kasu honetan harresia botatzerakoan, eta antzekoak. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Harremanak- rolak-** Beste umeak, aldiz, atentzioa mantentzen jarraitu dute, eta momentu batzuetan, taldearen moderatzaile gisa jokatu dute, bi ume horiei isiltzeko eta esertzeko eskatuz. Hala ere, nahiz eta bere ikaskideek eta nik azaldu entzuteko momentua zela, ez dute kasu handirik egin. (Egunerokoa, 2020.02.04)

**Harremanak- rolak-** Hainbat aldiz egin genuen jolasa, denak izan nahi baitziren buru edo buztan eta gehienak pasatu ziren bi roletako batetik. (Egunerokoa, 2020.03.03)

**Harremanak- rolak-** Jolasa guztiz funtzionatu duen momentu bakarra, azkenengo txandan izan da, non, ni katua bilakatu naizen eta gainontzeko umeek xagua babesten eman duten. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Harremanak- rolak-** Nik “indio jefe” papera hartu dut eta esku artean nuen blokea danbor gisa erabili dut.

**Harremanak- rolak-** Orduan umeek harridura aurpegia jarri zuten, hare gehiago nik ondoren esan nienarekin: “orduan... zuek untxitxoak bazarete... eta ni sugea... zer gertatuko da?”, denboratxo bat utzi nien beraiek hipotesiak eta usteak botatzeko, ume batek “que nos vas a comer!” esan zuen arte. (Egunerokoa, 2020.02.25)

**Harremanak- rolak-** Talde honetan beste ume “nahasi bat” izan dut, hala ere, kasu gehiago egiten egon da, eta gainontzeko haurrek ere moderatzaile papera hartu dute momentu batzuetan. (Egunerokoa, 2020.02.04)

**Harremanak- rolak-** Ume hori poliziaren papera izatea pentsatu dut gainontzeko umeak ez altxatzeko, beraz, moderatzaile paper antzeko bat hartu du. Horretaz gain, hurrengoko jokalaria hautatutakoan, aurreko ume horrek, blokearen posizioa aukeratu du. (Egunerokoa, 2020.02.18)

### **Inzidentzia kritikoak eta hartutako erabakiak:**

**Inzidente kritikoak- gertaera** Nahiz eta nik hona bueltatu behar zirela azaldu, ez didate kasurik egin, beraz, hain denbora gutxi genuela kontuan izanda, gainontzekoekin jolasa hastera mugatu naiz. Hasieran, denak paretaren kontra zeudela, beren atentzioa lortu ahal izateko, eskuak gora, behera, alde batera eta abar jartzea eskatu diet, nik egiten nituen gestuak imitatuz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Arazo bat suertatu da irteteko momentuan, neska bat erori da eta bekokian kolpea hartu du. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Aurkezpenekin geundela, ikasleetako bi haur nahasten hasi dira, gelatik korrika eginez, zutik jartzen, lurrera jaisten, bien artean harrapaketa ibiliz.... nahiz eta hauei esertzeko eta isilik egoteko eskatu, nahi dutena egiten egon dira. Honek biak gainontzeko ikasleen atentzioa bereganatzen egon dira, eta ez didate kasu handirik egin. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Esertzerakoan, dagoeneko bi umek “a las colchonetas” esanez hasi ziren, *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Hala era, ume bat ia amaitzerakoan korrika hasi eta harresiaren zati bat bota du. Hori gertatzerakoan, guztiak beraren kontra egin dute esanez: “ eh, que no puedes hacer eso, que es veneno!” (harresia landare pozoidunak zirela gogoratuz) *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Hala ere, arazo bat egon da nahasten ari zen ume batekin, bere taldekidea bakarrik uzten ari zela korrika joaten baitzen gelako alde batetik bestera. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Honek denbora txiki horretan funtzionatu du, baina jokoa hasi den heinean, atentzio hori galtzen joan da. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Minutu batzuk geroago, aldiz, ume gehienak psiko gelako harresia botatzen hasi dira, eta bertan jolasten. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Inzidente kritikoak- gertaera-** Ume bera aztoratzen hasi zen eta koltxonetetara joaten saiatu da hasiera batean, *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakia-** eta nik umeak isiltzeko eskaturik, blokeak bota izandako umearengana gerturatu eta lehen arauetan esandakoa gogoratu diot: ezin dira harresiko blokeak bota hori eskatu ez badut, jolasaren parte baitira, hurrengoan kontu gehiagorekin ibiltzeko. Umea baietz esan eta beste ikasleekin batera, harresia jasotzen lagundu didate. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** baina gertakizun hori berriz ez gertatzeko, hori moztea erabaki nuen: “ez ez, gau ez goaz koltxonetetara, gaur bakarrik hemengo eremutik ibiliko gara jolasean”. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** baina hau moztu nahian, azaldu nien ezin zirela hara joan, bestela ezingo zutela jolastu eta kanpora joan beharko zirela, jolasak egin gabe. Honek, ume horri ez dio grazia handirik egin, baina eseri da aukietan, eta aurreko taldean baten bat bota genuen galdetuz, bati “ia ia” erantzunez. Hura moztzen eta gelditzen ez banuen, besteak berdina egiteko arriskua zegoen. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Hasiera batean, tutoreak proposatutako moduan egiten saiatu nahiz, txaloekin (panderoa ez baikenuen), baina umeek ez dute oso ondo ulertu, beraz, txaloak beharrez, animalia bakoitzaren soinuekin jokatzea pentsatu dut, hau da, katua mugitu behar zenean, katuaren soinua egingo nuen, eta xaguak mugitu behar zirenean, xaguarena. (*Egunerokoa, 2020.02.11*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Honekin batera, hezitzaileak ere nik esandakoa errepikatzen ibili da, eskuekin ezetzko gestua ondo markatuz, norbaitek ez baitzuen euskara ondo kontrolatzen, beraz, nik berdina egitea erabaki nuen, hurrengoko pausuetan. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Horretan geundela, eta egoera kontuan izanik, tutoreak aholkatu dit korrika egiten ustea pare bat minututan, gero berriro eseriko direnaren baldintzarekin. (*Egunerokoa, 2020.02.11*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Neskarengana gerturatu naiz, lasaitu dut besarkada bat eskainiz eta hau behatu dut ea zonaldea handituta zuen ikusteko. Ez zuen markarik, ezta ubeldurarik, baina hura lasaitzeko, nirekin ur hotzarekin bustitzera joatea proposatu diot eta horretara abiatu gara. Denbora osoan bere kide bat gurekin egon da hau lasaituz (konplizitate eta erlazio ona zuela ikusi ahal izan da erraz). Ondoren, hirurak batera umeen gelara joan gara, dagoeneko gainontzeko haurrak jantokiko begiraleekin joanak baitziren. Gelara gerturatuta, umeen irakasleari gertatutakoa azaldu diot, nahiz eta ezer ez eduki, hark ere begiratu ahal izateko. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Taldearen atentzioa eta kontrola guztiz galdu dut eta geratzen ziren bi umeak, balorazioa egin beharrez, besteekin jolastera joateko proposatu diet (*Egunerokoa, 2020.02.11*)

**Inzidente kritikoak- hartutako erabakiak-.** Taldekideari hirukoteko ikaskideetako bat esleitu diot, eta nahasten ari zen umea jolastu nahi ez zuela esan du, gelatik irtenez.



Hala ere, atearen ondoan gelditu da, eta nahiz eta nik animatu jolastera, bueltatzen zen momentu orotan joan egiten zen. Nik azaldu diot denbora oso urria zela, beste taldeari tokatuko zitzaiola jolastea eta orduan hark ezingo zuela jolastu. Baina ez da jolasean sartu. (Egunerokoa, 2020.02.04)

**Aspektu metodologikoak- arauak:**

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- arauak-.**



(Aranbizkarra ikastola, 2020.03.03. Aulki eta lurlean eserita, arauak gogoratzeko prest!)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- arauak-.** Beraiek esandako arauetaz gain (ezin da jo, iletik tiratu, bultzatu, hitz txarrak esan, ...), beste arau batzuk sartu ditut saioa deskontrolatu ez zedin: ezin da korrika egin korri egiteko unea ez denean, ezin da harresia bota hori eskatzen ez bada eta ezin da koltxoneten eremura joan jolasak hori eskatzen ez badu. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua:**

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Arauak bukatu ostean, egun honetan tokatzen zen jokoari sarrera egitera joan nintzen, baina, hain aztoratuta edo mugitzeko beharra zutela ikusita, beste egunerako prestatuta nuen jolas bat egitea erabaki dut, “snake” jolasa. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Arauak gogoratuta eta jolasa aipatuta, hau jolastera abiatu ginen. Prozesu bera eta azalpen antzekoa erabili genuen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Arauekin batera, hezitzaileak eta biok ezetzko gestua asko markatzen genuen eskuarekin, eta gainontzeko haurrek hori egiten hasi ziren ere. Baita arauak mimikaren bidez ere azaltzen araua nola zen ondo ez zekitenean, adibidez: “mm ezin tirar del ilea” eta iletik tiratzearen gestua egin, ondoren nik azalduz, “hori da, ezin dugu iletik tiratu”. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Atentziora bereganatzeko estrategiei begira, hauek gehiagotan erabiltzea ideia ona izango litzatekela pentsatzen dut, eta horiekin batera, umeak poliki-poliki, jolasean barneratzen saiatu behar nahiz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Balorazioa egiteko uneari begira, aipatzekoa da, momentu hau gero eta dinamikoagoa edota joko baten antzekoa prestatzerakoan, denen parte-hartzeko gogoak gora egin duela, beraz, berriro ere aplikatu beharreko estrategia gisa ikusi izan dut. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Beraien atentziora lorturik, jolasaren izena esatera eta honen azalpena ematera abiatu nintzen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Beraz, horrekin hasi dugu gaurko saioa, umeek zapatilak eta txaketak kendu eta gero. Umeei beti bezala, saioari hasiera emateko, eserlekuan esertzeko eskatu diet, eta beren laguntza behar nuelakoan, beraiek arauak gogoratzea eskatu diet *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Bertan zeudela, ni beraien aurrealdean kokatu naiz eta lurrean etzatea eskatu diet, nik berdina eginez ulertzen ez zuten ikasleei laguntzeko asmoz. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Beste taldearekin funtzionamendu bera izan genuen. Hasieran, arauak galdetzean, bizkorrago hauek gogoratzen hasi gara, beraiek lehenengo momentutik ulertu baitidate, *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Beste taldearekin prozesu bera egin genuen, baina horiek ez ziren hasi beste taldea bezala “sugearen jolasa”-ren inguruko ezer esaten, nahiz eta batzuk aurreko saioan leihotik begiratu izana. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Bigarren taldearekin, prozedura bera egitea erabaki dut hain ondo atera delako: zapatak eta jertsea kentzea, asanbladan arauak gogoratzea, jolas-eremura joatea, azalpen motibagarria ematea, jolastea eta balorazioa. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Ebaluaketa edo balorazioa egiteko unean, beste taldekideak bezala, gogotsu egon dira, indioarenak eginez, hare gehiago azkeneko momentuan danborrak jotzean eta abestean. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Ebaluaketa egina, txaketak eta zapatilak jantzi ziren eta talde aldaketa egitera joan ginen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Ebaluatzeko eseri ginen jolasa amaitu ondoren. Funtzionatu izan zuen bezala aurrekoetan, borobilean jarri ginen indioen jolasa egiteko, batzuk momentu hori itxaroten zeuden, gogoekin “buaaaa lo de los indios ¡SIIII!!!”. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Gaurko bost urteko taldeko ume kopurua 20 izan beharrean, 18 izan dira, beraz, 9ko bi talde sortu izan dugu. Umeak nirekin sartu dira psiko-gelara, Markelek ni aurkezten zioan heinean eta niri kasu egiteko eskatzen zien heinean. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Gaurko eguna, 5 urteko haurrekin izan dudana azken saioa izan da. Beti bezala, ongi etorria egin diet eta txaketak eta zapatak kentzeko eskatu diet Ondoren, beti bezala, azalpenak emateko, aulkietan esertzea eskatu diet, nahiz eta gehiengoa, nik esan gabe, dagoeneko eserita zeuden. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Gaurko egunean 5 urteko haurrekin saioa ematea tokatu zait berriz ere. Aurreko astean gertaturikoa ikusita, GrALeko tutoreak aholku bat eman zidan saioak hasterako orduan aldaketa bat egiteko: saioak arauak gogoratzearekin batera hasia. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Horretaz gain, tutorearen aholkuak segituz, hurrengoko egunetan aurkezpena ez dagoela kontuan izanik,

lehenengo momentutik beraien atenzioa eskatzen saiatuko nahiz eta dinamikak ahalik eta azkarren hasten. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Konturatu izan naiz, aurreko astean bezala, baloratzeko modua jolas eran egitea gehiago gustatzen zaiela umeei, ez baitzaie luzeegia suertatzen eta gustura egoten direlako metodo hori egiten. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Ondoren, korroan eseri ginen balorazioa egiteko. Hau egin ahal izateko, aurreko asteko metodo bera erabiltzea erabaki nuen, "indioen korroa". *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Ondoren, txanda egiteko momentua heldu da. Umeak txaketak eta zapatilak janzten ari zirela, tutoreak aholku batzuk eman dizkit: azalpenak motzagoak izatea, mugimendu gehiago eskatzea lehenengo momentutik eta jolasa beste era batean aurrera eramatea, katuen eta xaguen mugimendua txaloen bidez aurrera eramanez, horrela beraiek atenzioa lehenengo momentutik eskaini beharko zuten. Beraz, aholku horiek kontuan izanik, hurrengoko taldearen bila joan naiz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- diseinua-.** Teresak lau urteko haurrekin tokatzen zitzaidala uste zuen, baina nik azaldu diot bost urteko umeekin hasten nintzela gaurko egunean, beraiantzako saioa prestatuta eta pentsatuta ekartzen bainuen. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen metodologikoak- diseinua-.** Saioaren abiadurari begira, hasieran nahiko motel hasi da, lehenengo eguna izanik aurkezpen bat egitea beharrezkoa ikusten bainuen, hala ere, azalpena eta jolasa hasi dugunean, saioaren abiadura bizkortu da umeen parte-hartzearekin batera. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materiala:**

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materiala-.**



*(Aranbizkarra ikastola, 03/03/2020. Jolas eremuan. Ebaluaketa eginez, erdiko blokea indioen danbor gisa erabiltzen nuen, eta denak indioen agurra egiten ari ziren "Hao" altuan esaten ari ziren bitartean)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materiala-.** Beti bezala, koltxoneta hartu nuen danbor gisa erabiltzeko eta denok batera aurpegi serioa jarri genuen danborraren erritmoa jarraitzen genuen bitartean. Gero, beste taldean bezala, denbora piska bat genuenez, semafoeren fitxak atera eta horrekin ebaluatzeaz gain, bakoitzaren momenturik gustukoena zein izan zen aipatu genuen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materiala-.** Hasiera batean, jolasa makilekin egin behar zer, ume bakoitzak makila bat eskuan izanda, altxatuta (kono baten laguntzarekin) egongo litzatekeen beste makil bat jo eta lurrera bota beharko lukeen. Hala ere, nahiko arriskutsua zela pentsatu nuen eta, beraz, bloke bigunekin egitea pentsatu nuen, txurro bat eskuan izanda hau kolpatzeko. Hala ere, berriz ere, zerbait kolpatzea arriskutsua zela pentsatu nuen, nahiz eta txurroa biguna

izan, horrek iskanbilak sortzeko aukerak suertatu zezakelako, beraz, blokea besarkatzea erabaki nuen. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Planifikazioa- proposamen metodologikoak- espazio eta materiala-.** Aldaketei begira, pentsatu dut lau urteko umei kolorezko bloke edo kutxak aurkeztu baino, paperaz eginiko hiru borobil eramatea semaforoko koloreekin, baina errazagoa eta bisualagoa suertatzeko, borobiletan aurpegiak margotzea ideia ona izango litzateke: gorria, aurpegi tristea; laranja, aurpegi neutroa; berdea, aurpegi alaia. (Egunerokoa, 2020.02.04)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materiala-.** Psiko-gelaren barruan, lauki bat osatzen zuen banku batzuetan esertzea eskatu diet beren jertse eta txaketak zintzilik utzi dituztenean. (Egunerokoa, 2020.02.04)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazio eta materialak-.** Bertan, misterio puntua emateko, leihoen pertsianak piska bat bajatu nuen, argia sartzen utziz baina eremu ilunago bat sortuz, (Egunerokoa, 2020.03.03)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.**



(Aranbizkarra ikastola, psiko-

gelako harresia, 2020-02-18)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.** Balorazio unean, borobilean eseri eta beste bloke txiki eta karratu formaduna aukeratu dut, horrekin modu dibertigarriagoan balorazioa egiteko. (Egunerokoa, 2020.02.18)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.** Bloke karratu bat hartu nuen eta nire hanka tartean jarri nuen, danbor gisa. (Egunerokoa, 2020.02.25)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.** Hala ere, pertsianak jaisteko aukera izan arren, kanpoko argia erabiltzea gomendagarriena izaten

da psiko-gelako eremu garbi eta aproposa izateko, beraz, hauek ez jaistea erabaki dut. (Egunerokoa, 2020.02.25)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.** Baloratzeko momentuan jolastu izan duten ume gehienak egon dira, eta aurreko astean ez bezala, gaur, semaforo koloreko blokeak erabili beharrez, nik eginiko fitxa batzuk erabili ditut (horia, berdea eta gorria, aurpegi batzuen bitartez, sentimenduak aurkezten zituztenak). Horiekin batera, gustatu zaien ala ez baloratu izan dute fitxa bat aukeratzuz eta horrek zer esan nahi zuen altuan esanik. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Planifikazioa- aspektu metodologikoak- espazioa eta materiala-.** Materialari begira, pentsatu dut, koltxonetek beraien atenzioa asko erakartzen dutenez, bestelako jolas batzuetan (posiblea baldin bada) horietako bloke bat erabiltzea, beraien atenzioa jolas gunera erakartzeko. (Egunerokoa, 2020.02.11)

#### **Faktore erraztagarri eta oztopatzaileak:**

**Planifikazioa- faktore erraztatzaileak-.** izan ere, parte-hartzeko gogoak zituzten umeak eta ez da oso zaila izan gaurko saioa aurrera eramatea. (Egunerokoa, 2020.02.25)

**Planifikazioa- Faktore oztopatzaileak-.** Geroxeago, pare bat ume koltxonetetara joatea erabaki dute eta jolasa alde batera utzi dute. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-.** Hala ere, gure saioen egoera dela eta eta dugun denbora kontuan izanik, ezin dugu antolaketa hori aurrera eraman. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-.** hala ere, kontuan izan beharra dut, umeak estimulu handiko inguru batean sartuta daudela, non, beti joko librean jarduten duten: psiko-gela. Beraz, etorri berria den eta ezagutzen ez duten pertsona batek, beraiek ohituta dauden eta nahi duten eran jolastea ez usteak, desafiatzeko aukera izan dute, eta horretan jardun dira momentu gehienez, desafiatzen. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-.** Hasiera batean, parte-hartzeko gogoekin zeudela iruditu zait, baina joko hastear geundela, ume batzuk koltxonetekin jolastu nahi zutela azaldu didate eta, nahiz eta nik horretarako momentua ez zela azaldu, ikasleen kopuru bat koltxonetetara joaten saiatu dira eta, nahiz eta tutoreak “erresistentzia” bat eskaini, beraiek jolas modura ulertu dute eta hara joan dira jolastera. (Egunerokoa, 2020.02.11)

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-.** Horretaz gain, konturatu nahiz, nahiz eta ebidentziak lortzen saiatu (argazkiak, momentuko oharrak eta abar), hain denbora gutxi

edukita, ezinezkoa suertatzen zaidala, taldetik urruntzen naizen bakoitzean umeak nahasten eta atentzioa galtzen dutelako. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-** Niri begira, nahiko galdua nengoela sentitu nahiz eta bi pertsona heldu gehiago gelan edukita, zurrunago egon naizela sentitu naiz, ez naiz aurreko saioan bezala hain libre sentitu, beti presio-puntu bat eskaintzen baitu honelako saioak aurrera eramateko aditu bat ez izanik. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-** Psiko-gelako harresiari begira, tentazio handiegia dela iruditzen zait, baina hori altxatuta mantendu beharra dudalaren oztopoa dut, ez baitugu denbora askorik hura botatzen uzteko, gero berriro ere altxatu beharko dudalako hurrengoko taldea etorri baino lehen eta saioa bukatzerakoan. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-** Umeekin eta nirekin batera, psiko-gelara GrAL-eko tutorea eta beste hezitzaile bat sartu dira. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- faktore oztopatzaileak-**Honek azaldu dit nahiko berandu zebiltzala gaur eta umeak mahaia uzten ari zirela, hark kanpoko aldean umeak ilara batean prestatzen hasi da. Nahiz eta 13:45 hasi behar, gaurko saioa 13:55 gutxi gorabehera hasi behar izan dugu. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- planifikazioa- faktore oztopatzaileak-** Puntu negatibo edo arazotxo gisa, aipatzekoa da, psiko-gelako leihoek kanpotik barruan gertatzen dena ikusten uzten duten eremutxoak dituztela, eta horretatik, talde batzuetako umeek, aurreko taldeak zer egiten ari den ikusi izan dute, eta “magia” eta “misterio” puntu hori kentzen diotela jolasari. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

### **Proposamen didaktikoak- zer planteatu izan dugun eta ikasleen erantzun eta balorazioak:**

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Hori entzunda, “ah claro, es como si me como mi pie” “o mi mano” eta antzekoak esaten hasi ziren, eta nik arrazoi ematerakoan, jolasa berriro egiten hasi ginen. Saiakera honetan, dagoeneko, zailagoa suertatu zen buruak buztana jatea, hain azkar behintzat. *(Aranbizkarra ikastola, HHko 5 urteko ikasle batzuk, landa-oharrak, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** Baloratzeko momentua erraza izan da, eta denak ondo baloratu dute jolasa, gainera, aipatzekoa da, kolorezko kutxak hartuta, euskeraz balorazioa botatzean, euskara ez zekien neskak, nik esandakoa primeran ahoskatu duela. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*



**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** Ebaluazio horrekin batera, beste batzuetan bezala, denbora piska bat gehiago izanik, aurpegien semaforoan fitxak ere erabili genituen, erantzuna eta ebaluazioa positiboa izanik, baita aipatuz zein momentu izan zen gustukoena (bakoitzarena), erantzunak positiboak izan ziren guztiak. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** Esan beharra dago guztiek baieztatu erantzuna eman dutela, eta berriro jolasteko eskatu dutela ere, baina lehen taldearen denbora dagoeneko bukatu zen eta zapatilak janztera joateko eskatu diet, beste taldearen txanda baitzen. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** Eta neskatxari bostekoa eman diot. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** Guztiok berdea aukeratu dute, jolastu nahi ez zuen umea kenduta, honek gorria aukeratu baitu. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- balorazioak-** ondoren umeetako bat seinatu "hau" esan, berak agurra bueltatzen zidan bitartean, "te gustatzen?", "bai!" eta bostekoa eman. Horrela guztiekin, denak irrikitan zeuden beraiei agurtzeko eta berdina egiteko. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzuna-** Umeak hori niri egiaztatu nahian frogak egiten hasi dira "bai", "begira ze ondo" eta antzekoak esanez. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** "¿osea que si tocamos eso nos morimos?" batek, eta nik min egingo zirela eta orduan, deskalifikatuta geratuko zirela, "eliminados", beraz, ezin zela ukitu. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Aldiz, nire suposizioak zuzenak izan dira, izan ere, euskara ez zekien neskatxa, "dakienaren" aurpegia jarri du, hau da, "aurpegia argitu" zaio snake hitza entzutean, eta orduan, lurrera bota da hau imitatzeko eta niri azaltzeko zer esan nahi duen snake. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Baloratzeko momentua heltzerakoan, batzuk "ya?" eta antzekoak bota dituzte "queremos jugar otra vez", "más" eta abar esanez. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** eta barrezka eta korrika egon dira momentu osoan, berriro eta berriro jolasteko eskatuz. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Ez da beharrezkoa izan ezer gehiago esatea, hori entzun duten momentu berean, denak isildu baitira. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Gogotsu zeudela ikusi ahal zen, izan ere, denak zeuden galdetzen gaur zer jolas egin behar genuen. “Eso de la serpiente vamos a hacer, ella dijo eso, y los de 4 hicieron eso” esan zuen batek, izan ere, aurrekoan esan bezala, batzuetan, lehietatik ikusten zuten barruan gertatzen ari zena. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** hala ere, umeetako batek “hori zergatik” egiten geundela galdetu zuen, eta nik beharrezkoa zela azaldu nien, “hona etortzen zareten aldietan bezala”. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Hori ikustean, beste bi ikaslek soinua egiten hasi dira “shhh shhh”, eta nik jarraitu dut: hori da, suge bat da snake. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Hori entzutean harridura aurpegia jarri eta beraien artean eta altuan honelako komentarioak esaten hasi dira: “Yo soy valiente”, “pero yo soy más valiente”, “¿peligroso?”... (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Hori entzutean, umeak nik eskatutakoa ulertu dute eta eskuak altxatzen hasi dira beraiek ere araren bat esan nahi baitzuten. Harritu nau zerbait esan duen lehengo pertsona euskaraz ez zekien neskata bat izana, baina asko poztu nau bere parte-hartzeko gogoak aurreko saioan baino altuagoak izatea. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Horrek berriro harridura sustatu du umeen artean, baina hori entzutean berriro ere eskuak altxatzen eta aukeratzeko eskatzen hasi dira. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak-** Jolasa “dragon’s tail” zuela izena esan eta beraien artean altuan esaten hasi ziren: “dragon ball?”, “sí, será Dragon ball”, “¡ala! yo soy un dragón”, “¡furia nocturna!”... (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Metodoak arrakasta izan du, umeek beraien buruari eta beren gustuen inguruan hitz egitea nahi izan dute eta ume guztiek erraz parte izan dute momentu honetan. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Momentu horretan (bakoitzaren aurkezpenetan), konturatu izan naiz taldekideko neska batek ez zekiela euskara, izan ere, aurkezpenak euskeraz egiten ari ginela eta bere txanda tokatzen zela, honek esan dit “Yo no se hablar asi”, eta frustrazio puntu bat ikusi ahal izan zaio. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Momentu horretan ume guztiak, bai neskak, baita mutilak ere, eskua altxatzen eta niregana gerturatzen hasi dira beraiek aukeratzeko eskatuz. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- Proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Nahiz eta batzuk gazteleraz erantzun, beste umeetako askok animalia izena euskeraz esan didate. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- Ikasleen erantzunak.-** Niri harrapatzen saiatzen zirenez, batzuk tranpak egiten saiatu dira, eskuak erabiliz inpultsu gehiago hartzeko, piska bat soltatuz... baina nik ondo oratzeko eskatzean, barreen artean, berriro ondo kokatzen ziren. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Orduan, nik esan nien, “badakizue zer jaten duen sugeak?”, “ratones, plantas...” esaten hasi ziren, orduan nik esan nien: “eta untxitxoak ere”. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Umeen atentzioa eta kooperazioa bilatzeko estrategia gisa erabili dut eta, esan beharra dago, jolasteko nahiak piztu direla. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- ikasleen erantzunak.-** Zailagoa hitza entzuten, denak harridura aurpegia jarri zuten, bata bestearekin komentatuz “más difícil eh”, “ala más difícil”... *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** “Ausartentzat den jolasa da, leku hau (psikogela) gaur ez delako psikogela bat, oihan bat baizik, eta harresia ez da harresia bat gaur, landare pozoidunak baizik (hau bota ez zezaten)... Gainera, oihan honetan altxor bat dugu, momia baten altxor bat! (momentu honetan denak aho-zabalik zeuden) eta pertsonarik ausartena behar dugu esploratzailea izateko.” *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** “Nik “Hao” esaterakoan, zuek ere esan behar didazue “hao”, eskuak horrela jarriz (eskua altxatuta, aurrera begira), ulertu duzue?” (dena ahots grabearekin), baietz esaterakoan, hasi nintzen “Hao” denak niri errepikatuz, “hao”... (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Aipatzekoa da, beste aurreko saioarekin konparatuz hain ondo atera izana gaurko saioa, beraiei zoriondu diedala, guztiok guztiori txalotzen (bi taldeak). (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Azaldu nien erensugea kobazuloan bizi zenez, batzuetan euria egiterakoan, ez zela ateratzen janari bila, eta orduan, gose zenez, bere buztana jaten saiatzen zela. Beraiek, herensuge handi bat sortu zuten, bat burua izanik, gainontzekoak gorputza eta azken bat, buztana. Burua zena buztana jaten saiatu beharko zen, gorputzak zirenak hau ez gertatzen lagunduz, mugitzen ziren heinean. Horretarako, oso ondo lotuta egon behar ziren, bi eskuekin, eta ezin ziren soltatu. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Baloratzeko ordua heldu da, eta umeekin batera lurrean etzan naiz elkarrei begira, erlaxazio puntu bat lortu ahal izateko. Lehenengo zer iruditu zaien galdetu diet, ondoren, eskuak altxatzea eskatu diet, asko, gutxi eta zerbait gustatu zaien jakiteko. Zein momentu izan den beraien gustukoa ere galdetu diet, “ondo eserita eta entzuten” ari ziren umeei eta, amaitzeko, gelatik zauden hiru bloke hartu ditut jokoa puntuatu zezaten: gorria oso gutxi, horia “bueeno” eta berdea asko gustatu zait izanik. Umeei banan-banan eskatu diet bloke bat altxatzea beraien buruen gainetik eta altuan esatea koloreak zer esan nahi zuen, hau da, “Niri asko gustatu/gutxi gustatu/buenoo zait” esanez. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Balorazio guztiak esku-txalo batekin amaitu ditugu eta elkarrei txalotuz, elkarren arteko konplizitatea bilatuz. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Balorazioa egiteko, pelikuletako indio tribu baten antzera esertzea eskatu dut, denak aurpegi serioa jarriz. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Beraiek esaten ari ziren jolasa snake zela azaldu nien, baina, beraiek nagusiagoak zirenez, “snake” jolastu beharrean, beste jolas bat egingo genuela esan nien, antzekoa, baina piska bat zailagoa. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** Bertan, nire burua berriro aurkeztera abiatu nahiz eta beraien izenak ere ezagutu ahal izateko, modu dinamiko batean egitea pentsatu dut, beraien izena eta gustuko janaria zein den azaltzea eskatuz. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Planifikazioa- Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** Bitartean, mugitzea tokatzen ez zitzairen jokalariai geldik egoteko, “stop” edota “estatua” esaten nien. Jokoa poliki-poliki aurrera joan da, eta hitz egiten eta kasurik egiten ez zidaten momentu batzuetan, beren atenzioa lortzeko, esku bat gora eta bete eskua “isiltzeko” gestua eginez jarri naiz, beraiek ni imitatzeko. Horrek beraien atenzio berreskuratzen lagundu dit, baina minutu batzuetan soilik. (*Egunerokoa, 2020.02.11*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** eta istorio batekin, testuinguru bat sortu nien: Badakizue non bizi diren erensugeak? (batzuk “erreketan”, “oihanetan” eta abar esan zuten) gure erensugea kobazulo batean bizi da, Txinako kobazulo batean, horregatik ain iluna dago leku hau. Baina badakizue? hemen bizi den erensugea suzko erensugea da, labaz inguratuta bizi da, beroa gustatzen zaio, orduan... zer ez zaio gustatzen erensugeari? zerk egingo dio min? (“el frio”, “los pinchos”... “el hielo”) “bale, izotzak bai egiten dio min, baina zerez egina dago izotza?” “uraz, horrek egiten dio min!” “Ba, koltxonetaz egindako pareta hau (harresia seinlatu nuen) urez eginikoa da, eta koltxoneten eremua laku bat edo itsasoa da, beraz, erensugea ezin da horra joan, eta badakizue zein izango den erensugea? zuek guztiak”. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** Ezetz esan eta azaldu nien ez zela ez Dragoi Bolaren ezer ezta antzekorik, baina bai zuela zerikusia erensugearekin. “Tail” hitza mimikaren bidez ulertu zuten, buztanaren mugimendua eskuarekin egiten ari baintzen. Orduan, guztion artean herensugearen buztana esan nahi zuela ulertu genuen. Jolasa azaldu nien eta jolas-eremura joan ginen. (*Egunerokoa, 2020.03.03*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** Gaurko jolasa Afrikatik, Burkina Fasotik, eratorritakoa dela azaldu eta jolasaren izena esan eta denon artean altuan errepikatu dugu: “Sasa Kuru”. Izen hau gero eta altuago esan dugu, azkenean izena oihukatzen amaitu dugun arte. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun.-** Gero, suge handi bat eratzea erabaki nuen, guztiok batera ilara handi bat eratuz. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Hau ikusita gazteleraz eskatu diot eta gero horren itzulpena aurkeztu. Neska lasaiago geratu da gorputz jarrera eta ikusi ahal izandako gestuari esker (gorputza-jarrera erlaxatuago bat hartu eta irribarre egin du). *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Honen ondoren, binaka jartzea eskatu diet, hezitzaileak bi ume konkreturi elkarrekin jartzeko eskatzen zidan heinean. Bikoteak eratuta zeudela, bata bestaren atzean jartzea eskatu diet, aurrekoa atzekoaren hankei ondo oratuz eta atzekoak aurrekoari gerritik edo tripatik ondo oratuz. Denak prest zeudela, azaldu diet, orain suge bat izaten jarraitzen zutela, baina suge handiago bat. Beraz, ipurdiarekin arrastako eta saltotoxoak emanaz, niregana heldu behar zirela bikote bakoitza. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Horrekin hasteko eta aukietan eserita geundela aprobetxatuz, galdera bat bota diet: “gurko jolasaren izena “snake” da (misterio aurpegia jarriz), norbaitek daki zer den snake?”. Galdera hau bota dut, askotan, afrikar familia duten ume askok ingelera izaten dutelako etxeko hizkuntza gisa, ez da inoiz ziurtzat jo behar honelakorik, suposizio hutsak baitira, baina ez genuen galtzen ezer hori galdetzen bagenuen, izan ere ez ditut umeak ezagutzen eta ez dakit zeintzuk diren bakoitzaren lehen hizkuntzak. Gainera, ingelerako irakaslearekin izena entzunda edukitzearen aukerak zeuden, baina ez da honela izan. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Hurrengoko pausoa, ni zertara netorren azaltzea izan da, kasu honetan, jolas batzuk egitera etorri naizela azaldu diet, baina jolas hauek oso ohikoak ez direla esan diet, izan ere, elkarrekin jolastuz eta lan egiten soilik ondo aterako direla azaldu diet, baita munduko leku ezberdinetako jolasak izango direla ere. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Hurrengoko taldearekin, ez diot denbora gehiegi eskaini bakoitzaren aurkezpenaren momentuari, izenak esatera mugatu bainaiz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Izan ere, egin dugun hurrengoko gauza, arauak gogoratzea izan da, beraz, beren parte-hartzea eskatu dut, aurreko saioan bezala (5 urtekoekin egin bezala). Hasieran ez zekiten zer esan edo ez zuten ezer esan nahi, beraz, ni pentsatzeko gestua egiten egon naiz eta orduan esan dut: “mmm ni hasiko naiz orduan, mmmm... ezin da jo”. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- Proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Jokoan bi pertsonai nagusi daudela azaldu dut, katua eta xagua, ondoren gainontzekoak xaguren etxea zirela azaldu dut. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Jokoa hasi baino lehen (hau da, buruak buztana harrapatzea), beraien artean ondo oratu behar ziren kontzeptua argi geratu zela ikusteko eta praktikan jartzeko, jolas txiki bat egin genuen: niri segitu behar zidaten sugea egin ondoren, eta ni beraiek engainatzen saiatuko nintzen, baina, beraiek ezin zuten elkar oratzeari utzi. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Jolasa azaldu dut eta borobilean kokatu gara altxatuta. Bertan, umeak animatu eta motibatu ditut, “txoritxo batek esan dit zuek oso onak zaretela saltoak egiten, baita hanka batean saltoak egiten ere” eta antzekoak esanez. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Jolasari amaiera emateko, denak paretaren kontra jarri ziren berriro eta nik galdera bat bota nien: badakizue zer den unxi bat? eta hau imitatzen hasi ziren. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Kasu honetan, lehen bezala, hasierako jolastxoak egin genuen, eskuak ez zirela soltatu behar ulertzeko, baina talde honek, lehenago harrapatu zuen araua, eta ia lehenengo momentutik primeran egin zuten dinamika.

**Planifikazioa- Proposamen didaktikoa- Zer planteatu dugun-.** Lau urteko haurrekin lehen saioa izan denez, aurreko saioan bezala, nire aurkezpena egin dut eta gustuko animalia bat aipatu dut, gainontzekoei berdina eskatuz. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Lehenengo, lekuan bertan hanka batean saltorik egin gabe oreka mantentzeko eskatu diet, ondoren lekuan saltoak egiteko, gero bueltak emanez toki berean (hanka batekin saltoak emanez) eta, azkenik, borobilean eskumarantz bueltak emanez. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Lurrean etzanda geundela sugearen soinua eginez, niregana arrastaka etortzeko eskatu diet *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Momentu horretan beraien atentzioa nuela konturatzean, jolasa aurrera eramango genuen gunera joan gara, jolasaren azalpentsua emateko. Bertan leihoen kontra kokatuta zeudela, ausartentzat den jolasa dela berriro ere komentatu diet honen zergatia azaldu nahian, momentu horretan zergatik galdetzen hasi dira, ia denak batera, baina nik zergati hori azaltzeko,

isiltasuna beharko nuela azaldu diet, beraiek atentzios entzun zezaten. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Momentu horretan berriro beraien lekura joatea eskatu eta hitz egiten jarraitu dut “baina badakizue zergatik izan behar den hain ausarta gure esploratzailea? ez duelako ezer ere ez ikusiko... begiak tapatuta izango ditu!”. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Ondoren, berdina egiten jarraitu dugu baina 4ko eta 5eko taldeak eginez, hau da, bi suge handi sortu ditugu. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Orduan, harresia osatzen duen blokeetako bat aukeratu dut eta bere aurrean jarri dut. Bloke hori altxorra izango zela azaldu diet, eta esploratzailea hori besarkatu beharko duela azaldu dut jokoa irabazteko, hala ere, berak ez duenez ezer ikusiko (momentu honetan, zapi bat hartu eta erakutsi egin diet), gainontzekoek “bero-bero” edota “hotz-hotz”-ekin gidatu beharko zutela, beraiek txoritxo-laguntzaileak izango baitziren. Denek ulertu zutela ziurtatutakoan, umeari zapia begiak tapatzen jarri eta honi buelta batzuk eman diot guztiok batera hamarrerarte kontatzen ari ginen bitartean. Bueltak ematen amaitzean, “aurrera ausart hori!” esan eta jokoa hasi dugu. (*Egunerokoa, 2020.02.18*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Oso serio jarri behar zirela esan nien, haserretuta bazeuden bezala. Denak haserre egotearen aurpegia jarri zuten beso eta hankak gurutzatuta zuten bitartean. Nik azaldu nien, ni “indio-jefe” nintzela, eta beraiek, indio txikiak, erritualak ikasten ari zirenak. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Snake zer zenaren galdera bera egin nuen, baina ez zuen erantzunik izan, beraz, honen soinua egitea erabaki nuen pista bat emateko asmoz, horrekin batera zer zen asmatu dute eta batek mingaina ateratzeko gestua egin du, besteek barre egiten zuten bitartean eta imitatzen zuten bitartean. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Suge handia sortzerakoan, behin baino gehiagotan ilara apurtu da, baina lau aldiz saiatu ondoren, eta ondo elkar oratzeko eskatu ondoren, jolasa hobera joan da. (*Egunerokoa, 2020.02.25*)

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Txanda aldatzean dinamika bera jarraitu dugu, izena eta gustuko janaria beharrean, izena eta gustuko animalia izan dira. (*Egunerokoa, 2020.02.04*)



**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Ume bat hatzarekin seinalatu eta “jau” esanez agurtu gara eskua altxatzen dugun heinean. Erritmo puntu bat emateko, elkarriketa baten modukoa segitu dugu, zein, beraientzat oso dibertigarria suertatu zaien: “jau”, “jau”, “Tá gustau?” “bai/ez”, eta eskuak txokatzen genituen. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Umeak ondo pasatzen ari zirela ikusi ostean, jolasa bete-betea egitera sartu naiz. Paretaren kontra jartzeko eskatu diet eta ni distantzia batean kokatuta nengoen lurreko marrara hanka batean salto txikian emanez heltzeko eskatu diet Hau egin ostean kooperazioa lantzen hasi naiz, lehengo guztiak eskuak emanez berriro prozesu bera errepikatzeko eskatuz, ondoren binaka eskuak emanda (bikoitiak ez zirenez, hirukote bat osatu behar izan dut), ondoren bera, baina elkarrekin besoak gurutzatuta eta elkarlotuta, eta azkenik, elkarri oratuta baina bizkarra emanez. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Umeei jolasaren izena esan diet eta hau errepikatu dugu altuan, aurreko egunetan bezala. Beraiei motibatze eta jolasarekiko interes puntu bat sortzeko, jolas nahiko arriskutsua eta ausartentzat prestatua dela esan diet *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu dugun-.** Honen ondoren, psikogelako paretara joatea eskatu diet eta ziztu bizian joan dira. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu genuen-.** Hori ikusita, azaldu nien, gorputzak buztanari lagundu behar ziotela, bestela beraiei min egingo bazitzairen bezala izango baitzen. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatu genuen-.** Kontestuan jarrita (kobazuloa, gosea, buruak buztana jan, ezin ukitu koltxonetak...), jolasari hasiera eman genion. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Planifikazioa- proposamen didaktikoa- zer planteatzen dugun-.** Nik untxiak imitatzea eskatu nien, hau da, saltotxo txikiak ematen ia belauniko... eta ni suge lotiarena egin nuen, musikatxo bat abesten nuen bitartean. Orduan, abesteari utzi, esnatzen ari nintzenaren gestua egin eta altuan esan nien tripa ukitzen nintzen bitartean: “mmmm... ze gose naizen... untxitxo batzuk jango ditut” (ahots grabarekin), eta orduan, begiak zabaldu, “beldurrezko” aurpegia jarri eta hauek harrapatzera joaten nintzen kilimak eginez. Umeak korrika hasi ziren, barrezka, oihu eginez... eta berriro errepikatu genuen jolasa beste hiruzpalau aldiz. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

### **Sentipenak:**

**Sentipenak- beldurrak-** Beraz, esan daiteke, saioa oso motza suertatu zaidala, baita umeei ere. Gainera, arazoren bat suertatzen bada, saioaren denbora asko murriztu daiteke, eta jolas-denbora oso motza izatearen arriskua dago. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- erronkak-** Hortik aurrera euskeraz eta gazteleraz azaltzen eman dut, momenturo itzulpentxoak eginez, izan ere, ni haientzat pertsona berria izanik, umeen erosotasuna bilatzea garrantzitsua ikusten nuen hain denbora gutxiko jolasak gozatu eta denbora atsegina bat pasa ahal izateko. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Aproposena, nire ustez, talde bakoitzarekin ordu oso bat izatea izango litzateke, non, jolasa aurkeztea, aurrera eramatea eta balorazioa egiteaz gain, umeei libreki psiko-gelako materialekin jolastea ahalbidetuko litzatekeen. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Bestalde, ondorioztatu izan dut, frustrazioa sentitzea normala dela, ez baitzait nahi bezala atera saioa, *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Esperientzia polita, berria eta beti bezala, erabilgarria izan da, non, umeei egoteko beste aukera bat suertatu den, zein, talde berri batekin lan egiteko aukera izan den. *(Egunerokoa, 2020.03.03)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Ez dut parte-hartzeko arazorik ikusi (nahastu diren umek alde batera utziz, guztira 2 izan baitira) eta errepikapenerako gogoak erraz identifikatu ditut, gustuko jarduerak behin eta berriz errepikatzeko joera baitute adin honetako umek, are gehiago sentsazioak sortarazten dituzten jarduerak izanik (saltoen sentsazioa, biren mario sentsazioa, oreka mantentzearen erronka...). *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Gainera, esperientzia positiboagoa izanda, aurreko eguneko saioari begira, lasaiago eta saioak aurrera eramateko gai edota kapaz edo trebeago ikusi naiz, azken finean, ez da umeen motibazioa soilik baliagarria dena, bakoitzaren motibazio-pertsonalak ere garrantzia handia baitu, honek gainera, saio eta jardueretan eragin zuzena du eta, saio hauek, nire irakasle paperaren barruan, nire jarrerak duen garrantziaz konturatzen laguntzen ari didate. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- hausnarketak-** Gainera, praktikaldia berriki amaituta, umeei egoteko eta lan egiteko “txip”-a “aktibatuta” nuelaren sentsazioa izan dut, lagundu didan zerbait izanik. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Gaurko egunean, beraz, modu hobekoan hasi garela saioa pentsatzen dut, izan ere, beraien psikomo saioetan bezala, errutina gisa, arauak sartzea, atentzioa, parte-hartzea eta kokatzea lagundu egin die. Aldi berean, umeak jokoarekiko interesa sortzeko estrategiak (kontakutako istorioa, misterio puntua ematea jokoari, ausart hitza sartzea...) nahiko ondo funtzionatu izan dutela uste dut, beraz, beste saioetan aplikatu beharreko puntuak direla pentsatzen dut. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Hala ere, aipatzekoa da, saioaren denbora hain urria izanik, saioaren kalitatea nahiko gutxitzen dela, esan daiteke, denbora aproposena, 45 minutu inguru izango zirela (12 ume gehienez), joko gehiagotan errepikatzeko, aldaketa gehiago sartzeko aukera ematen baitu, eta saioa lasaiago aurrera eramango litzateke. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Hala ere, lasaitasuna mantentzea erabaki nuen, urduritasunak ez baitzidan ezerezetan lagunduko, ezta saioari ere ez. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Horrekin batera hurrengokoa onduz edo hausnartu dut: adin bakoitzarentzat hiru saio soilik izanda eta oso denbora gutxi izanik, ezinezkoa egiten zait taldea gutxi ezagutzea, beraz, ez dakit nolako estrategia edota baliabide diren talde bakoitzarentzako hoberenak, zeintzuk beraien atentzioa lortzen lagunduko didaten, eta zeintzuk galtzen. Beraz, kalitatezko saio bat eskaintzea oso zaila egiten zait. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Horrekin batera konturatu nahiz, nahiko egina dutela errutina hau (arauak gogoratzea), dagoeneko buruz baitzekiten ikasle "berriak" barne. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Jolasa oso ondo funtzionatu du, baita umeak motibatzeke era ere (oihanaren eta esploratzailearen kontua dela eta), denbora orotan berriro errepikatzea eskatu baitute. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Nik aktiboagoa ikusi dut nire burua, baita antzerki puntu batekin ere, azkenean, jolasari misterio puntu hori emateko eta umeen artean jolasteko gogoak hazteko, piska bat aktuatzen eta dramatizatzen eman dut, baina erantzun positiboa izan duela ikusi izan da, beraz, hori ere, aplikatzen jarraitu behar den estrategia gisa ikusi izan dut. Aldi berean, saioa ain ondo aurrera zioala ikustean, nire burua gogo gehiagorekin sentitu dut, eta honek, azken finean, nire izateko eran eragina izan du, dinamikoagoa, umeekin gertuagoa eta abar egon bainaiz, lasaiago eta naturalago jardunez. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Nik hau komentatu zidanean, nahiko harrিতта geratu nintzen, psikogelan sartzetakoan egiten den errutina garrantzitsuena izanda, ez nintzelako horretaz gogoratu. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Taldeari begira, nahiko talde ona eta parte-hartzeko prest dagoena izan da, ez da oso zaila izan jarduera aurrera eramatea. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- hausnarketak-.** Umeetako batzuk koltxoneten lekura joan ez zela entzutean, aurpegi “txarra” jarri dute, nahiko argi utzi didate ez zaiela arau hura gehiegi gustatu eta tristura puntu bat sentitu dut, nire esku balego, denbora gehiegi eskainiko nielako eta horretan jolasteko aukera, baina gure egoerara moldatu behar gara eta ezinezkoa egiten zaigu koltxonetetan jolasteko denbora eskaintzea. *(Egunerokoa, 2020.02.18)*

**Sentipenak- kezkak eta zalantzak-.** Bestalde, kontrol ezak aurreko asteko saioarekin konparatuz, frustrazio puntu bat eragin dit, nahiz eta kontuan eduki honelakorik pasa ahal zela. Hala ere, ez nekien oso ondo nola jokatu alde egiten ari ziren hurrekin, ez bainekien zein punturaino “autoritate” jarrera erakutsi, ez bainekien nolako erantzuna izango luketen. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Sentipenak- kezkak eta zalantzak-.** Gaurko egunean lau urteko hurrekin izan dut saioa eta kontuan izanik, beraiekin izandako aurreko saioa nahiko aldrebestua izan zela, nahiko urduri ni joan. *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Sentipenak- kezkak eta zalantzak-.** Gaurkoa jolas-kooperatiboak aurrera eraman ditudan lehenengo eguna izan da. Lehenengo aste hau Haur Hezkuntzako 5 urteko hurrekin saioa egiten hasi naiz. Nahiko urduri nengoen, ez bainekien zer/nolako haur talde tokatuko zitzaidan, hau da, zaila, erraza...*(Egunerokoa, 2020.02.04)*

**Sentipenak- kezkak eta zalantzak-.** Kontrola galtzeak nire jarreran ez dit asko lagundu, ez nekien “galdutako” umeak berreskuratzen saiatu behin eta berriro edo gainontzeko umeetan zentratu beharra nuenik. Beraz, nahiko galduta egon naizenaren sentsazioa zan dut. *(Egunerokoa, 2020.02.11)*

**Sentipenak- kezkak eta zalantzak-.** Nire buruari begira, nahiko urduri sartu arren, saioa ahalik eta hoberen eramaten saiatu naiz. Nahiko ondo atera da, aipatzekoa da, berriz, seriotasun puntu bat edo autoritate puntu bat izan dudala talde bakoitzeko hasierako uanean, saioa hankaz-gora ez jartzeko eta saioaren kontrola mantentzeko. Hala ere, seriotasun puntu hori, esan bezala, hasieran soilik izan da, *(Egunerokoa, 2020.02.25)*

**Sentipenak- kezakak eta zalantzak-** Niri begira, aipatzekoa da, hasieran oso urduri nengoela, baina umeak jadanik nirekin zeudela, haiei ahalik eta kalitate handiagoko harreman eta saioa eskaintzea izan dut helburu, beraz, beldur eta urduritasun gutxiena izaten saiatu naiz eta gidari paperean murgiltzen saiatu naiz. *(Egunerokoa, 2020.02.04)*